

Hitzaurrea: Silvia Federici  
Itzulpena: Aiora Enparantza



# **EMAKUMEEN BOTEREA**

eta komunitatearen  
iraultza

*Mariarosa Dalla Costa  
Selma James*

Katakarak argialetxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturearen irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, make-ta lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.





Mariarosa Dalla Costa eta Selma James

***EMAKUMEEN BOTEREA  
ETA KOMUNITATEAREN  
IRAULTZA***



Mariarosa Dalla Costa eta Selma James

***EMAKUMEEN BOTEREA  
ETA KOMUNITATEAREN  
IRAULTZA***

Hitzaurrea: Silvia Federici

Itzulpena: Aiora Enparantza Armentia



katakarak  
liburuak

Jatorrizko izenburua (1971, 1972): *Donne e sovversione sociale, A Woman's Place, Maternità e aborto*

Egileak: **Mariarosa Dalla Costa, Selma James**

Jatorrizko lizentzia: © Women and the Subversion of the Community:  
**Mariarosa Dalla costa, © Women and the Subversion of the Community: Selma James**

Itzulpena: **Aiora Enparantza Armentia**

Barruko argazkia: **1 Maggio 1975 Padua**

Diseinua: **Koldo Atxaga Arnedo**

Lehenengo edizioa: **2025eko urria**

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

[argitaletxea@katakarak.net](mailto:argitaletxea@katakarak.net)

[www.katakarak.net](http://www.katakarak.net)

@katakarak54

Liburu honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren laguntza jaso du



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKometziala-Lan EratorririkGabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau koptatu, zabaldu eta jendartean erakusteko beti ere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.

ISBN: 978-84-10316-19-5

ISNI: 0000 0005 1330 6065

Lege gordailua: NA 2299-2025

Inprimaketa: **Alzate Grafikak**


## AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA .....	11
HITZAURREA (Silvia Federici).....	17
<b>BAT</b>	
Sarrera (Selma James).....	25
<b>BI</b>	
Emakumeak eta komunitatearen iraultza (Mariarosa Dalla Costa).....	47
Familia kapitalistaren jatorria .....	50
Soldatarik gabekoen esplotazioa.....	56
Gainbalioa eta fabrika soziala.....	63
Emakumeak eta lanik ez egiteko borroka .....	87
<b>HIRU</b>	
Emakumearen lekua (Selma James) .....	91
Emakume ezkongabea .....	92
Emakume ezkondua.....	94
«Norberaren nagusi» .....	101
Emakume langilea .....	110
<b>LAU</b>	
Amatasuna eta abortua (Lotta Femminile de Padova Mugimendua).....	121





ABORTO  
LAVORO  
ARTO DOMESTICO



## ARGITALETXEAREN OHARRA EMAKUMEEN ASKAPENEN KLASIKO BAT

Nazkatuta gaude haurrak ekartzeaz  
harrikoa egiteaz eta fardelak lisatzeaz  
gizon baten mendeko izateaz  
eta gizon horrek guri kontrazepzioa debekatzeaz  
Canzoniere Femminista, *Canti di donne in lotta*, 1975 Erroma

Esku artean duzun liburu hau emakumeen askapenaren inguruan idatzi diren testu ezinbestekoen artean dago. Batetik, 1960ko hamarkadaren amaierako Europako feminismoaren eztabaidak jaso zituelako; baina, bestetik, intuizio horiei oinarri teorikoa eman zielako.

### **Operaismotik feminismo autonomora**

Ezin da liburu hau ulertu egileen testuinguru politiko eta pertsonala aintzakotzat hartu gabe.

Maria Dalla Costa (Treviso, 1943) Lotta Feminista erakundeko kidea zen, zeina Italiako operaismoaren korrontearen parte baitzen. Operaismoa, zabal esanda, Italiako korronte komunisten eta anarkisten arteko

mugimendu bat izan zen, eta kritika erradikala egiten zien Bigarren Mundu Gerraren ostean Moskuren esanetara zeuden alderdi komunista nagusiei: ez zutelako kapitalismoa suntsitzeko asmorik, ez zutelako iraultzarik nahi, parlamentarismoan jardun zutelako. Autonomoek *Kapitala* berrirakurri zuten. Mugimendua-  
ren ezaugarriak aldatu egiten ziren herrialde batetik bestera, sarri baita hiri batetik bestera ere. Frantzian, Socialisme ou Barbarie taldekoak izan ziren talde teoriko erreferentzialena; mundu anglosaxoian, AEBn, Johnson-Forest Tendency-koak izan ziren entzute-tsuenak. Tendentzia horretan egon zen Selma James, adibidez, eta han ezagutu zuen troskismotik zetorren eta geroago bere bigarren senarra izango zen C.L.R. James. Korronte artistikoek eragin handia izan zuten Italiako eta Frantziako autonomian; bereziki situazio-nismoak, baina baita Gruppo 63-k ere. Eta nahiz eta XIX. mendearen amaierako eta XX.aren hasierako zenbait figura historikoren erreferentziak zeuzkaten (Rosa Luxemburg, Leon Trotski, Karl Korsch, Paul Mattick), proiektu politiko aski berria izan zen, iraultzari logika antiautoritario bat ezarri ziolako (zeina SESBen itzalean osatutako sozialismo errealeko estatuekiko kritikoa baitzen).

Selma Jamesen (New York, 1930) jaiotzetiko izena Selma Deitch zen. Gurasoak juduak ziren; aita kamioi-gidaria zen, eta ama fabrikako langilea, seme-alabak ekartzen hasi zen arte. Selma ere fabriketan ibili zen beharrean, aurreneko senarrarekin haurrak izan eta etxeko lanetan hasi behar izan zuen arte. Hamabost urterekin, Johnson-Forest Tendentziako kide bilakatu zen. Talde hura marxismo humanistan zegoen kokatua, eta C.L.R. Jamesek, Raia Dunaievskaiak eta Grace Lee Boggs-ek zuzentzen zuten. Hogeita bi

urte besterik ez zituela argitaratu zuen *A Woman's Place*, 1952an. Haren militantziako une garrantzitsuen artean, honako hauek daude: batetik, 1965an antolatu zuten Arraza-diskriminazioaren kontrako Kanpaina zuzendu zuen; bestetik, 1969tik aurrera Beltzen Eskualdeko Ekintzen Mugimenduko sortzailea izan zen, eta editore-lanetan jardun zuen egunkarian. Bestalde, 1972tik aurrera etxeko lanentzako soldataren aldeko kanpainak zuzendu zituen nazioartean, eta Ingalaterrako Prostituten Kolektiboko lehenengo bozeramalea ere izan zen. XXI. mendeari dagokionez, Emakumeen Mundu Greba koordinatu du, eta, azken urteetan, sionismoaren aurkako militantea izan da.

Hartu ditzagun gerora *feminismo autonomo* deitu izan zaion korrontearen egile ezagunenak: Leopoldina Fortunati (Mariarosa Dalla Costaren oinordekoa, Toni Negri-ren eta Marx-en eragin handia jasotako egilea), Maria Mies feminista marxista eta, azken bi hamarkadetan bereziki, gurean hain irakurria izan den Silvia Federici. Bada, oinarri-oinarriaren den-denek erabili izan dituzte Marxen tresnak eta obra historiako eta gaur egungo gizarte-egitura patriarkalak aztertzeko.

Esan daiteke autonomoen aberria Italia zela, nahiz eta Frantzia, Alemanian eta AEBn ere egin ziren ekarpen nabarmenak eta korronte horiek Europa osoan eta Ipar zein Hego Ameriketara ere garatu ziren.

Testuinguru horren alaba izango zen autonomian sortu zen Dalla Costa eta Jamesen feminismoaren korronte zehatza, eta hura izango zen 1970eko hamarkadatik aurrerako feminismoaren ametako bat ere (Europako ultraezkerreko alderdi troskista eta maositetatik zetozen kideekin batera osatua).

## **Testuaren izaera eta tradizio politikoarekiko lotura**

Argialetxearen beste oharren batean ere aipatu izan dugu: gerora liburu gisa irakurtzen diren liburu asko, jatorrian, oso bestelako materialak ziren. Berezi nabarmena da ezaugarri hau politika iraultzaileei buruzko testuez ari garenean. Hasiera batean, eztabaidarako materialak izan zitezkeen (Deirdre English eta Barbara Ehrenreichen *Sorginak, emaginak eta erizainak* liburua unibertsitatean eztabaidatzeko fanzine bat izan zen), edo erakundeen kongresuetarako hitzaldiak (Clara Zetkinen *Faxismoaren aurka borrokan* kongresuetarako osatutako testuen bilduma bat zen), edo bizitza oso bateko ikerketa autodidaktak (Leslie Feinbergen *Borrokalari transgeneroak* kasu).

Gisa horretakoa da testu hau ere, eta horregatik dauka kapitulu bakoitzak data (1971-1972) eta, kasu batzuetan, baita tokia ere, une hartan egileek parte hartzen zuten borroken eta guneen erakusgarri. Testu hauek beste erakunde eta tradizio politiko batzuei erantzuten diete, kanpora begirako testuak dira; baina, aldi berean, eta bereziki, beren korronteetako eztabaidak egituratzeko eta haien maila goratzeko helburua dute. Ahalegin teoriko horri garrantzia eman nahi diogu, emakumeen askapenari lotutako militantzia ez dadin izan soilik salaketara lerratutako dinamika bat, aktibismo hutsa. Izan ere, militantzia alaiak, kontrarioei eta arerioei aurre egiteaz gain, errealitatearen irakurketak zabaldu eta sakontzeko gaitasuna du, duela mende erdiko dozenaka emakume haiek erakutsi bezala.

## **Zer eratako feminismoa euskaraz**

Gero eta sare aberatsagoa ari da osatzen euskaraz ere azken hamarkadan emakumeen askapenaren

inguruan. Egile feministak ekarri dira (Silvia Federici, Angela Davis, Virginie Despentes, Rote Zora, Monique Wittig, Judith Butler, bell hooks, Juno Mac eta Molly Smith, Simone de Beauvoir, Barbara Ehrenreich eta Deirdre English, Raia Zakaria, Nancy Fraser), baita feminista izan ez arren emakumeen askapenean funtsezkoak izan diren egileek ere (Rosa Luxemburg, Clara Zetkin, Rosa Parks, Louise Michel, Assata Shakur). Eta, horiekin batera, emakumeen askapena berariaz aztertu gabe ere saiakeragintza kritikoa landu duten egileek ere beren tokia egin dute (Leslie Feinberg, Hannah Arendt, Susan Buck-Morss). Osatu den sare hori ez da nolana hiko, zeren osa zitekeen, adibidez, tradizio liberalari, burgesari, lotua; baina, zorionez, oso modu esplizituan, emakumeen askapena klasearen askapenaren aldeko eta arrazakeriaren aurkako borrokari lotu zaio. Emakumeen askapen bat non pertsona transek eta sexu-langileek baduten tokia, non ulertzen den pertsona arrazializatuak ezinbesteko subjektu direla.

Ospa dezagun, beraz, genealogia zabal eta aberats horren baitan Aiora Enparantzak euskarara ekarri duen klasiko hau. Gainera, Silvia Federicik beren beregi osatu du hitzaurrea euskarazko edizioarentzat.

Segi dezala praktikak eta teoriak!

Iruñea  
2025eko urria





## HITZAURREA

*Emakumeak boterea eta komunitatearen iraultza* (WSC, *Women and the Subversion of the Community*) berri-rakurri dut hitzaurre hau idazteko, eta zeharo harritu nau, beste behin, duela berrogeita hamar urte argitaratutako testu honen ausardiak eta adoreak. Gaur egun, oraindik ere, Dalla Costaren lana inspiragarria da familia-, genero- eta gizarte-harremanen eraldaketa erradikalaren aldeko borrokan.

1970eko hamarkadako mugimendu feministaren testu garrantzitsuenen artean kokatu dute *Emakumeak eta komunitatearen iraultza*; izan ere, atzera begira, garaiko diskurtso feministarekiko apurtzailea izan zen. Emakumeen gizarte-maila lanaren antolaketan kapitalistarekin lotzen zuen, eta, horrez gain, etxeko lanak gizarte-ekoizpenaren funtsezko elementu direla eta metaketa kapitalistari laguntzen diotela argudiatuz, emakumeen borrokak borroka antikapitalistaren erdigunean kokatzen zituen.

Horrela, feminista garaikide gehienek defendatzen zituzten joeretatik aldendu zen, zeren, oro har, abortuaren aldeko borrokan zebiltzan, baita ema-

kumeen gorputzen gaineko estatu-kontrolaren eta sexu-harremanen egitura patriarkalaren kontrako borrokan ere. Ikuspegi horrekin bat, feministek «emakumeen zapalkuntza» aipatzen zuten, gizonek etxeko lanetan parte hartzen ez zutelako salatzen zuten, gizonekiko berdintasunaren alde borrokatzen ziren eta lesbianismora jotzen zuten, gizonekin harremanak izateak zekartzan menderatze-harremanen alternatiba gisa. Ezta feminista sozialistak ere, nahiz eta kategoria marxistak erabili zituzten emakumeek kapitalismoan zuten zeregin ekonomikoa aztertzeko, ez ziren konturatu kategoria horiek sistemaren erreproduktzioarako zuten garrantzia. «Emakumeen askapenaren ekonomia politikoa» (1969)<sup>1</sup> lanean, Margaret Benstonek argudiatu zuen emakumeek, etxekoandreak diren heinean, «erabilera-balioak» soilik ekoizten dituztela. Peggy Morton-ek ere, 1970eko «Emakumeen lana ez da inoiz amaitzen»<sup>2</sup> saiakeran, arrazoitu zuen etxeko lanak lan-indarraren erreproduktzioa direla eta, beraz, baita langileen erreproduktzioa ere; baina ez zen ohar-tu emakumeek horren kontra egin zezaketen borroka zuten potentzial iraultzaileaz.

Dalla Costaren saiakerak, aldiz, ez du zalan-tzarik egiten auzi horretan. Argi dago gaur egungo feminista asko ez direla guztiz ados egongo hasierako azalpenekin; izan ere, Dalla Costak argiro esaten du etxekoandrea lanaren zatiketa kapitalistak sortutako rol femeninoaren «figura nagusia» dela.<sup>3</sup> Hala ere, baieztape horrek, zeinak hasiera batean murriztailea

---

1 Ikus Margaret Benston, «The Political Economy of Women's Liberation», Ellen Malos (ed.), *The Politics of Housework*, New Clarion Press, 100-109. or.

2 Peggy Morton, ibid: 110-134. or.

3 Mariarosa Dalla Costa, «Women and the Subversion of the Community» (1972), Camille Barbagallo (ed.), *A Mariarosa Dalla Costa Reader*, Oakland, PM Press: 18. or.

baitirudi, etxeoandreak figura sozial gisa<sup>4</sup> duen espezifikotasun historikoa kontuan hartuta, etxe ko lanetik harago doan «erreprodukzioa» ulertzeko bidea zabaldu du. Eta, luzera, Marxek metaketa kapitalistaren prozesuan salgaien ekoizpenari eta fabrikari eman dion nagusitasuna ordezkatzen lagundu du.

Gainera, Dalla Costaren saiakeran, «etxe koandrea» emakumeek gizarte kapitalistan duten lekua ulertzeko giltzarria da, lan-indarraren ekoizle nagusia ez ezik, soldatarik gabeko langilea ere bade-lako. Horrela, WSCk borroka feminista eta soldatarik gabeko langileena —esklaboak, peoiak, subjektu kolonizatuak— lotzen laguntzen digu; izan ere, haiek dira. orain arte, garapen kapitalistari eta etengabeko krisiei gehien lagundu dietenak, bai beren lanaren gainesplotazioaren bidez, bai horren kontra egindako borrokaren ondorioz.

Hori ez da kasualitatea. WSCn zehar, Ameriketako Estatu Batuetako borroka antikolonialaren eta eskubide zibilen aldeko mugimenduaren eragina nabari da, baita Italian Udazken Beroa deitu zitzaion langile-borroken olatuaren eragina ere, zeinak agerian utzi baitzuen lanaren diziplina kapitalistaren aurkako jarrera orokortua. Garrantzitsuena da WSCk mugimendu «operaistak» (bere garaian «obrerista» gisa itzulia italiaritik) Dalla Costarengan izan zuen eragina erakusten duela, zeinetan aktiboki parte hartu baitzuen 1960ko hamarkadaren amaierara arte, Lotta Femminista erakundearekin<sup>5</sup> bat egin aurretik.

---

4 Ikus (besteak beste) Silvia Federici, «Origins and Development of Sexual Work in the United States and Britain», Silvia Federici, *Beyond The Periphery of the Skin. Rethinking, Remaking and Reclaiming the Body in Contemporary Capitalism*, Oakland, PM Press, 89-108. or.

5 Mario Tronti, *Workers and Capital*, Verso Books, Londres, 2019, Italiaritik itzulia, *Operai e Capitale*, Einaudi, Turin, 1966; bigarren edizioa 1971; Berrinprimtua DeriveApprodi, Erroma, 2006].

Langile-klasearen autonomiaren enfasi «ope-  
raista» da, Mario Tronti-ren adierazpen ezagunak  
dioen bezala, «lehenik klasea dator eta gero kapitala»,  
eta horrek azaltzen du Dalla Costak nola eraldatzen  
duen ausardiaz etxekoandreaken figura, nola bihur-  
tzen duen lehen biktima zena gizarte kapitalistaren  
sorreraren eta haren aurkako borrokaren protago-  
nista. Are, etxeko lanaren izaera produktiboa ez ezik,  
emakumeek horri uko egin izana ere azaldu digu, eta  
esplotazio kapitalistaren ikuspegitik emakumeen bi-  
zitzaren alderdi guztiak berrikusi ditu, esate batera,  
«umetokiaren funtzio kapitalista» atalean.

Dalla Costaren jarrera erradikalaren alderdi  
garrantzitsu bat da, halaber, aintzat hartzea haurren  
zapalkuntza, eskola-sistemaren bidez antolatua, bai-  
ta haurren eta gazteen errebolta gero eta handiagoa  
ere, zeinak, bere esanetan, «lotura estua» baitzuen  
mugimendu feministaren eztandarekin. Hezkun-  
tza-sistema zabalago baterako sarbidea emakumeak  
askatzeko eta gizartea demokratizatzeke bidea dela  
dioen joera feminista historikoaren aurka, WSCk sa-  
latzen du eskola, familia bezala, erakunde kapitalista  
bat dela. Langile-familia haustera eta haurrak beren  
komunitateetatik bereiztera bideratutako «hezkuntza»  
eta eskola-sistema erakunde arrotz eta antagoniko  
gisa salatzeak langile-komunitatearen suntsiketa kapi-  
talistaren historia boteretsu bat dakarkigu gogora. Izan  
ere, Dalla Costa berak ikasle-mugimenduan izandako  
esperientzian oinarritu zen, dudarik gabe, baina bai-  
ta Ameriketako Estatu Batuetako hegoaldeko eta Ipar  
Irlandako haurren borrokan ere. Mugimendu feminis-  
taren eta ikasle-mugimenduaren arteko jarraitutasuna  
ere erakusten du, eta langile-klaseko haurra subjektu  
errebeldetako gisa proiektatu; hala, ebatzi gabe uzten du

haur eta helduen arteko bereizketa. Hori baita WSCren alderdi boteretsuenetako bat, emakumeen eta haurren arteko harremanaren berrinterpretazioa, «ekoizpene-  
tik baztertutako» guztien figura enblematiko gisa, baita bizitzaren antolaketa kapitalistaren aurkako mundu mailako iraultza bateko aliatu gisa.

Hezkuntzari eta irakaskuntzari buruz duen ikuspegiak erakusten duenez, Dalla Costak ez du uste «erakunde demokratikoei» —eta, bereziki, estatuak— emakumeen egoera hobetzeko gaitasuna dutenik. Mugimendu feministaren helburuak ezartzeari dagokionez, behin eta berriro esaten dute ezen emakumeek estatuei gizarte-zerbitzuak exijituz gero horiek ezinbestean komunitatearen kontrolpean egon behar dutela. WSCn, mesfidantza hori etxeko lanetarako soldataren eskaerara eta soldatapeko lanaren aldeko aldarrikapenetara ere hedatzen da. Bien alternatiba gisa, etxekoandreaken rola errotik ukatzea proposatzen du, hau da, etxeari eta familia nuklearrari uko egitea, zeren horrek ahalbidetuko omen luke emakumeek borroka sozial guztietan parte hartu ahal izatea. Denboraren poderioz, ordea, Dalla Costa konturatu bide zen ezen, esklabotzaren aurkako borrokan bezala, etxeko lanaren aurkako borrokan ere soldata baten eskariak esanahi desberdina zuela, iraultzaileagoa: etxeko lana *lana* dela ikusaraztea eta emakumeei alternatiba bat eskaintzea. gizonen menpekotasunetik eta soldatapeko edozein lan —eta edozein baldintzatan— onartzetik haragokoa Hala, WSC argitaratu eta gutxira, 1972ko udan, etxeko lanentzako soldataren aldeko nazioarteko kanpaina martxan jarri zuen bilera antolatutako Paduan, eta hainbat herrialdetako emakumeek hartu zuten parte.

Seguru aski, honako faktore honek ere eragina izango zuen mugimendu feministaren estrategiaren birplanteamenduan: Dalla Costak bazuen Ameriketako Estatu Batuetan gizarte-laguntzak jasotzen zituzten amen borrokaren berri, zeinek behin eta berriz esaten baitzuten etxeko lanak lan ezinbestekoa zirela gizartearentzat, batez ere seme-alabak norberarenak direnean. Geroago, 1997an, Dalla Costak liburu bat eskaini zion *Welfare Mothers Movement* mugimenduari,<sup>6</sup> hura jada eraso izaten ari zen une batean. Gizarte-laguntzak jasotzen zituzten amak bizkarroitzat jotzen zituzten komunikabideetan, eta feministekin konparatzen zituzten, zeren haiek behintzat bazuten beren burua gainditzeko nahia, nagusiki gizonen eskuetan zeuden lanpostuetara iritsita. Dalla Costa ikuspegi horren aurka borrokatu zen, baina aldi berean, ez zuen sekula uste izan emakumeei etxeko lana ordaindutakoan nahikoa izango zutenik; bere ustez, WFH ez zen amaierako puntu bat, baizik eta emakumeen eta gizonen arteko eta emakumeen eta estatuaren arteko botere-harremanak aldatzeko estrategia bat.

WSCn dagoeneko, Dalla Costak erradikalki arbuizatzen du lan kapitalistaren molde oro askapenerako bide gisa. Feminista gehienek baino lehenago, ohartu zen kapitalismoa prest zegoela emakumeek soldatapeko lanaren bidez autonomia lortzeko zuten itxaropena esplotatzeko, mundu mailako ekonomia politikoaren berregituraketaren testuinguruan. Are garrantzitsuagoa, uko egin zion etxeko kartzela fabrikako kartzelarekin ordeztuari, jakitun baitzen kapitalismoaren barruan lanak, edozein formatakoak, esplotazioa

---

6 Mariarosa Dalla Costa, *Famiglia, welfare e stato tra Progressivismo e New Deal*, Erroma, Franco Angeli, 1997. [Ingelesezt: *Family, Welfare and State Between Progressivism and the New Deal*, Brooklyn, Common Notions, 2015].

esan nahi duela. «Mugimendu feministaren erronka —idatzi zuen— borrokarako modu egokiak aurkitzea da, alegia, emakumeak etxetik askatzearekin batera... esklabotza bikoitza saihestuko dutenak eta “beste kontrol- eta menderatze-maila bat” galaraziko dutenak».

80ko eta 90eko hamarkadetan, Afrikara, Mexikora eta Japoniara bidaiatu zuen, eta hango feministak eta beste ekintzaile batzuk ezagutu zituen. Prozesu horretan, indigenen borrokaren eta mundu kolonizatuaren nondik norakoak entzun ondoren, Dalla Costa konturatu zen lurraren aldeko borroka ezinbestekoa zela emakumeen askapenaren aldeko borrokarako. Zapatisten mugimenduak bereziki inspiratu zuen; euren lurren aldarrikapenak eta bizitzaren antolaketak komunitarioak kapitalismoan bizitzeak dakartzan alternatibak modu eraikitzailean gainditzen dituen gizarte baten adibide ziren Dalla Costarentzat.

«Emakumeak eta komunitatearen iraultza» lanean, Dalla Costak irtenbide hau ematen zion berak proposatutako erronkari: emakumeek lanaren antolaketa kapitalistaren esparru guztietara eramatea borroka feminista, «erakunde kapitalistaren esparru orok oinarri bera duelako: etxea, batetik, eta emakumeek bertan egiten duten lana, bestetik».<sup>7</sup> Horrela, WSCk baztertu egin zuen klase-borrokan emakumeek izan behar duten lekuari buruzko ikuskera ezkertiar tradizionala, zeinak emakumeak beti menpeko nahi baititu, gizonen borroka babesten. Era berean, beste ideia bat ere baztertu zuen, alegia, posible zela kapitalismoaren barruan emakumeak askatzea; hau da, esaten zuena mobilizazio antikapitalistan zuzenean parte hartu gabe ere emakumeen askapena lortu zitekeela. Honela adierazi zuen berak: «Azken batean,

---

7 «Women and the Subversion of the Community», 32. or.

hori da mugimendu feministaren barruan erreformismoa eta politika iraultzailea bereizten dituen marra».<sup>8</sup> Berrogeita hamar urte geroago, ziurtasunez baieztatzeko dezakegu zatiketa hori oraindik ere politika feministaren erdigunean dagoela. Hala ere, gaur egun feminista gutxi jarriko dute zalantzan lan erreproduktiboa —eta erreproduktio soziala, oro har— dela, eta izan behar duela, borroka feministaren eremu nagusia.

Silvia Federici  
New York, 2025eko urria

---

8 Ibid., 42. or.

# BAT

## SARRERA

Ondoko bi artikulua 19 urte eta 12.000 kilometro distantzian idatzi genituen.

Lehenengoa, *Emakumeak eta komunitatearen iraultza*, Italiako emakumeen mugimendu berriaren emaitza da. Emakumeen nazioarteko mugimendua handitzen ari da eta muntako ekarpena egin dio mahaigaineratu den galderari: zein da emakumeok kapitalarekin dugun harremana eta nola borrokatu gaitezke bere kontra betirako suntsi dezagun? Esan beharra dago, istantean —lotura badu ere— ez dela gauza bera galdetzea: zer kontzesio atera diezaiokegu etsaiari? Lehenengo galderan, irabaziko dugulakoan gaude; bigarren galderan, aldiz, porrotaren suntsipenetik zer salba dezakegun taxutzen ari gara. Baina, *irabazteko* borrokaren bidean, gauza asko lor daitezke.

Orain arte, mugimendu feministak laguntzarik gabe definitu behar izan du bere burua, emakumeen eta plan kapitalistaren garapen eta azpigarapenaren

arteko harremanari eginiko kritika marxistaren gonorazko herentziarik gabe. Alderantziz, kapitalaren kontzeptu erreformista eta desitxuratua jaso dugu, antolatzeko, kontrolatzeko edo zuzentzeko borrokatu beharreko zenbait *gauza* balira bezala, eta ez suntsitzeko borrokatu beharreko *gizarte-harreman* bezala.<sup>9</sup> Herentziarena edo herentziarik ezarena alde batera utzita, gure mugimenduak emakumeen esperientzia aztertu du, guk geuk horri buruz genekienetik hasita. Horrela, lehen aldiz, maila masiboan, ezagutza sakon eta erabateko zehaztasunarekin, deskribatu ahal izan dugu emakumeen degradazioa eta gure izaeraren eraketa, biktima isil eta indargabeak izatea onartuko genuela espero zuten indarrek zizelkatu duten hori. Aurkitutakoaren argitan, bi joera politiko sortu dira, itxuraz muturrekoak, mugimendu feministaren barneko gama politikoan.

Klasea beharrean, oinarrizkoa *kasta* dela azpimarratu duten emakumeetako batzuek esaten dute «analisi ekonomiko» deiturikoak ezin duela emakumeen zapalkuntza fisiko eta psikologikoa barne hartu, eta borroka politikoak ez duela hura suntsitzeko gai-

---

9 «...Wakefield kolonietan konturatu da pertsona batek dirua, bizibideak, makinak eta beste ekoizpen-bide batzuk edukitzea, ez dela nahikoa kapitalistatzat jo ahal izateko, osagarri bat falta bazaio: soldatapeko langilea, bere burua bere borondatez saltzera behartuta dagoen gizon hori... eta konturatu da kapitala *ez dela gauza bat, baizik eta gauzak erabiltzen dituzten pertsonen arteko gizarte-harremana*. Peel jaunak — dio gure aurrean Wakefieldek— Ingalaterratik Holanda Berriko Swan Riverera garraiatu zituen 50.000 libera esterlinatan balioztatutako bizi eta ekoizpen-bideak. Gainera, langile klaseko 3.000 pertsona (gizonezkoak, emakumezkoak eta haurrak) garraiatzeko zuhurtzia izan zuen. Baina espedizioa helmugara iritsi zenean, "Peel ohea egin eta ibaitik ura igoko zion zerbitzaririk gabe geratu zen". Gaixoa, Peel jauna! Dena aurreikusi zuen, Ingalaterran nagusi ziren ekoizpen-baldintzak Swan Riverera esportatzea izan ezik». Marx, *El Capital*, 1. liburukia, Fondo de Cultura Económica México, 1972, 651. or., Wenceslao Rocesen itzulpena. (Selma Jamesek azpimarratutakoa).

tasunik. Borroka politiko iraultzailea arbuiatzen dute. Kapitala immorala dela diote, erreformak behar dituela eta gaintitu egin behar dela —hau da, erreformak betebeharrak morala direla eta, «sozialismorantz» egindako trantsizioa negoziatua eta, batez ere, indarkeriarik gabekoa dela —, baina ez dela etsai bakarra. Lehenik eta behin, gu geu edota gizonak aldatu behar ditugu. Beraz, borroka politikoa ez ezik, irtenbide pertsonal bat bilatzeko lanpetuegi dagoen emakume masaren askapena ere arbuiatzen dute, lanean edo gainerakoak zaintzen ari direlako.

Politika horren etorkizuneko norabideak aldatu egiten dira, gehienbat, ikuspuntu horrek hainbat forma izan ditzakeelako atzean dauden emakumeen gizarte-mailaren arabera. Horrelako klub elitista bat barnerakoa da eta isolatua egon daiteke, inori kalterik egin gabe, gainera mugimendu osoa gutxiesten du. Bestalde, klub elitista hori, klase menderatzaileak arlo guztietan bilatzen dituen gerentzia moldeen iturri izan liteke, emakume errebeldeen gaineko kontrola gauzatzeko, eta —bedeinka bedi berdintasuna— baita gizon errebeldeen gainekoa ere.<sup>10</sup> Bide batez, bada gobernuaren bazterretan ere partaidetza horri lotutako anbizio eta lehiakortasuna, orain arte, batez ere, gizonekin identifikatu dena.

Baina iraganeko eta etorkizuneko historia ez da sinplea. Kontuan izan behar dugu mugimenduaren aurkikuntza zorrotzenetako batzuk eta horien autonomia, klase-borrokan oinarrituta, klasea arbuiatu zuten

---

10 1971ko martxoaren 9ko *Financial Times* egunkariak iradoki zuen kapitalista asko, emakumeak tarteko, zuzendaritza postuetan «erabiltzeko» aukera alferrik galtzen ari direla; «esker oneko marjinatuak» direnez, emakumeak soldata-maila jaisteaz gain, «hasieran behintzat» gainerakoak bideratzeko «energia eta bizitasun berriaren iturri» ere izan daitezke.

emakumeek egindakoak direla. Orain, mugimendua-  
ren eginbeharra, aipatutako irakaspenak oinarri  
hartuta, estrategia politiko bat garatzea da, autonomia  
horretan jarraiki.

Oinarrizkoa, hasieratik, kasta baino, kla-  
sea dela azpimarratu duten gehienek ez dute behar  
bezain ondo egokitu gure analisi psikologikoa, ekin-  
tza politiko iraultzaile eta autonomora. Klasearen  
definizio maskulino batetik hasita, emakumearen as-  
kapena soldata-berdintasunera eta ongizate-estatu  
«bidezkoago» eta eraginkorrago batera murriztu da.<sup>11</sup>  
Emakume horientzat kapitala da etsai nagusia, baina  
ez existitzen delako, *zaharkitua* dagoelako baizik. Ez dute  
gizarte-harreman kapitalista suntsitu nahi, modu arra-  
zionalagoan antolatu baizik. (Iraultzailetik bereizteko,  
parlamentuz kanpoko italiako ezkerak «sozialista»  
deituko lioke jarrera horri). «Zapalkuntza» deitzen diote  
kapital arrazionalizatuak konpondu ezin duen guztiari  
—soldata berdintasuna, haurtzaindegi gehiago eta ho-  
beak, lanpostu gehiago eta hobeak, eta abar— eta hori,  
«hazi egin zen, besterik gabe», gurasoak ezagutu ez  
zituen Topsy haur esklaboa bezalaxe. Harreman ma-

---

11 Baieztapen hori muturrekoa iruditu bazaizue, ikus itzazue 1971n  
Ingalaterran egin genituen eskaerak: soldata berdintasuna, 24 orduz  
zabalik egongo diren doako haurtzaindegiak, aukera-berdintasuna  
hezkuntzan, eta doako antisorgailuak eta abortatzeko eskubidea.  
Borroka zabalago batean txertatuta, eskaera horietako batzuk hil ala  
bizikoak dira. Eskaerek, bere horretan, ontzat jotzen dute mantendu ezin  
dugun seme-alabarik ez izatea; estatuari erraztasunak eskatzen dizkiote  
mantendu ditzakegun haur horiek 24 orduz zaintzeko; eta haur horiek lan-  
merkatuan soldata berdinen truke eta elkarren lehian saldu ahal izateko,  
berdin baldintzatu eta heziak izateko aukera izan dezaten eskatzen dute.  
Berez, ez dira sisteman integratu daitezkeen eskaerak soilik, planifikazio  
kapitalista dira. Mugimenduko kide gehienok ez genuen inoiz sentitu  
eskaera horiek mugimenduari eman nahi genion norabidearen adierazle  
zirenik, baina esparru politiko feminista independente baten faltan, ez  
agertzeagatik galdu genuen. Eskaera horien ekoizle nagusi izan ziren  
emakumeek, «klase-analisia» aplikatzen zuten.

terioletatik arroztutako zapalkuntza «kontzientziazio» arazoa da eta, kasu honetan, psikologia jargoi politiko-koz mozarrotzen da. Horrela, «klase-analisia» erabili da mugimenduaren erasoaren zabaltasuna mugatzeko eta haren autonomia ere ahultzeko.

Funtsean antzekoa izan arren, ez da agerikoa «zapalkuntza» desagerrarazteko «gizartea» arrazional-ki kontrolatu nahi duten bi joera horien izaera liberala, orokorrean, emakume «politikoak» eta «ez-politikoak» eskaera zehatzen batengatik elkarrekin ikusten ditugun arte, ala, maizago, ekintza iraultzaileen kontra bat egiten duten arte. Mugimenduko emakume gehienok ez ditugu joera horiek jarraitzen eta zailtasunak izan ditugu horien artean bide egiteko orduan. Batzuek zein besteek galdetzen digute: «Feminista zara ala politikoa?».

Klaseari buruz mintzo diren emakume «politikoak» erraz identifikatzen dira. Askapenaren alde daudenak dira, baina haien aliantza nagusia ez da mugimendu feministarekin, gizonen menpeko ezkerreko erakundeekin baizik. Behin estrategiaren eta ekintzaren erdigunea emakumeengandik urruntzean, emakumeen borroka gizonengan, «langileengan», izan lezakeen eraginaren arabera neurtzen dute, eta emakumeen kontzientzia politikoa, tradizionalki gizonek erabili izan dituzten borroka moduen bidez eraikitzen dute.

Emakume «politikoek» gainerako emakumeak ez-politikotzat gaituzte eta, horren ondorioz, elkartzerakoan sortu behar izan dugun autodefentsa egoerak gure arteko desberdintasun politikoak ezkutatu eta gutxietsi ditu. Orain hasi gara desberdintasun horiek sumatzen. Psikologia-talde deiturikoek (ez naiz kontzientziazio-taldeei buruz ari) kasta-politika kohe-

rentzia handiz adierazteko joera dute.<sup>12</sup> Baina talde horien jatorria edozein dela ere, emakumeak kasta modura bakarrik hartzea ildo politiko zehatza da, eta, egunetik egunera, adierazpen politiko eta antolatzaile handiagoa du egin beharrekoari buruzko edozein eztabaidatan. Langile-klasearen jardueraz josia dator denboraldia, eta gizonen menpeko mugimendu sozialistaren bigarren eskuko teoriak alde batera utzita, geure marko politikoa sortzen ari gara halaberrez. Kasta gailentzen dela proposatuko dute alternatiba gisa, eta horri aurre egin beharko diogu eta baita baztertu ere. Oinarri horren gainean soilik aurki baitezake ahotsa eta indarra autonomiari lotutako politika berriak.

Garapen-prozesu hori ez dagokio mugimendu feministari bakarrik. Beltzen mugimendua, Ameriketako Estatu Batuetan eta leku guztietan, kasta-posizioa besterik ez zirudiena hartuz hasi zen, gizon zuriek

---

12 Psikologia, *izatez*, manipulaziorako arma bikaina da; hau da, gizonen eta emakumeen eta haurren kontrol sozialerako arma. Ez du izaera aldatzen askapen-mugimendu batean emakumeek erabiltzen dutenean. Alderantziz, aukera ematen dugun bakoitzean, mugimendua manipulatu du, eta mugimenduaren izaera aldatzen du bere beharretara egokitzeko. Hori ez da psikologiarekin bakarrik gertatzen. «Emakumeen askapen-mugimenduak hau behar du:

A) Soziologia suntsitzea, gizarte hau «araua» dela dioen proposamenean oinarritutako gizarte-zerbitzuen ideologia den aldetik; norbaitek kontra egiten badio, desbiazionista da.

B) Gure «arazoak» liskar pertsonalak direla eta mundu ero batera egokitu behar dugula sinetsarazi nahi diguten psikologia eta psikiatria suntsitzea. «Diziplina eta «zientzia» horiek, gero eta jaramon handiagoa egingo diete gure eskaerei, gure indarrak beren agintepeko kanal seguruetara bideratzeko. Haietaz arduratzen ez bagara, haiak arduratuko dira gutaz.

C) «baimena kentzea, behin betiko, gizarte-langileei, hezitzaile aurrerakoiei, ezkontza-aholkulariei, eta gizon, emakume eta haurrak, bakoitzak bere gizarte-lobotomia frontal espezializatuaren bidez, gizarte-esparruan lanean mantentzeko eginkizuna duten adituen armada osoari». (Selma James, *Familia iparramerikarra: gainbehera eta berpizkundea*. Berrinprimatua hemen: *From feminism to liberation*, Edith Hoshino Altback, Schenkman, Cambridge, Mass. 1971, 197-8 or.).

osatutako taldeen arrazakeriaren aurka. Harlemeko intelektualak eta Malcolm X —iraultzaile handi hori— nazionalistak ziren; biek ala biek jartzen zuten kolorea klasearen aurretik, ezkertiar zuriak oraindik «Beltz eta zuriak, elkarrekin borrokan», edo «Beltzak eta langileak, batasuna behar dugu» bezalakoak abesten ari zirela. Langile-klase beltzak nazionalismo horren birtartez, klasea *birdefinitu* ahal izan zuen: beltzak eta lana, zalantza izpirik gabe, sinonimoak ziren (beste ezein talde ez zen hain lanaren sinonimo, izatekotan, emakumeak), beltzen eskaerak eta haiek sortutako borrokarako moduak ziren *langile-klasearen* eskaera osatuenak eta *langile-klasearen* borroka aurreratuenak. Borroka horrek, intelektualik intelektualenak erakaritzea lortu zuen, langile beltzen esplotazioan oinarri, beltzak —kasta bezala— izateagatik pairatuko zuten jazarpena iragarrita. Nazionalismoaren momentuan harrapatu geratu ziren intelektual horiek, —langile-klaseak jada aurrera egin ondoren— arraza gero eta termino indibidualagoetan tratatu zuten eta Estatu Departamentua norbanako sinbolikoaren arrantzan ari zela, amua irentsi zuen taldea osatu zuten —beltz bat izendatuz presidentetzaren aholkulari berezi, esaterako, auzo txiroen saneamendurako— eta langileak teknokrazia berri, gizarteratuago batetik erauzi zituzten.

Era berean, funtsezkoa kasta dela dioten emakumeek, klasearen birdefinizioan oinarritu eta feminismo iraultzailerako trantsizioa egingo dute, edo botere-egitura zuri maskulinoan integratzea proposatuko dute.

New Orleanseko mugimenduko emakume baten esan zuen bezala «emakume “marxistak” gizon “marxista” moztarotutak besterik ez dira». Borroka ikusteko duten modua ez da emakumeei beti gomendatu die-

ten horrekiko desberdina kualitatiboki, zuzendaritza maskulinodun langileen mugimendu antolatua gomendatutakoa alegia, orain, «borroka orokorraz» gain, badago «emakumeen askapena» edo «emakumeen borroka» izeneko, emakumeek beraiek aldarrikatua.

«Borroka orokorra» diodanean, klase-borrokaz ari naiz. Baina kapitalismoan ez dago kapitalista ez den ezer; hau da, klase-borrokaren parte ez den ezer. Gakoak ondorengoak dira: a) Emakumeak al dira, soldatapeko langileak ez direnean izan ezik, kapitalismoaren laguntzaileak (esan izan den bezala) eta, beraz, laguntzaile kapitalismoaren aurkako borroka oinarrikoago eta orokorrago batean? Eta b) Izan al daiteke «orokorra» hainbeste emakume hain luzaroan baztertu dituen hori?

Mariarosa Dalla Costak klasea feminismoaren mende eta feminismoa klasearen mende dagoela baztertu eta parez pare jarri ditu —gu lotsaraziz— orain arte marxismo deiturikoa eta borroka eta ikerketa bidez artikulatu dugun emakumeen esperientzia. Horren emaitza, gure introspekzio psikologikoa emakumeen esplotazioaren ekonomia politikoari egindako kritika bilakatu izana da, emakumeen borroka iraultzaile eta autonomorako oinarri teorikoa. *Badakigu* degradatu egiten gaituztela, eta hortik abiatuta zergatia aztertu dugu, nik dakidala, orain arte lortu gabeko sakontasunarekin.

Marxen lorpen handienetako bat izan zen erakustea premia biziko ondasunen ekoizpenean gizarte bat beste batetik desberdintzen zuena pertsonen arteko gizarte-harreman espezifikoa zirela, kontzienteki planifikatu gabe sortzen diren harreman horiek, «*norbanakoe* jakin gabe» (Marxen *Menschen* terminoa, orain arte gizonak ordainaz itzuli da). Hau da, klase-gizar-

tean, klase menderatzaileak esplotatuei lana kentzeko erabiltzen dituen pertsonen arteko harreman-moduak desberdinak dira garai historiko bakoitzean, eta gizartean dauden gainerako gizarte-harreman guztiek, familiatik hasi eta beste edozein erakunde barne, harreman-modu hori islatzen dute.

Marxentzat historia esplotatuen borroka prozesua zen, horiek dira etengabe aldaketak eragiten dituztenak —denbora-tarte luzeetan zehar edo bat-bateko jauzi iraultzaileetan— oinarritzko ekoizpen- eta gizarte-harremanetan eta harreman horien adierazpide diren erakunde guztietan. Horrela, familia da oinarritzko unitate biologikoa eta forma desberdina du gizarte batetik bestera, jendearen ekoizpen-moduarekin zuzenki lotua baitago. Bere arabera, familiak —klase-gizartearen aurretik ere— emakumearen menderakuntza zuen euskarri; klase-gizartea bera zen gizonen arteko harremanen hedapena, batetik, eta, emakume eta haurrena, bestetik; hau da, gizonek bere emaztearen eta seme-alaben lanaren gainean zuten menderakuntzaren hedapena.

Mugimendu feminista xehetasun handiagoz aritu da familia kapitalistari buruz. Lehendabizi, deskribatu du zenbateraino dauden emakumeak gizonen mende egotera baldintzatuta erakunde gisa deskribatu du familia, non gazteenak jaiotzetik jazartzen diren, harreman kapitalisten diziplina onar dezaten. Hori, termino marxistetan lan kapitalistaren diziplinarekin hasten da. Beste emakume batzuek familia identifikatu dute kontsumoaren erdigune gisa, eta beste batzuek erakutsi dute etxekoandreak ezkutuko lanaren indar-erreserba direla: emakume «langabeek» etxean egiten dute lan, eta kapitalak beste nonbait behar dituenean etxetik kanpo lan egitera bultzatzen dituzte.

Dalla Costaren artikulua aurretik aipatutako guztia baieztatzen du, baina beste oinarri baten gainean jartzen du: kapitalismoan familia baldintzapen-gunea da, kontsumoarena eta lan-erreserbarena, baina, funtsean, *gizarte-ekoizpenaren* gunea da. Lehenago, marxistek esan zuten familia kapitalistak ez zuela kapitalismoarentzat ekoizten, ez zela *gizarte-ekoizpenaren* parte,<sup>13</sup> eta, hortik, ondorioztatzen zen emakumeen botere sozial potentziala baztertzeko zutela. Edo, hobeto esanda, emakumeek etxean ezin badute botere sozialik izan, ezinezkoa da konturatzea emakumeek etxean ekoitzi egiten dutela. Norberaren ekoizpena ezinbestekoa bada kapitalismoarentzat, ekoizteari uko egitea, lanari uko egitea, botere soziale-rako funtsezko palanka da.

Ekoizpen kapitalistaren inguruko Marxen analisia ez zen munduaren «funtzionamenduari» buruzko hausnarketa bat. Hura eraisteko modua topatzeko tresna bat zen, kapitalak ustiatzen zituen eta, beraz, iraultzaileak ziren *gizarte-indar* horiek topatzeko tresna bat alegia. Hala ere, kapitalaren baitako langile-klasearen *gizarte-harreman* iraultzaileak deskribatu ahal izan zituen, ezinbestean eraitsiko zuten indarren bila ari zelako. Horrela, Mariarosa Dalla Costa gai izan zen erakusteko emakumeek etxetik kanpo la-

---

13 Badirudi Marxek berak ez zuela inoiz inon halakorik esan. Horren zergatia azaltzeak hemen daukadana baino leku gehiago beharko nuke eta Marxen beraren irakurketa zabalago bat orain arte egindako interpretazioen kaltetan. Nahikoa da esatea, lehenik eta behin, Marx dela kontsumo ekoizpenaren fase gisa ikusten duen bakarra: «Ekoizpen-bide horren produkzioa eta erreprodukzioa da, kapitalistarentzat hain ezinbestekoa dena: langilea bera». (*Kapitala*, 1. liburukia, 481. or.). Bigarrenik, bera izan da geure analisia egiteko tresnak eman dizkigun bakarra. Azkenik, Marxek ez du Engelsen zentzugabekeriaren errurik, nahiz eta bere ekarpen zabala lepoan hartu eta boltxebikeetatik hasi eta Castrora, gobernu iraultzaileei autoritate «marxista» eman izan emakumearekiko politika zaharkitu eta, sarritan, atzerakoiei.

nik ez egin arren, behar-beharrezko ekoizleak direla, indar horien artean, *emakumeen* gizarte-boterearen parlankaren bila ari zelako.

Emakumeek ekoizten duten salgaia, beste guztiak ez bezala, kapitalismoarena da soilik: gizakia, «langilea bera».

Kapitalak langileari bere lana kentzeko duen modu berezia soldata bat ordaintzea da, (gutxi gorabehera) bizitzeko eta langile gehiago sortzeko nahikoa dena. Baina langileak bere soldatak salgaietan balio duena baina gehiago ekoitzi behar du. Lanaren ordaindu gabeko soberakina da kapitalistak metatu nahi duena eta gero eta langile gehiagorengan gero eta botere handiagoa ematen diona: lanaren zati bat ordaintzen du gainerakoa doan jasotzearen truke, horrela, lan gehiago eta merkeagoa lortu ahal izateko; *ad infinitum*, geldiarazten dugun arte. Soldata bidez erosten du langileak salgai duen «gauza» bakarra erabiltzeko eskubidea, bere lan egiteko gaitasuna, gizon zein emakume. Kapitalak oinarri duen gizarte-harremman espezifikoak da, hortaz, soldatapeko harremana. Eta soldatapeko harreman hori, soilik da posible lan egiteko gaitasuna salgai bihurtzen bada. Marxek salgai horri *lan-indarra* deitzen dio.

Lan-indarra salgai bitxia da, ez delako gauza bat. Lan egiteko gaitasuna gizakiarena baino ez da eta bere bizitza da ekoizpen-prozesuan kontsumitzen dena. Lehenik eta behin, bederatzi hilabete pasa behar ditu umetokian, elikatu egin behar da, jantzi eta hezi; gero, lanean hasterakoan, ohea egin behar zaio, lurra garbitu, motxila prestatu, sexualitatea asetu ez, baina apaldu bai, janaria prest eduki etxera iristen denerako, baita goizeko zortziak izanda ere, gaueko txandatik bueltan.

Horrela ekoizten da behin eta berriz lan-indarra fabrikatu edo bulegoan egunero kontsumitzen denean.

*Emakumeen oinarrizko produkzio eta birprodukzioa deskribatzea, emakumeen lana deskribatzea da.*

Komunitatea, beraz, ez da aisialdi- eta askatasun-eremua. Fabrikaren laguntzaile da, eta, kasualitatez, zenbait emakume gizonen zerbitzari pertsonal izatera degradatu ditu. Komunitatea antolakuntza kapitalistaren beste erdia da, ezkutuko esplotazio kapitalistaren esparrua, lan-soberakin ezkutuen beste iturria.<sup>14</sup> Fa-

---

14 Lehen esan dut, Dalla Costak heldu diola emakumeak zergatik degradatzen diren galderari «nik dakidala, orain arte lortu gabeko sakontasunarekin». Aurretik, hiru dira egindako saiakera nabarmenenak (lehen aipatutako *From Feminism to Liberation*-en aurki daitezke). Galdera berari erantzuten saiatu zen Margaret Benstonek *Emakumearen askapenerako ekonomia politikoarentzat* [*Emakumearen askapena: Zero urtea*, Granica, Buenos Aires 1972, 33-46 or. T.]. Nire ustez, ez zuen lortu, nire ustez, Marxengan oinarritu ordez, Ernest Mandelengan oinarritu zelako. Benstonek aipatzen dituen Mandelen paragrafoak ere aski dira liberalismo trotskista modernoaren oinarri teorikoak azaltzeko. Hemen emakumeek etxean egiten duten lanari buruz esaten duenera mugatu behar dugu, eta Benstonek hori onartzen du.

«Gizarte kapitalistaren bigarren produktu-multzoa, salgaiak ez direnak, baizik eta erabilera-balio soila dutenak, etxean ekoiztiko gauza guztiak dira. Etxeko ekoizpen mota horretan giza lan handia egiten den arren, oraindik ere erabilera-balioen ekoizpena da, eta ez salgaiena. Zopa bat egin edo botoi bat josten den bakoitzean, hori ekoizpena da, baina ez da merkaturako ekoizpena». (*Introduction to marxist economic theory*-n aipatua, Merritt, New York 1967, 10-11 or. Izenburuak berak ere edukiaren faltasutasa salatzen du: ez dago «teoria ekonomikoa marxistarik» edo «ekonomia-politika marxistarik», ezta, izatekotan, «soziologia marxistarik» ere. Marxek ekonomia-politika ukatu egin zuen teoriarik eta langile-klaseak praktikan. Ekonomiari pertsonen arteko harreman kualitatiboak zatitu, eta gauzen arteko harreman banatu eta kuantifikatu bihurtzen ditu. Kapitalismoan bezala, gure lan-indarra salgai bihurtzen denean, ekoizpenaren faktore bihurtzen gara, objektuak, bai sexualak, bai bestelakoak, eta ekonomialariak, soziologoak eta zientzia kapitalistako gainerako banpiroak, gero, horiek aztertu, planifikatu eta kontrolatzen saiatzen dira).

Juliet Mitchellen (*Emakumeak - Iraultzarik luzeena*) ustetan, halaber, emakumeak «gizakiarentzat funtsezkoak izan arren, beren funtzio ekonomikoa, politiko eta sozialetan baztertuta daude». [*Emakumeak*, Margaret Randallen bilduma eta hitzaurrea, Siglo XXI, Mexiko 1970, 99. or.]. Nire ustez, berriz ere, bere metodoaren akatsa, nire ustez, Marxen

brika gisa dago arautua gero eta gehiago, Mariarosak gizarte-fabrika deiturikoan, garraioaren kostu eta natura, etxebizitza, osasun-arreta, hezkuntza, Polizia, denak dira borroka-gune.<sup>15</sup> Eta gizarte-fabrikak emakumea du etxearen euskarri, salgai modura lan-indarra ekoitziz, eta ekoizteari uzteko borrokan.

Horrela, mugimendu feministaren eskaerek esanahi berri iraultzaileagoa hartu dute. Adibidez, gure gorputzen kontrola nahi dugula diogunean, kapitalaren menderakuntza desafiatzen ari gara, gure

---

interpreteetako batengan, Althusserrengan, inspiratu izana da. Kasu honetan, rol ekonomikoak, politikoak eta sozialak bereiztea berriazko politika da.

Lan-indarra emakumeek etxean ekoiztiko salgaia da. Salgai horrek bihurtzen du *aberastasuna kapital*. Salgai horren salerosketak bihurtzen du merkaturik merkaturik *kapitalista*. Emakumeak ez gara bazterrekoak etxean, fabriketan, ospitalean, bulegoan. Funtsezkoak gara kapitala erreproduzitzeko eta funtsezkoak kapitala suntsitzeko.

Artikulu eder batean, *Emakumearen lana ez da inoiz amaitzen*, Peggy Morton Torontotarrak, dio familia dela «lan-indarraren mantentzean eta erreprodukzioan» datzan unitatea, hau da, ... familia-egitura sistema ekonomikoak duen lan-indar *mota* jakin baten unez uneko premia zehazten du...» (214. or.). Benstonek, Engelsi jarraituz, etxeko lanen industrializazio kapitalista eskatzen du «lan-aukeren benetako berdintasuna lortzeko aurrebaldintza gisa, eta etxeko lanen industrializazioa ez da oso gertagarria, emakumeek lanera joateko etxetik alde egiten ez badute» (207. or.). Hau da, lana lortuko bagenu, Benstonek ustez, kapitalak industrializatuko du erabilera-balioa ekoizten dugun eremua soilik, eta ez kapitala; horrela, gizonak bezain esplotatuak geundeko. Horrelako garaipenekin, porroten beharrik ez.

Bestalde, Morton ez dabil etsaiari ken geniezazkiokeen kontzesioen bila, ez horixe, suntsitzeko moduaren bila ari da. «Gehiegitan ahazten dugu zergatik ari garen emakumeak antolatzen; masa-mugimendu bat sortzearen helburua ez da masa-mugimendu bat sortzea, iraultza baizik». Benstonek dio berak ez duela «emakumeen mugimendurako estrategia batek oin hartzeko zimendurik ematen». Mugimendua aztertzeko arrazoi hori ez egoteak, oro har, «gure artean sekulako liberalismoa sustatzen du...» (212. or.). Hain zuzen ere.

- 15 Uste dutenez, gizarte-fabrikako borroka ez dela borroka politikoa, nabarmendu behar da hor, fabriketan baino gehiago, estatua dela langilearen bizitzaren antolatzaile zuzena, batez ere emakumea bada, eta, horrela, langileak Estatuari zuzenago egiten dio aurre, kapitalista indibidualen esku-hartzerik gabe eta sindikatuen bitartekaritza gabe.

ugalketa-organoak, gure beso eta hankekin batera, lan-soberakinen metatze tresna bihurtu dituelako; gizonekin eta seme-alabekin ditugun harremanak, beraien sorkuntza bera, *metatze horretarako ekoizpen-lan bihurtu ditu.*

Bigarren dokumentua, *Emakumearen lekua*, ja-torritz esku-orri gisa argitaratua, Ameriketako Estatu Batuetatik dator. 1952an idatzia, Gerra Hotz betean, Los Angelesen, non langile gazteen immigrazioa, gizon eta emakumeena, alimalekoa izan baitzen.<sup>16</sup> Nahiz eta artikulua nire izenean egon, ni adierazpide baino ez nintzen izan emakumeek, etxeoandreek eta fabriketako langileek hegoalde eta ekialdetik urre koloreko mendebaldera emigratu ostean, sentitzen eta zekiten gutzia kontatzeko.

Begi bistakoa zen, artean ere, etxetik kanpo lan egiteak ez zituela etxeko lanak erakargarriago egiten eta ez gintuela etxeko lanaren arduratik askatuko, nahiz eta partekatuta izan. Begi bistakoa zen, halaber, bizitza osoa txokolateak paketatzen, transformadoreak muntatzen edo telebistetan konexio elektrikoak egiten pasatzea jasanezina iruditzen zitzaigula. Biak baztertu genituen eta haien kontra borrokatu ginen. Garai hartan, adibidez, oraindik, gizon bat amantalarekin platerak garbitzen ikusten bazuten, lagunek iseka egiten zioten. Guk aldatu genuen hori.

Zalantzarik gabe, aldaketa horien aldeko borroka zuzenean sortu zen hainbeste gorrotatzen genuen lanaren truk ematen ziguten ordainketa-txeke hartatik. Baina, lan egitea gorrotatu arren, gutako gehiengoarentzat lehenengo aukera izan zen esperientzia sozial

---

16 Hego Kalifornian migrazio olatu handia gertatu zen gerran zehar. 1940-1946 bitartean, San Diegoko biztanleria % 61 hazi zen, eta Los Angelesekoa % 29. (Business Week, 1947ko abenduaren 20a, 72. or.).

independente bat izateko etxeko isolamendutik kanpo, eta isolamendu horrekiko alternatiba bakarra zela zirudien. Bigarren Mundu Gerraren garaian, masiboki hasi ginen industriaguneetan lanean eta 1945-1947 urteen artean emakumeak bortizki kanporatu ondoren. 1947tik aurrera, berriz itzuli ginen gure beharra izan zutenean, baita Koreako gerrarekin (1949) ere, eta orduan are gehiago izan ginen. Esku-orrian azaldutako arrazoi guztiengatik dirua nahi genuen eta ez genuen uste alternatibarik zegoenik, lana eskatzeaz gain.

Industria-, nekazaritza- edo meatze-eremueta-ko etorkinak izateak ordainketa-txeke harekiko gure mendekotasuna handitu baino ez zuen egiten, ez genuelako laguntza beste inori eskatzerik. Baina horrek abantaila bat ere ematen zigun: Los Angeleseko abiazio-eta elektronika-industria berrietan emakumeentzako batez besteko lanpostuak betetzeaz gain, elikadura eta jantzigintzan, adibidez, —emakume zuriak bete genituen beltzen gainera; hobekien ordaindutako lanak ez zizkieten haiei ematen—, ekintza-askatasun berri bat lortu genuen. Gurasoengandik libre ginen, «han, ekialdean» edo «behean, hegoaldean» geratu zirelako. Urteak ziren sindikatuak ekialdean sortu zirela borroka luzeen ondoren, mendebaldera ekartzeko urtean 10 zentaboko igoerak negoziatzen zituzten kudeatzaile arruntak baino ez ziren eta muntatze-lerroan aurre egin behar genion diziplina aparatuen parte ziren. Zerga handiak ordaintzen genizkion aparatu hari, gure dirua ikusi aurretik kentzen ziguten. «Politikoki» antolatzekeko gainerako modu tradizionalak ez ziren existitzen edo ez ziren eraginkorrak eta ia denok egiten genien ezikusiarrena. Laburbilduz, iraganarekin guztiz hautsi genuen.

Iraganeko «babes» moduak baztertu edo ezagutu ez zituztenen energiak izan zuen, azkenik, artikulazio masiboa 1960ko hamarkadaren bukaerako mugimendu feministan. Hala ere, 20 urte lehenago, kapitalarekiko gure borroka gordinen (bai zuzena, bai gizonen bidezkoa) bidea egin genuen gero eta ohikoagoa bihurtu den nazioarteko esperientzia horretara. Esperientzia horretatik ikasi genuen etxetik kanpoko bigarren lana, lehenengoari gainjartzen zaion beste nagusi bat dela: emakumearen lehen lana besteen lan-indarra erreproduzitzea dela, eta, bigarrena, bere lana erreproduzitu eta saltzea. Horregatik, bere borroka. familian zein fabriketan, borroka bakarra da, batera antolatzen baita bere lana, senarrarena eta etorkizuneko seme-alabena. Ekoizpen kapitalistaren bi aldeak pertsona bakar batean batzeak, borrokaren ikuspegi berria aurrezartzen du, eta emakumeen pisu eta erabakigarritasunari buruzko balorazio guztiz berria iradoki.

Horiek dira Dalla Costaren artikuluaen gaiak. Italiako emakume batek abiapuntu gisa hartu eta teoria marxista birdefinitzeko erabili du duela 20 urte Ameriketako Estatu Batuetan «erreakzionario», «atzeratu» edo, kasurik onenean, «ez-politikotzat» zituzten emakumeen borrokarekin, etxekoandreen eta fabriketako emakume langileen borrokarekin mahaigaineratu zena. Borrokari norabide berri bat eman dio. Garapen teoriko horrek maila berri batera eraman du emakumeen borroka, nazioarteko borrokara, hain zuzen ere.

Bide luzea egin dugu, maitea.

Ez da kasualitatea Dalla Costaren artikulua Italiatik etorri izana.

Lehenik eta behin, etxekoandreen lekuak aldaezina dirudi oso emakume gutxi baitaude etxetik

kanpo lana dutenak, eta kanpoan lan egiten duten horiek oso botere gutxi dute. Alde horretatik, leku horrek *Emakumearen lekua* liburuko Los Angeleseko emakumearen antza handiagoa du, gaur egungo emakumearena baino. Italian ezinezkoa da mugimendu feminista bat sortzea oinarria etxekoandrea ez bada.

Era berean, gaur egun milioika emakumek etxetik kanpo non-nahi lan egiteak eta han helburu berriak dituen borroka batean konprometitu izanak egoera guztiz aldatzen du eta duela 20 urte, Los Angeleseko emakume batek imajinatu ere egin ezin zituen beste aukera batzuk eskaintzen ditu: etxekoandreak Italian edo beste *edonon* bilatu dezake fabrikako eta bulegoko esplotazio zuzenetik at, etxetik ateratzeko alternatibaren bat. Bakarrik, italiar ghetto katolikoan, harrapatuta dagoela dirudi, baldin eta ez badu berarentzako lanpostuak sor daitezen eskatzen behintzat. Nazioarteko borrokaren parte den heinean, beste emakume batzuk egin duten bezala, uko egin diezaioke azpigarapen kapitalistatik askapenera pasatzeari, askapen hori garapen kapitalistaren bidez egingo bada. Emakumeek soldata bat jasotzean, bai industria-munduan, bai Hirugarren Munduan «etxeko andreak» izateari edo «fabrikako andreak» izateari uko egin eta alternatiba berri bat proposatzen ari dira norberarentzat eta bes-teentzat.

Mariarosak dio: «Kapitala mugimendu batek sortutako kemenaz jabetzen ari da —milioika emakumek bere leku tradizionalari uko egin izanaz— lan-indarra gero eta emakume gehiagorekin berrosatzeko. Mugimendua horren kontra soilik gara liteke... Hori da, azken finean, erreformismoaren eta politika iraultzailearen arteko banalerroa mugimendu feministaren barruan».

Orain arte, isolamenduarekin hausteko eta autonomia handiagoa izateko beharra duen emakumeak bi gauza horiek plan kapitalistaren *barruan* baino ezin zituen aurkitu. Emakumeen borrokaren gaur egungo proposamenak aukera bakarra borroka bera dela dio, eta horren bitartez, kapitalismoaren proiektuaren *suntsipena*. Ingalaterran, borroka horren indar motibatzailea Baliabiderik Gabeko Amak diru-sarrera finkoak lortzeko egiten duen borroka da; Ameriketako Estatu Batuetan, berriz, indar hori Amen Ongizaterako Elkarteak aurkeztutako eskaera da, bizi-rauteko soldata baten alde eta Estatuak antolatutako lanpostuen aurka. Estatuak bi herrialdeetan emandako erantzunak erakusten du zenbateraino iruditzen zaizkion arriskutsuak borrokarako oinarri berri horiek eta zein arriskutsua den emakumeentzat etxetik alde egitea, ez beste lan bat egingo dutelako, baizik eta pikete-lerroarengatik, bilera politiko batengatik edo Gizarte Segurantzaren edo Ongizate Bulegoko leihoak puskatzeagatik.

«Bere horretan borroka den» nazioarteko mugimendu baten bidez, emakumearen soldatetik datorren boterea soldatarik gabeko emakumeen eskura jarri da, horrela, ezagutu eta erabili dezan orain arte ezkutuan izan duen boterea.

Orientazio horrek Italian duen oihartzuna ulertzeko bigarren arrazoa, beste maila batean, herrialde honetan langile-klaseak egindako borrokaren historia guztiz apartekoa dela da. 1920ko hamarkadaren hasierako fabriken esku-hartzea du bizkarrean, kapitalismoaren bertsio faxistak irabazi izana eta horren kontrako erresistentzia klandestino armatua sortu izana. (Espero dut erantsi behar ez izatea gizon eta emakumeen mugimendu batez ari garela, baina

merezi du nabarmentzeak ezin dugula imajinatu zein izango zen emaitza emakumeek ez balute paper handiagoa ez ezik, desberdina ere jokatu, adibidez, fabriken esku-hartzean). Gerraosteko urteetan Italia hegoaldeko langile-lerroekin egin zuten bat. Azpi-garatutako eremu batetik zetozen etorkinak izanda, beraientzat, soldatapeko lanaren diziplina berria zen eta horren aurka altxatu ziren. 1969an, langile-klase horrek egindako borrokaren bidez, ikasle mugimendu masiboa erakarri ahal izan zuten eta parlamentuz kanpoko ezkerria sortu, historia horrek Europan ez du parekorik.

Parlamentuz kanpoko ezker horrek ez ditu emakumeak indar autonomo bezala integratu bere ikuspegi politikoan. Katolizismoak elikatutako harrokeria maskulinoak menderatzen du ezkerria. Baina klasea seinatu dute, edo klasetzat duten hori behintzat, eurozentrikoa eta intelektuala den Europan nagusi den ezker-ideologiaren jargoia alde batera utzi eta aurrera egin dute *ofentsibarako ekintza zuzenak* eginez.

Italiako ezkeriak alde batera utzi duen Europako ideologiaren premisa nagusietako bat da Ameriketako Estatu Batuetako langile-klasea —ez emakumeak soilik— «atzeratua» dagoela. Europako ezkerriaren ustez, beltzen mugimendua istripu historiko exotiko hutsa izan zen, klaseaz haratagoko kontu bat; eta klasearen geruza altuenetako bizitza-maila kapitalaren oparria besterik ez zen izan, ez borroka biolento eta garratza-ren ondorio. Europarra ez zena, zuria izan arren, ez zen guttiz «zibilizatua». Arrazismo hori esklabo-merkataritzatik dator eta estatu inperialen konkistek elikatu dute 1942tik.

Testuinguru horretan, Mariarosa Dalla Costak Emakumearen lekua aukeratu zuen bere saiakerarekin

batera, Italian argitaratua izan zedin, 20 urte lehenago Europako eta Ipar-Amerikako ezkertiar intelektualek hainbatetan mespretxuz tratatutako emakumeek burututako eguneroko borroka iraultzailearen adierazpen gisa. Dalla Costaren ustetan, Ameriketako Estatu Batuetako klase-borroka nazioarteko klasearen adierazpen sendoena izan da; klasea nazioartekotzat dauka: argi dago bai industriaren mundua, bai Hirugarren Mundua bere borrokaren ikuspegiaren parte direla.

Langile-klasea nor den aztertzeko analisi berri baten hastapenak ditugu hemen. Soldatapeko langilea bakarrik dela pentsatu izan den arren, Dalla Costa ez dago ados. Soldatapeko langilearen eta ez-soldatapekoaren arteko gizarte-harremana, —familia—, kapitalaren zutari den gizarte-harremanaren oinarritzko zatia da, hau da: soldatapeko harremana. Biak dira kapitalaren egituraren parte, beraz, *bataren ala bestearen aurkako borroka elkarren mende daude*.

Esplotazio-egitura eta egitura horren barruko antagonismo-egoeran oinarritutako klase-azterketa batek, emakumeen eguneroko borroka garatu ahala baliozta dezake bere kausa eta ondorioen arabera eta ez beste batzuen ustetan gure «kontzientzia politikoak» izan behar duenagatik.

Ingalaterran eta Ameriketako Estatu Batuetan (eta seguru aski mendebaldeko beste herrialde batzuetan) mugimendu feministak gaitzetsi egin behar izan du ezker zuriak uko egin izana metropoliko fabrika-koa ez zen beste edozein eremutako borroka kontuan hartzeari.

Italiako mugimendu feministak, ezkerrarekin eta ikasle mugimenduarekiko bere izate autonomoa ebatzen duen bitartean, parez pare egin du haiekin tal-

ka,<sup>17</sup> itxuraz, euren kontrolpean zegoen eremua dela eta: nola antolatu borroka komunitate mailan. Dirudienez, komunitate-borroka egiteko proposatu dutena fabrikako borrokaren hedapena baino ez da, proiektzio mekaniko bat: gizonezko langilea da oraindik protagonista. Mariarosa Dalla Costaren arabera, komunitatea, beste ezer baino lehen eta oroz gain, etxea da, eta, beraz, *komunitatearen iraultzaren figura nagusia* emakumea dela dio. Horrela ikusita, emakumeak kontraesana dira aurreko marko politiko guztietan, industriako gizonezko langileengan oinarritu baitira.<sup>18</sup> Behin komunitatea ekoizpen-erdigune bada, eta beraz, iraultzaren erdigune, *antolaketa iraultzailearen eta borroka orokorraren ikuspegia zabaltzen da berriz*.<sup>19</sup>

---

17 Talka handia gertatzen ari da. Idazten ari naizen bitartean, Italiako mugimendu feministak erantzun egiten die hilabete honetan Erroman borroka fisiko baten ondorioz hasi ziren ezkerreko gizon batzuen erasoei. Mugimendu feministaren atal bat, *Lotta Femminista*, unibertsitatean emakumeen lanpostuei buruzko mintegi bat egiten ari zen eta, jakina, gizonak kanpoan utzi zituen. Gizonek «arrazistak» eta «faxistak» ginela esan eta mintegia eten zuten. Haien kolpeei kolpeka erantzun genien eta ez ziguten irabazi. Are gehiago, euren biolentziaren aurkako erantzun biolentoak gehiago elkartu gintuen.

18 Langabezian egon arren. *Claimants Unionen* duela gutxi egindako hitzaldi batean, ezkerreko talde bateko kideei jarraibide hauek eman eta taldearen barne-dokumentuetako batean zabaldu ziren: «*Claimants Unionen* inguruko (gure) lanak C.U. urrundu behar du baliabiderik gabeko ama, gaixo, zahar eta abarregandik, eta langabetuei zuzendu».

C.U.-ko emakume batzuek dokumentua aurkitu eta konferentziaren mesedetan erreproduzitu zutenean, zalaparta sortu zen.

Botere gutxiago duten klase bereko sektoreekiko mesprezu horrek ondorio izugarriak ditu.

Gizon langilea baldin bada esparru politiko bateko subjektu bakarra, behin emakumeek borrokan duten eginkizun nagusia baieztatuta, esparru politiko tradizional hori suntsitu egin behar da.

19 Hori premiazkoa eta praktikoa da, ez *Claimants Unionentzat* bakarrik (ikus 10. oharra). Irlandako mugimenduaren adar armatua nahikoa maskulinoa izan da emakume eta hurrekin izan duen harremanari dagokionez, eta pozik geratu da borrokan izan zezaketen parte hartzea geldiaraziz. Jasotako uzta garratza bada, emakumeei egotziko diete errua.

Italiako langile-klasearen borroka herentzian jasota, klase- eta kasta-mugimendu batetik sortu litezkeen ekintza eta antolakuntza-motak, azkenean ere emakumeenak, gure borrokaren aukerak zabaltzera bideratuta daude Eliza katolikoaren erdigune den herrialdean eta gure nazioarteko mugimendua existitzen den beste edozein herrialdean.

Boterea ahizpei eta, beraz, klaseari.

Selma James

Padua, 1972ko uztailak 27

# BI

## EMAKUMEAK ETA KOMUNITATEAREN IRAULTZA

Ohar hauek «emakumearen auzia» definitzeko eta aztertzeko saiakera dira eta lanaren zatiketa kapitalistak sortutako «emakumearen rol» orokorrean kokatzekoa.

Ondorengo orrialdeetan azpimarratu nahi dugu, lehenik eta behin, «etxeoandrea» dela emakumearen rol horren figura nagusia. Gure ustetan, emakume guztiak dira etxeoandre, etxetik kanpo lan egiten duten horiek barne. Hau da, mundu mailan, etxeo lanaren ezaugarri espezifikokoak dira, hain zuzen —ez ordu kopurua eta lanaren izaera bakarrik, baizik eta bizi-kalitatea eta sortzen dituen harremanen kalitatea neurtuta— emakumeen lekua zehazten dutenak, dagoen tokian dagoela eta edozein klasekoa dela ere. Langile-klaseko emakumeek duten lekuan jarriko dugu arreta, hala ere, horrek ez du esan nahi esplotatu bakarrak direnik. Areago, baieztatu nahi dugu emakume langilearen etxeoandre rola erabakigarria dela gainerako emakume guztientzat, gure ustez, ezinbestekoa baita ekoizpen kapitalistarako. Emakumeak kasta be-

zala aztertuko duenak, langile-klaseko etxeoandreen rola oinarritzat hartuta abiatu behar du.

Etxekoandreak erdigunean jartzeko, ezinbestekoa izan da, lehenik eta behin, kapitalismoak gaur egungo familia eta bere baitako etxeoandreaken rola nola sortu duen laburki aztertzea, aurreko komunitate edo familia-talde motak suntsituz. Prozesu hori ez da amaitu, inondik inora ere. Mendebaldeko munduari erreferentzia egiten ari garenez eta bereziki, Italiari, argi utzi nahi dugu ekoizpen kapitalistak Hirugarren Mundua mendean hartzen duen neurrian, suntsipen prozesu bera gauzatzen duela eta gauzatuko duela. Mendebaldeko herrialde teknologikoki aurreratuenetan gaur gaurkoz ezagutzen dugun familia motak, ez du kapitalismoaren prozesuan familiak har lezakeen behin betiko forma izan beharrik. Baina joera berri horiek aztertzeko, aurretik aztertu beharra dago nola sortu duen kapitalismoak bai familia hori, bai emakumearen rola, prozesu beraren bi une baitira.

Emakumearen rolari buruzko behaketa osatzeko asmoa dugu etxetik kanpo lan egiten duen emakumearen lekua aztertuz, baina hori aurrerago egingo dugu. Hemen, besterik gabe, itxuraz desberdinak diren bi bizipenen arteko lotura azaldu nahi dugu: etxeoandreakena eta emakume langilearena.

Bigarren Mundu Gerratik, emakumeen borroka endemikoek zuzenean egin dute etxeo eta fabrikako antolakuntzaren kontra. Emakumeekiko «mesfidantza», azkar zabaldu da, eta horretaz kexu dira nagusiak. Langile gazte guztiek dute absentismorako eta ordutegiekiko errespetu txikiagoa izateko joera, baita lana maizago aldatzekoa ere. Baina bikote-bizitzaren une erabakigarrietan, gizona da soldatadun bakarra. Orokorrean, emakumeek, lehenasuna eman

behar diote etxean lan egiteari eta ez daude lan egitera behartuta, ondorioz, atxikimendu falta handiagoa dute lan-diziplinarekiko. Horregatik, ezinbestean, emakumeek ekoizpen-fluxua eragotzi eta gastu handiagoak eragiten dituzte. (Hori da soldata-arrakalaren alde erabiltzen den aitzakia, nahiz eta kapitalaren galerak sobera gainditu). Etxekoandre-taldeek seme-alabak senarrekin lantokian uzten dituztenean, atxikimendu falta horrekin egingo dugu topo;<sup>20</sup> hori da, eta izango da, gero eta gehiago, krisi mota erabakigarrietako bat gizarte-fabrikari eta fabrika-sistemetan.

Azken urteetan, bereziki herrialde kapitalista aurreratuetan, irismen eta joera desberdineko hainbat emakume-mugimendu sortu dira, hala nola, gizartearen oinarritzko gatazka emakume eta gizonen artekoa dela uste dutenak edota arreta emakumearen lekuan jartzen dutenak, klase-esplotazioaren berariazko adierazpen gisa.

Bai, lehen begiratuan, lehenengoan joera eta jarrerak harrigarri samarrak dira, bereziki aurretik militantzia politikoan ibilitako emakumeentzat. Azpimarratu nahi genuke kontraesan sozial oinarritakoena sexu-esplotazioa dela dioten emakume horiek, milioika emakumek mugimenduaren barruan zein kanpoan sentitzen duten frustrazio-mailaren erakusgarri nabarmena direla. Badago lesbiana izatea horrela definitzen duenik (Ameriketako Estatu Batuetako mugimenduaren sektore batek esandakoei egiten diegu erreferentzia zehazki): «Elkarrekin ibiltzen hasi ginen batzartzen hasi ginelako, eta ezin genituelako gehiago jasan gizonekin genituen harremanak. Ezin genuen

---

20 Hori Ameriketako Estatu Batuetan gertatu zen emakumeen manifestazio jendetsu baten baitan, Emakumearen Nazioarteko Egunean 1970eko abuztuan.

ekidin harreman horiek azpiratzen gintuzten botere-harreman bihurtzea. Gure arreta eta energia alferrik galtzen ziren, gure boterea apaldu eta helburuak mugatu». Harreman horiei uko egin ondoren garatu da emakume homosexualen mugimendua, sexu-bote-rearen borrokaz haratago, gizarte-batasun biologikoaz haratago, harremanak sortzeko aukera dagoela defenditzen duena. Gainera, berresten du sozialki eta, beraz, sexualki izan gintezkeen hori zabalagoa dela, eta denok dugula geure burua aukera horiei irekitzeko beharra.

Orain, hamaika modutan adierazitako emakumeen frustrazioak ulertzeko, argi izan behar dugu zer dagoen familia kapitalistaren egituraren barruan eta nola izan den horrelako krisia sortzeko gai. Izan ere, emakumeen zapalkuntza ez zen kapitalismoarekin hasi, kapitalismoarekin batera hasi zena, emakumeak emakume gisa era bortitzagoan esplotatzea izan zen, eta hala sortu zen gure askapenerako aukera ere, azkenean.

### **Familia kapitalistaren jatorria**

Gizarte aurrekapitalista patriarkalean, etxea eta familia ziren nekazaritza eta artisautza ekoizpenaren erdigune. Kapitalismoaren txertatzearekin, ekoizpenaren sozializazioa fabrika erdigune zuela antolatzen. Ekoizpen zentro berrietan lan egiten zuten langileek soldata jasotzen zuten. Baztertuak zirenek, ez. Emakumeek, haurrek eta zaharrek galdu egin zuten familiarentzat beharrezkoa zen lanetik zetorren botere erlatibo hori, soziala eta beharrezkoa omen zen hori. Kapitalak familia, komunitatea eta ekoizpena bere osotasunean suntsitu eta, batetik, oinarrizko gizarte-ekoizpena fabrikari eta bulegoan kontzentratu zituen,

eta, bestetik, gizona familiatik bereizi eta soldatapeko langile bihurtu zuen. Gizonen lepora bota zuen gaixo, zahar, haur eta emakumeen ardura ekonomikoaren pisua: hitz batean, soldatarik ez zuten guztiena. Orduz geroztik, ugaltzen ez zirenak eta soldata baten truke lan egiten zuten horiek zaintzen ez zituztenak etxetik kanporatuak izan ziren. Etxetik kanporatzen lehenengoak, gizonen ondoren, haurrak izan ziren: eskolara bidali zituzten. Familiak ekoizpenaren erdigune izateari utzi zion, baina baita hezkuntzaren erdigune izateari ere.<sup>21</sup>

Gizonak familia patriarkalaren buru despota ziren, lanaren banaketa zorrotzean oinarrituta, eta, ondorioz, herentzian jaso ditugun, emakumeen, haurren eta gizonen bizipenak, bizipen kontraesankorrak dira. Baina, gizarte aurrekapitalista batean, jopu-komunitateko kide bakoitzaren lanak helburu zuzena zuen: jaun feudalaren oparotasuna edo gure biziraupena. Horrela, jopu-komunitate osoa behartuta zegoen aske ez ziren guztiekin bat egin eta elkarlanean aritzera. Batasun horrek maila berean jartzen zituen emakumeak, haurrak eta gizonak, eta kapitalismoak hori hautsi behar izan zuen.<sup>22</sup> Zentzu horretan, *norbanako ez librea*,

---

21 Horrek «hezkuntzari» esanahi berri bat aitortzea dakar, eta orain derrigorrezko hezkuntzaren —derrigorrezko ikaskuntzaren— historiari buruz egiten ari diren lana bat dator. Ingalaterran, irakasleak «polizia moralizat» zeuzkaten, eta horrek honako hau esan nahi zuen: 1) haurrak «krimenaren» aurka baldintzatzea —komunitateko langile-klasearen birjabetzea geldiaraztea—; 2) «jendaila» suntsitzea, oraindik ere ekoizpen-unitatea edo, gutxienez, antolakuntza-unitate bideragarria zen familia batean oinarritutako langile-klasearen antolakuntza; 3) puntualtasunaren bertaratze erregular eta jarraia haurren etorkizuneko lanpostuetarako behar-beharrezkoa den zerbait bihurtzea, eta 4) klasea sailkapenaren eta hautaketaren bidez estratifikatzea. Familiarekin bezala, kontrol sozial mota berri horren trantsizioa ez zen erraza eta zuzena izan, klasearen eta kapitalaren indar kontraesankorren emaitza baizik, kapitalismoaren historiaren edozein fasetan bezalaxe.

22 Soldatapeko lana harremanak soldata-erlazioaren mende jartzean

askatasun ezaren demokrazia,<sup>23</sup> krisian sartu zen. Esklabotzatik lan-indar libreira igarotzeak gizon langilea emakume langilearengandik banandu zuen, eta biak seme-alabengandik. Patriarka ez-askea soldatapeko «aske» bihurtu zen, eta sexuen eta belaunaldien bizipen kontraesankorren arteko arrotasuna areagotu egin zen, baina, ondorioz, baita harreman iraultzaileagoak sortu ere.

Nabarmendu behar dugu haurren eta helduen arteko banaketa hori funtsezkoa dela emakumeen eta gizonen arteko banaketaren esanahia guztiz ulertzeko, konturatzeko emakumeen mugimenduaren borroka-antolaketa, gizonekin harremanak izateko edozein aukera indarkeriaz gaitzesten bada ere, soldatapeko lanaren «askatasunean» oinarritutako banaketa gainditzera bideratuta egon daitekeela soilik.

#### *Klase-borroka hezkuntzan*

Azken urteotan sortu den eskolaren ikerketak —batez ere, ikasle-mugimenduaren agerpenarekin— argi eta garbi identifikatu du eskola diziplina ideologikoko eta lan-indarraren eta euren ugazaben prestakuntzarako zentro gisa. *Agian xehetasunez ikertu ez dena aurretik gertatzen dena da; hau da, haurren amorrua, haur-hezkuntzako lehenengo egunean ikasgela batean sartu eta gurasoek bat-batean alde egiten dutela ikustean. Une hori da eskolaren historiaren hasiera.*<sup>24</sup>

---

oinarritzen da. Langileak «norbanako» gisa jardun behar du kapitalarekin, senitartekoen babesik gabe.

23 Karl Marx, *Hegelen Estatuaren filosofiaren kritika*.

24 Orain ez gara ari familia nuklearraren hertsikeriaz, haurrek beste pertsona batzuekiko harremanak eraikitzeke trantsizioa erraza izatea eragozten duenaz; ezta hortik ondorioztatzen denaz ere: psikologoek argudiatzen duten bezala, baldintzapen egoki batek krisi hori ekidin dezakeela. Gizartearen erabateko antolaketaz ari gara, non familia, eskola eta fabrika, ghetto bat bezalako konpartimentu bat den bakoitza. Hain da

Horrela ikusita, lehen hezkuntzako haurrak ez dira «doako garraioa, doako gosariak eta doako liburuak» eskatzeagatik —helduengandik ikasita— bigarren hezkuntzako ikasleen luzakinak.<sup>25</sup> Lehen hezkuntzako haurren artean, langileen seme-alabek, badute eskolarekiko kontzientzia jakin bat. Kontzientzia horren arabera, eskolak gurasoen eta *beraiek bezalakoak direnen* aurka jarriko ditu; ondorioz, ikasteko eta «heziak izateko» erresistentzia instintiboa dute. Erresistentzia hori da Ingalaterran haur beltzak adimen urriko hezkuntza eskoletan konfinatu izanaren arrazoia.<sup>26</sup> Langile-klaseko haur europarren ustetan, langile-klaseko ume beltzentzat bezala, irakasleak gurasoen aurkako zerbait irakatsiko dio, irakaspen hori ez da haurraren defentsarako baliabide bat izango, bere klasearen aurkako eraso bat baizik. Kapitalismoa da lehen ekoizpen-sistema, non esplotatuen haurrak klase buruzagiaren antolakuntza eta kontrolpean dauden erakundeetan diziplinatu eta hezten diren.<sup>27</sup>

---

horrela, ezen konpartimentu batetik bestera igarotzea mingarria baita. Min hori ezin da ezabatu ghetto baten eta bestearen arteko harremanak konponduz, baizik eta horietako bakoitza suntsituz.

- 25 «Doako garraioa, doako gosariak, doako liburuak» izan zen gaurko Italiako ikasle mugimenduaren atal baten leloetako bat. Ikasle gazteenen borroka langileekin eta unibertsitateko ikasleekin lotu nahi izan zuten.
- 26 Ingalaterran eta Ameriketako Estatu Batuetan, Eysenck eta Jensen psikologoek, «zientifikoki» beltzek zuriek baino «adimen» urriagoa dutela diotenek, eta Ivan Ilitx bezalako hezitzaile aurrerakoiek iritzi guztiz kontrajarriak balituzte bezala agertzen dira. Helburuak batzen ditu, metodoa da banatzen dituen. Edonola ere, psikologoak ez dira gainerakoak baino arrazistagoak, zuzenagoak baizik. «Adimena» aurkariaren argudioa zuzena dela onartzeko eta horretan oinarrituta norberaren logika eratzeko gaitasuna da. Arraza-nagusitasun zuriaren hipotesitik abiatuta gizarte osoa instituzionalki lanean ari den tokian, psikologo horiek «baldintzapen» oso eta erabatekoa proposatzen dute, irakurtzen ikasten ez duten haurrek, molotov koktelak egiten ikas ez dezaten. Ivan Ilitxek, haurren «eskola errendimendu baxuak» arduratuta, («inteligentziaren» ukatzearekin, alegia), bat egingo luke ikuspuntu zentzudun horrekin.
- 27 Gaur egun, kapitalak eskolak zuzentzen dituen arren, kontrola ez du

Haur-hezkuntzan hasten den doktrinamendua, familiaren banaketan oinarritzen da, eta horren behin betiko froga da unibertsitatera iristen diren langile-klaseko haurrek (iristen diren bakanek) burua hain dutela janda, ez direla gai beraien komunitateko kideekin hitz egiteko. Langile-klaseko haurrak dira, beraz, instintiboki eskolen eta bertako hezkuntzaren aurka matxinatzen diren lehenak. Gurasoek eskoletan uzten dituzte, beren seme-alabek «hezkuntza» jaso dezaten arduratuta; hau da, haurrek, gurasoak preso dituzten

---

unean bertan behin betiko bermatzen. Langile-klaseak etengabe eta gero eta gehiago egiten dio aurre eskolatze kapitalistaren edukari eta ez ditu bere kostuak onartzen. Sistema kapitalistaren erantzuna kontrola berrezartzean datza eta, hori, fabrikako terminoetan arautzeko joera gero eta handiagoa da.

Hala ere, gu zanpatzeko darabilten hezkuntza-politika berria —hau idazten ari garen bitartean ere— hori guztia baino konplexuagoa da. Hemen, politika berri horren bultzada baino ezin dugu aipatu:

- a) Langile klaseko gazteek ez dute onartzen hezkuntzak lantegi baterako bakarrik prestatzea, lepozuriak eramateko eta idazmakinak eta marrazketa-taulak erabiltzeko bada ere, errematatzeko makinak erabili beharrean.
- b) Erdi-mailako klaseko gazteek errefusatu egiten dute klaseen arteko bitartekari-lana eta bitartekaritza-zeregin horrek eskatzen duen rol erreprimitua.
- c) Lan-indar berria, soldata altuagoak eta estatusen bereizketa eskatzen dira. Egungo berdintasunerako joera leheneratu egin behar da.
- d) Lan-prozesu berri bat sortu behar da, zeinetan langileari «partehartzea» interesatuko zaion, egungo mihiztatze-lerroaren monotonía eta zatiketa bazter ez ditzan.

Gazteek uko egiten badiote «arrakastarako bide» tradizionala onartzeari, eta baita «arrakastari» ere, helburu berriak aurkitu beharko dituzte, hau da, eskolara eta lanera joanaraziko dituzten helburuak. Egunero sortzen dira hezkuntza «libreko» «esperimentu» berriak, haurrak beren hezkuntzaren plangintzan parte hartzera animatzen dituztenak, eta gaur egun, demokrazia handiagoa dago irakasleen eta ikasleen artean. Hori kapitalaren porrota dela sinestea, erregimentazioa garaipena izango dela sinestea bezain kimerazkoa da. Modu sortzaileagoan manipulatuak lan-indarra sortzean, kapitalek ez dute prozesuan etekinaren % 0,1 ere galduko. «Izan ere», diote, «askoz eraginkorragoa izango zara guretzat zeure bidea hartzen baduzu, betiere gure lurraldetik igarotzen bazara». Fabrikako leku batzuetan eta fabrika sozialean, kapitalaren eslogana gero eta horrelakoagoa da: «Askatasuna eta anaitasuna berdintasuna bermatzeko eta zabaltzeko».

muntaketa-lerroetatik edo sukaldeetatik ihes egiteko prestakuntza jaso dezaten. Langile-klaseko haur batak dohain bereziak baditu, familia osoaren arreta bilduko du berehala, baldintzarik onenak jasoko ditu, maiz besteak sakrifikatuz, guztiak langile-klasetik aterako dituelakoan. Horrela ustiatzen du kapitalak esperantza, lan-indar berriak gurasoen bidez diziplinatuz. Italian, gurasoek gero eta arrakasta gutxiago dute seme-alabak eskolara bidaltzerako orduan. Haurrek eskolarekiko duten erresistentzia gero eta handiago da, nahiz eta oraindik ez dagoen antolatuta.

Haurrek eskoletan hezteko duten erresistentzia handitzen ari den bitartean, kapitalaren *adinaren definizioa onartzeari ere uko egiten diote*. Haurrek ikusten duten guztia nahi dute; ez dute ulertzen gauzak edukitzeko ordaindu egin behar dela eta horretarako soldata bat behar dela eta, beraz, heldua izan behar dela. Ez da arraroa haurrei azaldu behar izatea ezin dutela eduki telebistak ezinbestekoa dela dioen hori. Baina zerbait gertatzen ari da haur eta gazteen belaualdi berriarekin gero eta zailagoa baita azaltzea noiz hasten den helduaroa. Gertatzen dena da beraiek direla une arbitrario hori behin eta berriz proposatzen dutenak: 1960ko hamarkadan, Ameriketako Estatu Batuetako hegoaldean, sei urteko haurrak poliziaren txakurren aurka matxinatu ziren. Fenomeno bera dugu gaur egun Italian eta Ipar Irlandan, non haurrak helduak bezain aktiboak diren matxinadetan. Haurrak (eta emakumeak) historiaren parte izan direla onartzerakoan, zalantzarik gabe, borroka iraultzaileetan adin txikikoek (eta emakumeek) izandako parte-hartzearen beste adibide batzuk agertuko dira. Parte hartzeko autonomia, ordea, berria da, nahiz eta zuzeneko ekoizpenetik kanpo egon. Fabriketan, gazteek langi-

le helduen buruzagitza bazterten dute, eta hirietako matxinadetan gailendu egiten dira. Metropolietan, familia nuklearretatik ateratako belaunaldiek gazteen eta ikasleen mugimenduak eragin dituzte, eta ezarritako boterea astintzeko prozesuari ekin diote; Hirugarren Munduan, gazte langabeak kalera ateratzen dira maiz, langile-klasea sindikatuetan antolatu aurretik.

Merezi du Londreseko *The Times*ek (1971ko ekainaren 1ean) irakasle bilera bati buruz esan zue-na aipatzea, haietako bati ikasle bat jotzeagatik kargu hartu ziotenean: «Pertsona asaldatzaile eta arduragabeek bazter guztietatik mehatxatzen gaituzte, itxuraz, autoritate-indar guztiak higitzeko asmoarekin». Hori «gure zibilizazioaren oinarri diren balioak suntsitzeko konspirazioa da, gure eskolak gotorlekurik onenetako bat baitira».

### **Soldatarik gabekoen esplotazioa**

Haur eta gazteengan, batez ere beltzengan, etengabe zabaltzen ari den iraultzarako jarrera laburki azaldu nahi izan dugu, gure ustez, lotura estua duelako mugimendu feministaren eztandaekin eta mugimenduak aintzakotzat hartu behar duelako. Ari gara baztertuak izan direnen matxinadaz, ekoizpen sistematik kanporatu dituztenez, eta euren izate sozialaren bidea oztopatzen duten indarrak suntsitzeko beharra ekintzekin adierazten dutenez, baina oraingoan norbanako bezala ari dira elkartzten.

Emakumeak, haurrak eta zaharrak baztertu egin dituzte. Bazterketa horren bidez, batzuek egindako esplotazioaren aurkako iraultza, besteen iraultzaren indizea da.

Kapitalak gizona errekrutatatu duen heinean eta soldatapeko langile bihurtu, bera eta gainerako soldata

gabeko langileen arteko arrakala sortu du, eta azken horiek ekoizpen sozialean zuzeneko parte-hartzerik ez dutenez, iraultza sozialerako subjektu ez-gai kontsideratzen dira.

Marxen garaitik, agerikoa da kapitala soldataren bidez garatu eta gailentzen dela, hau da, gizarte kapitalistaren oinarria dela soldatapeko langilea —gizon ala emakume— eta bere esplotazio zuzena. Hala ere, agerikoa ez dena, langile klasearen mugimenduko antolakuntzek ondorioztatu ez dutena, alegia, zera da: soldatapekoa ez den langilearen esplotazioa soldataren bidez antolatu dela. Are eraginkorragoa da soldata ezak esplotazio hori ezkutatu duelako. Hau da, soldatak fabrikaren hitzarmenean agertzen dena baino lan kantitate handiagoa kontrolatzen du. Emakumeen lanak kapitaletik at egiten duten mesede pertsonala dirudi. Emakumeek gizonen txobinismoa soilik pairatzen dutela dirudi eta tratu txarrak jasotzen dituztela kapitalismoak «injustizia» orokorra eta «jarrera txar eta bidegabeak» sortzen dituelako; horretaz ohartu ziren (gizon) gutxi horiek, sinetsarazi ziguten hori «zapalkuntza» zela, ez esplotazioa. Baina «zapalkuntzak» gizarte kapitalistaren alde ezkutu sakonago bat du. Kapitalak haurrak baztertu eta eskolara bidali zituen, ez doktrinatzeko edo gainerakoen lan «produktiboago» hori oztopatzen zutelako soilik. Kapitalaren menderakuntzak, soldataren bidez, fisikoki gai den pertsona oro behartzen du lanaren banaketapean funtzionatzera, eta funtzionatzera, berehalakoan ez bada ere, kapitalaren menderakuntza zabaltzeko onuragarria den moduan. Hori da, funtsean, eskola. Haurren lana ikastea omen da, beraien hobe beharrez.

Haur langileak hezkuntza bera jaso dute eskolan: hori berdintze-kapitalista da, ikasketa-prozesuak

izan lezakeen aniztasunaren kontra. Emakumea, bestalde, etxean bakartu dute, ikasketarik behar omen ez duten lan horiek egin ditzan: erditu, hezi, diziplinatu eta ekoizpenerako langilea zerbitzatu. Bere rola gizarte-ekoizpenaren zikloan ikusezina izan da, bere lanak ekoiztatikoa soilik delako begi-bistakoa, *langilea* bera. Horrela, lanaren baldintza aurrekapitalistetan geratu da harrapatuta eta ez diote inoiz soldatarik ordaindu.

«Lanaren baldintza aurrekapitalistak» diogunean, ez gabilta garbiketetarako erratza erabiltzen duten emakumeez bakarrik. Ipar Amerikan hobekien hornitutako sukaldeek ere ez dute gaur egungo teknologiaren garapen maila islatzen; gehienez ere, XIX. mendeko teknologia islatzen dute. Ez baduzu orduka kobratzen, muga batzuen barruan, ez dio inori axola zenbat denbora behar duzun lana bukatzeko.

Desberdintasun *kuantitatiboa* ez ezik, *kualitatiboa* ere bada beste edozein lanen aldean, hain zuzen ere, lan horrek ekoizten duen salgai motagatik. Oro har, sistema kapitalistaren barruan, lanaren produktibitatea ez da handitzen kapitalaren eta klasearen arteko talkarik egon ezean: berrikuntza teknologikoak eta lankidetzak, aldi berean, langileentzako eraso-uneak eta erantzun kapitalistaren uneak dira. Baina hori, oro har, salgaien ekoizpenean hala bada ere, ez da hala izan salgai mota berezi honen ekoizpenean: lan-indarra. Berrikuntza teknologikoak beharrezko lan-muga murriztu badezake, eta industrian langile-klasearen borrokak berrikuntza erabil badezake ordu libreak irabazteko, ezin da gauza bera esan etxeko lanari buruz; izan ere, emakumeak ugaltu eta *isolamenduan* dauden haurrak hazi eta haietaz arduratu behar duen heinean, etxeko lanen mekanizazio mailak ez dio denbora libre gehiago uzten. Emakumea beti ari da lanean, ez

dagoelako haurrak egin eta haietaz arduratzen den makinarik.<sup>28</sup> Mekanizatu daitekeen etxeko lanaren produktibitate handiena zerbitzu espezifikoeekin soilik lotu daiteke, adibidez, garbiketarekin eta txukunketa-rekin. Emakumearen lanaldiak ez du amaierarik, ez makinarik ez duelako, isolatuta dagoelako baizik.<sup>29</sup>

### *Emakumeen ezintasunaren mitoa berrestea*

Ekoizpen-modu kapitalistaren etorrerak, emakumea isolatu eta baztertu zuen, familiaren zelulan giltzapetu zuen eta erabat gizonaren mendeko bihurtu. Soldatapeko esklabo librearen autonomia berria ukatu zitzaion eta mendekotasun pertsonalaren etapa aurrekapitalista batean jarraitu zuen, oraingoan, bortitzagoa eta gaur egun gailentzen den ekoizpen erabat sozializatu eta eskala handikoarekin kontrajarria. Emakumeak gauza jakin batzuk egiteko, gauza jakin batzuk ulertzeko duen itxurazko ezintasuna, politika da, bere historia ESN (Educationally Sub-Normal) eskola berezietako haur «atzeratuen» oso antzekoa zenbait alderditan. Emakumeak ekoizpen sozializatu zuzenetik bereizi eta etxean

---

28 Laborategian haurrak egiteko gaur egun egiten diren saiakerak ez ditugu alde batera utzi. Baina mekanismo horiek zientziari eta kontrol kapitalistari dagozkio erabat. Gure eta klasearen kontra erabiliko lirateke erabat. Ez zaigu interesatzen ugalketa abdikatzeari etsaiaren eskuetan jartzeko. Ugaltzeko askatasuna konkistatu nahi dugu, eta ez dugu ez soldataren prezioa, ez gizarte-bazterkeria ordainduko horretarako.

29 Berrikuntza teknologiko bakar batek ere haurrik hezi duen heinean, «giza zaintza» soilik, *etxeko lanetan emandako denboraren* askapen eraginkorra, *etxeko lanaren aldaketa kualitatiboa*, emakumeen mugimenduak bakarrik ekar dezake, emakumeen borrokak alegia: mugimendua zenbat eta gehiago hazi, orduan eta gutxiago pentsa ahal izango dute gizonak -eta lehenik eta behin militante politikoek- emakumeek zainduko dituztela haurrak. Aldi berean, mugimenduak sortzen duen giro sozial berriak espazio bat eskaintzen die haurrei, gizon eta emakumeekin batera, Estatuak antolatutako haurtzaindegiekin zerikusirik ez duena. Horiek jada borrokaren garaipenak dira. Mugimendua bera, *izatez*, borroka bat da eta, horiek izanik borrokaren *emaitzak*, ez dute borroka edozein motatako lankidetzarekin *ordezkatu* nahi.

isolatu zituzten heinean, auzoteriatik kanpoko bizitza sozialerako aukera oro ukatu zieten, eta horregatik ukatu zieten ezagutza soziala eta hezkuntza soziala. Emakumeei industria- eta masa-borrokak kolektiboki antolatzeko eta planifikatzeko esperientzia zabala ukatu zietenean, beste oinarritzko hezkuntza-iturri bat ukatu zieten: gizarte-matxinadaren esperientzia. Eta esperientzia hori, funtsean, bakoitzaren berezko gaitasunak ikastean datza, hau da, norbere boterea, eta norbere klasearen gaitasunak, botereak. Beraz, emakumeak jasan duen isolamenduak emakumeen ezintasunaren mitoa berretsi die gizarteari eta beren buruei.

Mito horrek ezkutatu du, lehenik eta behin, langile-klasea komunitatean masa-borrokak antolatzeko gai izan bada (oro har, alokairuak ordaintzeari uko egitea eta inflazioaren aurkako borrokak), emakumeen etengabeko komunitatearen antolakuntza informalarik esker izan dela; oinarria emakumeek komunitatearen duten etengabeko antolaketa informala izan da beti; bigarrenik, zuzeneko ekoizpenaren zikloko borroketan, emakumeen laguntza eta antolaketa, formala eta informala, erabakigarriak izan direla. Emakumeen etengabeko lan-sare hori une kritikoetan azaleratzen da, eta «emakume ezgaiaren» talentuen, energiaren eta balioaren bidez garatzen da. Baina mitoak zutik dirau. Emakumeek, gizonekin batera, garaipena eska zezaketenean — bizirik irautea (langabezian) edo bizirik irautea eta irabaztea (grebetan) —, garaipenaren onurak klaseari zegozkion «bere osotasunean». Oso gutxitan lortu dute emakumeek ezer emakumeentzako soilik, oso gutxitan izan du borrokak etxeko botere-egitura eta fabrikarekiko harremana nolabait aldatzea

helburu. Greban edo langabezian, emakumearen lana ez da inoiz amaitzen.

### *Umetokiaren funtzio kapitalista*

Kapitalismoak, inoiz baino gehiago, emakumea pertsona gisa suntsitu ez ezik, haren osotasun fisikoa ere deuseztatzea ekarri du. Emakume eta gizonen sexualitateak, kapitalismoaren aurretik ere, zenbait erregimen eta baldintzatze-modu igaro zituen. Baina, era berean, jaiotza-tasa kontrolatzeko metodo eraginkorrak ere bazeuden eta horiek azalpenik gabe desagertu dira. Kapitalak familia familia nuklear gisa ezarri zuen, eta, haren barruan, emakumea gizonaren mendeko bihurtu; ez zuenez gizarte-ekoizpenean zuzenean parte hartzen, ez zen lan-merkatuan burujabe. Horrek sormenerako eta lan-jarduera garatzeko aukera guztiak kentzeaz gain, autonomia sexuala, psikologikoa eta emozionalaren adierazpena ere kendu dio.

Berriro diogu: ez da inoiz gertatu emakumearen osotasun fisikoaren mailako atrofiarik, eta atrofia horrek denean eragiten dio, burmuinetik hasi eta umetokiraino. Ez dira gauza bera tren, auto edo hegazkinak ekoiztea beste pertsona batzuekin batera eta sukaldeko metro karratu gutxi batzuetan, mendeetan zehar, erratz bera erabiltzea norbere bakardadean.

Hori ez da hegazkinen fabrikazioan gizon eta emakumeen arteko berdintasuna erdiesteko aldarria. Kontua da onartzea bi borroken arteko desberdintasunak ez dituela benetako borroka-moldeen arteko desberdintasunak soilik zehazten, baizik eta, azken finean, agerian uzten duela hainbeste denboran ikusezina izan dena: iraganean emakumeen borrokek izan dituzten askotariko formak. Emakumeei sortzeko gaitasuna garatzeko aukera kentzeaz gain, bizitza sexuala ere kendu eta lan-indarra erreproduzitzeko funtzio

bihurtu dute: etxetresnen maila teknologikoari buruz egin ditugun ohar berberak dagozkie jaiotza-tasaren kontrolari (eta, bide batez, ginekologiaren arlo osoari). Ikerketa hori, baztertua izan da duela gutxi arte, emakumeak seme-alabak izatera behartu eta antisorgailu-teknika primitiboenek huts egitean abortatzeko eskubidea ukatzen zieten bitartean.

Emakumearen erabateko azpiratze horretatik aurrera, kapitalak emakumearen rola sortu du, eta familiako gizona bihurtu du murrizte horren bitartekari eta kudeatzaile. Gizona, soldatapeko langile eta familia-burua, emakumeen esplotazio espezifiko horren baliabide espezifikoak izan da.

#### *Lanaren banaketa homosexuala*

Horrela, azal dezakegu gizarteak emakumea objektu gisa menderatzean, gizonaren «osagarri» bihurtzean, gizon eta emakumeen artean ezarri duen hausturak zein neurritan zehazten dituen bien arteko degradazio-harremanak. Eta zentzu horretan, emakumeen mugimenduaren barruko joeren ez-tandaren baliozkotasuna ikus dezakegu. Mugimenduko emakumeek gizonen aurka zuzendu nahi dute borroka joerak mantentzen diren heinean,<sup>30</sup> jada ez dute alferrik ahalagindu nahi berdintasunezko harremanak bilatzen, harreman horietako bakoitza beti baita frustrazio iturri. Botere-harreman batek afekturako eta intimitaterako aukera oro deuseztatzen du. Hala ere, gizonen eta emakumeen artean, botereak sexu-afektua eta intimitatea eskatzen ditu. Zentzu horretan, homosexualen mugimendua da sexualitatea eta boterea bereizteko ahaleginik handiena.

---

30 Ezinezkoa da esatea joera horiek zenbat denboraz jarraituko duten mugimendua aurrerazten eta noiz bihurtuko diren aurkako joera.

Hala ere, oro har, homosexualitatea gizarte kapitalistaren esparruan errotuta dago: emakumeak etxean eta gizonak fabrika eta bulegoetan, egun osoa elkarrengandik aparte, edo 1.000 emakumek osatzen dute ohiko fabrika bat 10 arduradunekin, edo mekanografo talde bat (emakumeak, noski) 50 gizon profesionalentzat lanean. Egoera horiek guztiak bizitza-esparru homosexualak dira dagoeneko.

Kapitalak heterosexualitatea erlijioaren mailan jarri du, baina, era berean, ezinezkoa da praktikan emakume eta gizonen harreman fisiko eta emozionalak izatea, eta heterosexualitatea eremu sexual, ekonomiko eta sozialera mugatu du.

Gure ustez, errealitate horretatik abiatu behar dugu. Joera homosexualen eztanda garrantzitsua izan da mugimenduarentzat, eta hala izaten jarraitzen du, hain zuzen ere, premiazkoa delako emakumeen borrokaren izaera espezifikoa aldarrikatzea eta, batez ere, emakumeen esplotazioaren alderdi eta lotura guztiak sakontasun osoz argitzea.

### **Gainbalioa eta gizarte-fabrika**

Puntu honetan, marxismo ortodoxoak, batez ere alderdi marxisten ideologian eta praktikan, beti ziurtzat jo duen ikuspuntu jakin baten oinarria argitu nahi genuke: emakumeak gizarte-ekoizpenetik kanpo geratzen direnean, hau da, sozialki antolatutako ekoizpen-ziklotik kanpo, gizarte-ekoizpenetik kanpo ere badaude. Beste era batera esanda, emakumearen rola ekoizpenetik kanpo dagoen eta psikologikoki mendekoa den pertsonatzat hartu izan da beti, etxetik kanpo lanean ari den salbuespenetan izan ezik; funtsean, etxean erabilera-balio aurrekapitalista batzuen hornitzailea da. Hori izan zen, funtsean, Marxen ikus-

puntua. Fabriketan lan egiten zuten emakumeei zer gertatzen zitzaien ikustean, ondorioztatu zuen hobe zela haientzat etxean geratzea, bizitza moralki hobeago izango baitzuten han. Baina etxekoanderearen rola- ren benetako izaera ez du inoiz argi azaltzek Marxek. Hala ere, behatzaile batzuen arabera Lancashireko emakumeak, mende batez kotoigintzan lanean aritu ziren emakumeak, sexualki askeagoak omen ziren, eta gizonek gehiago laguntzen zieten etxeko lanekin. Bestalde, Yorkshireko ikatz meategietako barrutietan, non emakume gutxi aritzen ziren etxetik kanpo lanean, senarraren menderakuntza handiagoa zen. Ekoizpen sozializatuan emakumeen esplotazioa definitzeko gai izan direnek ere, ezin izan dute aurrera jarraitu ezta emakumeek etxean duten esplotazio-egoera ulertu ere; gizonak konprometituegi daude emakumeekin duten botere-harremanean. Horregatik, argi utzi behar dugu soldatari dagokionez, etxeko lanak erabilera-balioa ekoitzi ez ezik, gainbalioa ekoizteko funtsezko funtzioa ere baduela.

Horregatik, argi utzi behar dugu soldatari dagokionez, etxeko lanak erabilera-balioa ekoitzi ez ezik, gainbalioa ekoizteko funtsezkoa ere badela.<sup>31</sup> Baina hori hala izatearen arrazoietakoa bat emakumearen rola, bere osotasunean, maila guztietan, fisikoa, psikologikoa eta okupazionalan mendeko nortasun gisa eraiki izana da. Rol horrek leku zehatz bat izan du

---

31 Testu honen ingelesezko lehen irakurleetakoa batzuei iruditzen zaie emakumeen lanaren definizio horrek zehatzagoa izan beharko lukeela. Esan nahi duguna da, hain zuzen ere, etxeko lana lan gisa *produktiboa* dela zentzu marxistan, hau da, gainbalioa sortzen duela. Berekala hitz egin genuen emakumeen rol osoaren produktibitateaz. Emakumeen produktibitatea argitzeko, bai beren lanari dagokionez, bai beren rolari dagokionez, laster agertuko den testu bat lantzen ari gara. Bertan, emakumearen lekua modu artikulatuagoan azaltzen da, zirkuitu kapitalista osoaren ikuspuntutik.

lan kapitalistaren zatiketan, gizarte mailako ekoizpenaren bilaketan. Zehazki, aztertuko dugu emakumeek gizarte-ekoizpenaren iturri gisa duten rola, hau da, gainbalioaren ekoizpen-iturri gisa. Lehenik eta behin, familiaren barruan.

*A. Soldatapeko esklabotzaren produktibitatea, soldatarik gabeko esklabotzan oinarritua*

Soldatapeko lanaren definizioaren barruan, sarri baieztatu izan da etxean lan egiten duten emakumeak ez direla produktiboak. Egiaz, kontrakoa gertatzen da; izan ere, erakunde kapitalistak jarduera pribatizatu bihurtzen dituen gizarte-zerbitzuen, hau da, etxekoandreen ardurapean uzten diren zerbitzu horien kopurua ikaragarria da. Etxeko lana ez da funtsean «emakumeen lana»; kontua ez da emakumeek lan gutxiago egiten dutela edo gizonak baino gutxiago nekatzen direla garbiketetan ari direnean. Horiek gizarte-zerbitzuak dira, lan-indarren erreprodukzioarako balio baitute. Kapitalak gizona eginkizun horietatik «askatu» du, hain zuzen ere, behin bere familia-egitura ezarrita, zuzeneko esplotazioarako «gutziz libre» gera dadin; libre dago behar beste «irabazteko» emakume batek lan-indar gisa erreproduzitu dezan.<sup>32</sup> Horrela, bada, kapitalen soldatapeko gizon esklabo bihurtu ditu, zerbitzu horiek familiako emakumeei esleitzea lortu duelako, eta, prozesu beraren bidez, lan-merkatuan sartzen diren emakumeen korronea kontrolatu du. Italian, emakumeak oraindik beharrezkoak dira etxean, eta kapitalak familia mota hori behar du oraindik. Oraindik ere, European, orokorrean, eta Italian,

32 Ikus sarrera: «Lan-indarra salgai bitxia da, ez delako gauza bat. Lan egiteko gaitasuna gizakiarena baino ez da eta bere bizitza da ekoizpen-prozesuan kontsumitzen dena...» haren oinarritzko ekoizpena eta ugalketa deskribatzea emakumeen lana deskribatzea da.

bereziki, gaur egun dagoen garapen-mailan, kapitalak nahiago du bere lan-indarra eremu azpigaratuetatik datozen milioika gizon moduan inportatu, aldi berean emakumeak etxera mugatzen dituen bitartean.<sup>33</sup>

Emakumeak baliagarriak dira, ez etxeko lanak soldata eta grebarik gabe egiten dituztelako soilik, baita krisi ekonomikoetan lanetik kaleratzen dituzten guztiak etxean hartzen dituztelako ere. Familia, beti laguntzeko eta babesteko prest dagoen amatasun-sehaska hori, langabetuak milaka *outsider* errebelde ez bihurtzeko bermerik onena izan da.

Langile-klasearen mugimenduko alderdi antolatuak kontu handiz ibili dira etxeko lanaren auzia ez ukitzeko. Emakumeak beti, fabriketan ere bai, mende-ko biziduntzat hartu izan dituztela alde batera utzita, emakumeen auzia aurkeztea sindikatuen oinarri guztiak auzitan jartzea litzateke, erakundea arduratzen denean a) soilik fabrikaz; b) soilik lanaldi neurtu eta «ordaindu» batez; c) soilik ematen zaizkigun soldaten zatiaz, eta ez gero kentzen digutenaz, hau da, inflazioaz. Langile-klaseko alderdiek beti behartu izan dituzte emakumeak beren askapena etorkizun

---

33 Hala ere, kontrako joera batek indargabetu du hori: sektore jakin batzuetan emakumeak industriara erakartzea. Sektore geografiko beraren barruan, kapitalaren beharizan bereizgarriek propaganda eta politika desberdinak sortu dituzte, baita kontrajarriak ere. Iraganean, familiaren egonkortasuna mitologia nahiko estandarizatuan oinarritu zen (propaganda eta politika uniformearekin eta ofizialki inpugnatu gabe), baina gaur egun, kapitalaren hainbat sektore kontraesanean daude eta zalantzan jartzen dute familia bera unitate egonkor, aldaezin eta «natural» gisa definitzea. Horren oinarritzko adibide bat jaiotza-tasaren kontrolari buruzko iritzi eta politika finantzarioen aniztasuna da. Gobernu britainiarrak duela gutxi bikoiztu egin du helburu horretarako diru-esleipena. Aztertu behar dugu politika hori zein neurritan dagoen lotuta migrazio arrazistaren politikarekin, hau da, lan-indar helduaren iturrien manipulazioarekin, eta lan-etikaren higadura gero eta handiagoarekin, langabeen eta baliabiderik gabeko amen mugimenduetara daraman lan-etikaren higadura gero eta handiagoarekin, hau da, kapitalaren garbitasuna haur iraultzaileekin kutsatuko luketen jaiotzen kontrolarekin.

hipotetiko batera arte atzeratzera, eta alderdi horiek mugatutako borrokan gizonak “eurentzat” irabazitako onuren mendeko egin dute.

Berez, langile-klasearen borroka-etapa bakoitzak emakumearen mendekotasuna eta esplotazioa areagotu besterik ez du egin. Etxekoandreek pentsioa jasotzeko proposamenak,<sup>34</sup> (horregatik galdetzen diogu geure buruari: zergatik ez soldata bat?) alderdi horien prestutasun osoa erakusteko baino ez du balio, emakumeak etxekoandre gisa eta gizonak soldatapeko esklabo gisa are gehiago instituzionalizatzeko.

Orain argi dago gutako inork ez duela uste emantzipazioa, askapena, lanaren bidez lor daitekeenik. Lana lana da, etxe barruan edo kanpoan. Soldatapekoaren autonomia kapitalarentzat «norbanako» izatea besterik ez da, berdin emakume ala gizon. Langile-klaseko emakumearen askapena etxetik kanpo lan bat lortzearen mende dagoela aldarrikatzen dutenak arazoaren parte dira, ez konponbidearen parte. Mihizatze-lerroaren esklabotza ez da sukaldeko harraskaren esklabotzatik askatzeko bidea. Hori ukatzea mihizatze-lerroaren esklabotza ukatzea ere bada, eta berresten du, emakumeak nola esplotatzen dituzten ez badakigu, ez dugula jakiterik izango gizonak nola esplotatzen dituzten. Baina kontu hori benetan erabakigarria denez, aurrerago azalduko dugu. Hemen argi utzi nahi duguna zera da, modu kapitalistan antolatutako mundu batean ekoizterakoan soldatarik ordaintzen ez digutenez, nagusiaren figura senararenaren atzean ezkutatzen dela. Badirudi bera dela etxeko zerbitzuen hartzaile bakarra, eta horrek izaera

---

34 Hori da, besteak beste, Italiako Alderdi Komunistaren politika; izan ere, Italiako Parlamentuan lege bat proposatu zuen urte batzuetan zehar, etxean zeuden emakumeek, bai etxekoandreek, bai ezkongabeek, pentsio bat jaso zezaten 55 urtetik aurrera. Lege hori ez zen inoiz onartu.

anbigua eta esklabista ematen dio etxeko lanari. Senarra eta seme-alabak, beraien inplikazio afektiboaren eta xantaia afektiboaren bidez, lehenengo langilezain bihurtzen dira, lan horren kontrolatzaile.

Senarrak egunkaria irakurtzeko eta janaria presatu eta zerbitzatu arte itxaroteko joera du, emakumea bera bezala lanera irten eta berarekin etxera iritsita ere. Jakina, etxeko lanek ordezkatzeko duten esplotazio-modu espezifikoak borroka espezifikoak eta egokia eskatzen du, hau da, emakumeek *familiaren barruan* egin beharreko borroka.

Familia, lanaren antolaketa kapitalistaren benetako zutabea dela guztiz ulertzen ez badugu, familia hori gainegituratzat bakarrik hartzeko akatsa egiten badugu, eta fabriketako borroka-etapen arabera egokitzen badugu, iraultza herren bati ekingo diogu, *klase-borrokaren oinarrizko kontraesana eta garapen kapitalistarekiko kontraesan funtzionala* iraunarazi eta larriagotuko duena. Bestela esanda, erabilera-balioen ekoizletzat hartzen dugun akatsa betikotzen ariko ginateke, etxekoandreak langile-klasetik kanpo dagoen gauzatzen hartuz alegia. Etxekoandreak klasearen parte ez diren bitartean, klase-borroka zaildu egingo da edonoiz eta edonon, gaizki aterako da eta ez da gai izango ekintzen ikuspegi osoa izateko. Gure zeregina hemen ez da hori gehiago garatzea. Hala ere, etxeko lana ezkutuko ekoizpen-lana dela aldarrikatzeak hainbat galdera sorrarazten ditu bai borrokaren helburuei, bai borroka-moduei dagokienez.

*Isolatutako langilearen borroka gizarteratzea.* Izan ere, aipatu dugunak eskaera hau dakar, «ordaindu iezaguzue soldata etxeko lanengatik», Italiako gaur egungo indar-harremanak ikusita, etxeko lanaren izaerak eragiten duen esklabotza instituzionalari eus-

ten ari garelara dirudi. Eskaera horrek, beraz, ezingo luke praktikan mugimenduaren helburu izan.<sup>35</sup>

Gauzak horrela, honako borroka-moduak garrantzi behar ditugu: ezertxo ere ordaintzeko nahikoa ez den soldata baten zain, aldi behin manifestazioetan parte hartzeko prest, lasai-lasai etxean geratuko ez direnak; aitzitik, etxeko lanaren egitura osoa berehala hautsiko duten borroka moduak aurkitu behar ditugu eta, etxeko lanari uko egingo diotenak, etxekoandre izateari uko egingo diotenak, etxea geure bizitzaren ghetto bihurtzeari uko egingo diotenak. Kontua ez baita soilik lan hori egiteari uztea, baizik eta etxekoandreaken rol osoa suntsitzea. *Abiapuntua ez da etxeko lanak era eraginkorragoan egitea, baizik eta borrokan emakumearen lekuak protagonismoa izatea; hau da, ez dugu lan produktibagoa egin nahi, borroka iraultzaileagoa baizik.*

---

35 Orain, etxeko lanaren soldata gero eta handiagoa eskatzen da, Italian eta leku guztietan, emakumeen mugimenduak gero eta oposizio txikiagoa du horrekiko. Dokumentu hau lehen aldiz idatzi zenetik (71ko ekaina), eztabaida sakonagoa bihurtu da eta eztabaidaren berritasun erlatiboaren ondorioz zalantza asko desagertu dira. Baina, batez ere, emakume proletarioen premien pisuak ez ditu soilik mugimenduaren eskaerak erradikalizatu, indar eta konfiantza handiagoa ere eman digu aurrera egiteko. Duela urtebete, Italiako mugimenduaren hasieran, emakume batzuek uste zuten oraindik ere Estatuak erraz ito zezakeela etxeko lanaren aurkako emakumeen matxinada, hilero 7 edo 8 libera esterlina (250 peso mexikar, gutxi gorabehera) ordainduta. Hala egin baitzuen, bereziki, pentsioen mende zeuden «lurreko kondenatuekin».

Orain, zalantza horiek desagertu egin dira hein handi batean.

Eta, nolana ere, argi dago etxeko lanetarako soldataren eskaera oinarri bat baino ez dela, ikuspegi bat, eta ikuspegi horretatik abiatuta abiatzeko eta, horren meritua, funtsean, emakumeen zapalkuntza, mendekotasuna eta isolamendua emakumearen esplotazioan duen oinarri materialarekin zuzenean lotzea da. Gaur egun, agian hori da etxeko lanaren soldaten eskariaren funtzio nagusia.

Horrek, berehala, borrokarako argibide bat ematen du, antolakuntzari dagokionez norabide bat, non zapalkuntza eta esplotazioa, kasta eta klase egoera, modu bereizezinean lotuta dauden. Ikuspegi horren itzulpen praktikoa eta jarraitua da mugimenduaren zeregina, Italian eta leku guztietan.

Etxeari-eskainitako-denbora eta etxeari-eskaini-gabeko-denboraren arteko harremana berehalakoan eraisteko ez da beharrezkoa egunero maindireak eta errezelak lisatzeko denbora hartzea, egunero lurra garbitzea harik eta hauts-izpirik gabe geratu arte. Eta hala ere, emakume askok hala dihardute. Ez da, jakina, ergelak direlako: berriz ere, lehen ESN eskolekin egin dugun konparaketa datorkigu gogora. Izan ere, lan horretan soilik aurki dezakete identitate bat, lehen esan bezala, kapitalak bereizi egin dituelako gizartean antolatutako ekoizpen-prozesutik.

Baina prozesu horretatik bereizi izanak ez ditu automatikoki borroka sozialetik bereizten: borroka etxeko lanari denbora kentzea eskatzen du, baina, era berean, identitate berri bat eskaintzen die emakumeei etxeko ghetotik kanpo. Borrokaren sozibilitatean, emakumeak identitate berri horrek ematen duen botereaz ohartu eta erabili egiten dute. *Identitate hori gizarte-boterearen maila berri batean baino ezin da oinarritu.* Gizarte mailan borrokatzeko aukera hori emakumeek etxean egiten duten lanaren izaera sozialki produktiboaren ondorio da. Ez dira soilik edo nagusiki etxean garatzen diren zerbitzuak emakumearen lana sozialki produktiboa izatea eragiten dutenak, nahiz eta zerbitzu horiek emakumearen rolaekin identifikatzen diren orain. Kapitalak teknologikoki hobetu litzake lan horren baldintzak. Oraingoz, kapitalak ez du suntsitu nahi, Italian behintzat, etxekoandreak familia nuklearraren euskarri gisa duen lekua. Horregatik, ez da etxeko lanen automatizazioaren zain egotearen kontu bat, ez baita inoiz gertatuko: familia nuklearraren mantentzea bateraezina da zerbitzu horien automatizazioarekin. Benetan automatizatzeko, kapitalak gaur egungo familia suntsitu beharko luke;

hau da, erabat *automatizatze*ko sozializatzera behartua egongo litzateke.

Baina ondo baino hobeto dakigu zer den sozializazio kapitalista: Parisko Komunaren kontrakoa izaten da beti!

Berrantolaketa kapitalistak egin lezakeen jauzi berria, Ameriketako Estatu Batuetan eta herrialde kapitalista aurreratuenetan dagoeneko ikusten dugun modua, etxeko ekoizpenaren isolamendu aurrekapitalista suntsitu, eta berdintasun kapitalista eta haren menderakuntza lan kooperatiboaren bidez islatzen dituen familia eraikitzea izan liteke; emakume ez-aske, aurrekapitalista, euskarri duen «garapen kapitalistaren egoera osatugabea» gainditu, eta familia berreraikiko luke hobeto isla dezan bere funtzioa, hau da, lan-indarraren erreprodukzioa.

Arestian esandakora itzuliz: emakumeek, etxekoandreek, beren burua etxearekin identifikatzean, lanaren perfekzio konpultsiborako joera dute. Denok ezagutzen dugu esaera hau: etxean beti dago egiteko zerbait.

Ez dute etxeko lau hormetatik haratago ikusten. Etxekoandre izateak dakartzan lan-baldintza aurrekapitalistek emakumeari eraiki dioten «feminizazioaren» ondorioz, mundua, gainerakoak eta lanaren antolaketa ezezagunak dira emakumearentzat. Egunero kalera irten eta mundu horrekin topo egiten duen senarra ez da horretaz jabetzen.

Beraz, diogunean emakumeek apurtu egin behar dutela etxeari-eskainitako-denbora eta etxeari-eskaini-gabeko-denborarekin duten harremana eta etxetik ateratzen hasi, esan nahi dugu, hain zuzen ere, etxekoandreaken rola suntsitzeko borondate hori izan behar dutela abiapuntu, beste emakume batzue-

kin biltzen hasteko, ez soilik auzokide eta lagun gisa, baizik eta lankide eta lanaren aurkako kide gisa. Ondorioz, emakumeen arteko «berariazko» norgehiagoka hori hausteko eta emakumeen arteko benetako elkartasuna berreraikitzeko: ez status quoa defendatzeko elkartasuna, erasorako elkartasuna, borroka antolatze-koa baizik.

Guztion lanaren aurkako guztion elkartasuna. Era berean, emakumeek senarrekin eta seme-alabekin emazte eta ama gisa bakarrik elkartzeari utzi behar diote, hau da, bazkalorduan eta afalorduan etxera itzultzerakoan.

Etxetik kanpoko edozein borroka-lekuk, antolaketa kapitalistaren oinarria etxea denez gero, emakumeak erasotzeko aukera eskaintzen du; fabrikako bilerak, auzoko bilerak, ikasleen batzarrak, guztiak dira borroka feministarako leku legítimoak: eta hala nahi izanez gero, baita eztabaidaleku ere, denak norbanako bezala eta ez aita-ama, seme-alaba bezala, kapitalak familiaren barruan gorde nahi izan dituen frustrazio, errepresio eta kontraesan guztiak familietatik kanpo leherrarazteko.

*Klase-borrokarako konpas berri bat.* Emakumeek langileen batzarretan gaueko txanda kentzeko eskatzen badute, gauez, lo egiteaz gain, maitasuna egin nahi dutelako —eta ez da gauza bera maitasuna egunez egitea emakumeek egunez lan egiten badute—, horrek esan nahiko luke interes autonomo feminista subjektiboa lanaren antolakuntzaren kontra erabiltzea, senar eta seme-alaben ase gabeko ama izateari uko eginez.

Baina esku-hartze eta konfrontazio berri horretan, emakumeak adierazten ari dira, halaber, emakume izateagatik dituzten interesak ez direla, esan izan dieten bezala, desberdinak eta klasearen interesetatik

kanpokoak. Alderdi politikoek, batez ere ezkerrekoek, eta sindikatuak langile klasearen borroka eremuak luzeegi mugatu dituzte. *Maitasuna egitea eta maitasuna egin ahal izateko gaueko txandari uko egitea klase interesa da.* Gai hori emakumeek, eta ez gizonek, mahaigaineratu izanaren arrazoia ikertzea klasearen historia osoa argitzea da.

Ikasle-batzar batean seme-alabekin elkartzea eta gainerakoekin nola hitz egiten duten ikustea, seme-alabak norbanako bezala ezagutzea da; eta ama haien aurrean norbanako bezala aurkeztea. Ia emakume guztiek izan dituztenez abortuak eta asko erditu direnez, ez dugu inolako arrazoirik ikusten, medikuntzako ikasleen asanblada batean emakume bezala duten ikuspuntua adieraz dezaten ikasle bezala dutena baino lehen. (Ez dugu medikuntza fakultatearen adibidea kasualitatez aukeratu. Ikasgeletan eta kliniketan, beste behin ere, ikus daiteke langile-klasearen esplotazioa, ez hirugarren klaseko gaixoak ikerketarako akuri bihurtzen dituztenean bakarrik. Emakumeak dira, bereziki, ikerketen biktima nagusi eta baita medikuen mespretxu sexual, sadismo eta harrokeria profesionalarena ere).

Azken finean, garrantzitsua da emakumeen mugimendua sortu izana, hain zuzen ere, orain arte familiaren antolaketa kapitalistak zikiratu dituen interesen izaera espezifikoa adierazpen gisa. Hori gure gizarteko sektore guztietan aldarrikatu behar da, interes horien errepresioan oinarrituta, klase-esplotazio guztia emakumeen esplotazioaren bitartekaritza espezifikoa gainean eraiki baita.

Emakumeen mugimendutik, beraz, esplotazio hori gertatzen den arlo bakoitza salatu behar dugu,

hau da, borroka kudeatzeko interes feminista berreskuratu behar dugu.

Edozein aukera da ona: etxegabetzeko mehatxatuta dauden familien etxekoandreek esan dezakete beren etxeko lanek sobera ordaindu dutela zor duten hilabeteetako errenta. Milango periferian, familia asko ari da jada horrela borrokan.

Zoragarria da etxean etxetresna elektrikoak izatea, baina, fabrikatzen dituzten langileentzat, denbora eta nekea dira. Zaila da soldata bakarrarekin tresna horiek guztiak erostea, eta beraz, emakumeek bakarrik erabiliko dituzte etxean; horrek esan nahi du lana mekanizatuagoa egon arren, etxean sartuta jarraituko duela. Zorionekoa langilea eta zorionekoa etxekoandrea!

Kontua ez da jantoki kolektiboak edukitzea. Ezin dugu ahaztu kapitalak, lehenengo, Fiat sortuko duela eta gero jantokia.

Horregatik, lan-antolamenduaren eta lan-ordutegiaren aurkako borrokan txertatu gabe, auzoan jantoki kolektibo bat eskatzea, arriskutsua izan liteke komunitate-mailan. Emakumeak lan tentagarriren batekin gobernatuko gintuzkete, eguerdian, jantokian, zakurraren putza elkarrekin jateko aukera izan genezan.

Jakinarazi nahi dizuegu hori ez dela nahi dugun jantokia, ez da nahi dugun haurtzaindegia eta ezta haurrentzako horrelako jolas-zentroa ere.<sup>36</sup> Jantokiak

---

36 ç Nolabaiteko nahasmena egon da jantokiei buruz diogunaren inguruan. Agerian geratu da antzeko nahastea dagoela beste herrialde batzuetan, Italian ez ezik, etxeko lanaren soldatei buruzko eztabaidetan. Lehen azaldu dugun bezala, etxeko lana fabriketako lana bezain instituzionalizatuta dago, eta gure helburu nagusia bi erakundeak suntsitzea da. Baina aipatzen den eskariak gain, eskari baten interpretazio okerra egin dute. Helburu horrek ez du gauza bakar bat irudikatzen, kapitalaren historian beti gertatu izan den bezala, gizarte-harremanekiko antagonismo

eta hartzaindegiak ere nahi ditugu, baita arropa- eta plater-garbigailua ere, baina, horrez gain, beste aukera batzuk ere nahi ditugu: pertsona jakin batzuekin bakarrik jatea, nahi dugunean; haurrekin, adinekoekin eta gaixoekin egoteko denbora izatea, guk aukeratzen dugunean eta guk aukeratzen dugun tokian. «Denbora izateak» lan gutxiago egitea esan nahi du. Haur, zahar eta gaixoekin egoteko denbora izateak ez du esan nahi haur, zahar eta elbarriak aparkatzen diren garajeetan bisita azkar bat egiteko presaka ibili behar dugunik. Horrek esan nahi du gu, baztertuak izan garen lehenak, borrokan ari garela baztertuta dauden beste pertsona guztiak —haurrek, zaharrek eta gaixoe— aberastasun soziala berreskura dezaten, gugana eta denak batera gizonengana itzul gaitezen, bata bestearen mende egon gabe, autonomiaz, emakumeok guretzat nahi dugun bezala, izan ere, haurrak, zaharrak eta gaixoak zuzenki produktiboa den gizarte-prozesutik kanpo utzi izana, gizartetik kanpo utzi izana, gure kasuan bezala, antolakuntza kapitalistak eragin du.

*Lan egiteari uko egitea.* Ondorioz, etxeko lana emakumeen lan gisa baztertzen dugu, inposatu zaigun lan gisa, inoiz asmatu ez dugun lan gisa, inoiz ordaindu ez zaigun lan gisa, ordutegi zentzugabeak jasatera behartu gaituen lan gisa —egunero 12-13 ordu—, etxean egotera behartuz.

Etxetik irten behar dugu, etxea baztertu behar dugu, beste emakume batzuekin bat egin nahi dugula-

---

aldi bat baizik. Lortzen ditugun jangelak edo soldatak garaipena edo porrota izatea gure borrokaren indarraren arabera da. Indar horren mende dago helburua aukera bat izatea kapitalak gure lana arrazionalki zuzentzeko edo guk norabide horretan kapitalaren kontrola ahultzeko. Helburu horrek lortzen dugunean izango duen forma, hau da, soldatak, jangelak edo jaiotza-tasaren kontrola lortzen ditugunean, borrokan ari garen bitartean sortuko da, eta borrokan irabazi dugun botere-maila ezarriko du.

ko, emakumeak etxean geratuko diren egoera guztien aurka borrokatzeko, ghettoetan dauden guztien borrokekin bat egiteko, izan haurtzaindegiak, eskolak, ospitaleak, zaharren egoitzak edo behe-auzoak. Etxea uztea borroka-modu bat da dagoeneko, bertan egiten ditugun gizarte-zerbitzuak ez lirakeelako baldintza berdinetan burutuko eta, horrela, etxetik kanpo lan egiten duten guztiek eskatuko luketelako orain arte guk eraman dugun pisua dagokion tokian jartzea: kapitalaren bizkarrean. Borrokaren baldintza-aldaketa horiek are bortitzagoak izango dira emakumeek etxeko lanak gero eta bortitzago baztertzen badituzte, mugimendua gero eta sendoagoa eta masiboagoa bada.

*Langile-klaseko familia da puntu zailena apurtzen.* Langilearen euskarria delako, langilea delako soilik, eta horregatik da kapitalaren euskarri. *Familia horren esku dago klasearen sostengua, klasearen biziraupena, beti ere, emakumearen kontura, klasearen beraren aurka.* Familiaren barruan, emakumea soldatapeko esklabo baten esklaboa da eta bere esklabotzak gizonaren esklabotza bermatzen du. Familiak sindikatuak bezainbeste babesten du langilea, baina bermatzen du, era berean, emakume eta gizon langileak, langile besterik ez direla izango. Eta hori da langile-klaseko emakumeak familiaren aurka duen borroka erabakigarria izatearen arrazoia. Etxe barruan eta kanpoan lan egiten duten beste emakume batzuekin elkartzek borrokarako beste aukera batzuk izatea ahalbidetzen digu. Gure borroka lanaren aurkakoa den heinean, langile-klaseak lan kapitalistaren aurka egiten duen borrokaren parte da. Baina emakumeak etxeko lanen bidez esplotatzeak historia espezifikoa izan du, familia nuklearra bizirik mantentzeko lotua. Beraz, borroka horren ibilbideak espezifikotasun bat du, gizarte-ordena kapitalistak

eraikitako familia nuklearra suntsitu behar du, eta horrek beste dimentsio bat gehitzen dio klase-borrokari.

#### *B. Pasibotasunaren produktibitatea*

Hala ere, emakumeak familian duen rola ez da soilik soldatarik gabeko gizarte-zerbitzuen hornitzailerena. Hasieratik esan dugun bezala, emakumea gizonaren mende familiaren barruan kartzelaratzeko, aurretik, emakumearen osotasun fisikoaren atrofia onartu delako gertatu da. Italian, eliza katolikoaren laguntzarekin, emakumea beti behe-mailako izaki gisa definitu izan dutenez, emakumea behartuta dago ezkondu aurretik sexu-abstinentzia egitera eta, ezkondu ondoren, bere sexualitatea erreprimitu eta seme-alabak izatera soilik bideratzera, hau da, seme-alabak izatera behartuta dago. Emakumearen «ama heroiko eta emazte zorionsuaren» irudia sortu da. Haren sexu-identitatea sublimazio hutsa da, eta, funtsean, beste pertsona batzuen adierazpen emozionalaren hartzailea da, familia-antagonismoaren indargetzailea. Beraz, emakumeen frigidotasuna deitu izan dena berriz definitu beharra dago, funtzio sexualean ere inposatutako harmen pasibo gisa.

Orain, emakumeak familian duen pasibotasuna da, hain zuzen ere «produktiboa» bilakatzen duena. Lehenik eta behin, gizonak kanpoko munduan jasaten dituen zapalkuntza guztien ihesbidea da eta, aldi berean, lanaren antolaketaren menderakuntzak gizonarengan eragiten duen botere-grina deskargatzeko subjektua da. Zentzu horretan, emakumea produktibo bihurtzen da erakunde kapitalistarentzat, erakunde horrek berak sortzen dituen tentsio sozialen arintze balbula gisa. Bigarrenik, emakumea produktibo bihurtzen da, autonomia pertsonal faltan eragiten dion frustrazioarengatik. Frustrazio hori etengabeko behar

sorta batean sublimatzen da, beti etxean eta etxeko lanetan duen perfektzionismo konpultsiboarekiko paralelotasun zuzena duen kontsumo moduko batean. Jakina, gure lana ez da emakumeei etxean zer izan behar duten esatea. Inork ezin baititu besteen beharrak definitu. Gure interesa sublimazio hori beharrezkoa ez den borroka bat antolatzea da.

*Lan monotonoa eta sexualitatearen agonia.* Nahita erabiltzen dugu «sublimazio» hitza. Zeregin monotono eta hutsalek eta pasibotasun sexualak eragindako frustrazioak nominalki bakarrik bereiz daitezke. Sexu- eta lan-sormenean, Marxek dioen bezala, giza beharrak ematea eskatzen du, biak dira gure «hautemandako botere natural» mugagabeen eremuak.<sup>37</sup>

Emakumeengan (eta, beraz, gizonengan) aldi berean erreprimitzen dira gaitasun naturalak eta eskuratutakoak. Emakumeen harmen sexual pasiboak etxekoandreaken lanarekin lotutako perfektzionismoa sortzen du, eta muntaketa-katearen monotonia terapeutiko bihur dezake. Etxeko lana gehienbat hutsala izatea eta egunero, astero eta hilero, oporretan bi bider, lan bera egiteko behar den diziplinak sexualitate desinhibitutako aukerak suntsitzen ditu. Gure haurtzaroa sakrifiziorako prestakuntza da: sexu-harreman aratzekin gozaten, sexualitatea eta beste edozein jarduera sortzaile sakrifikatzen irakasten digute.

---

37 Karl Marx, *Das Kapital, Kritik der politischen Ökonomie*, I. liburukia, Berlin, Dietz Verlag, 1962, 512. or.

«Industria handiak... hil ala biziko kontua bihurtzen du langile erabilgarrigutxi dituen eta kapitala ustiatzeko beharrizan aldakorretarako erreserban mantentzen den gehiegikeria horren ordez, gizakiak lanaren exijentzia aldagaietarako duen erabateko erabilgarritasuna ezartzea; xehetasunezko funtzio sozial baten tresna soila den gizabanako partziala, guztiz garatutako gizabanakoagatik ordezkatzea, zeinarentzat funtzio sozial desberdinak txandatu eta agerian uzten diren beste hainbat jarduera-adierazpen baino ez diren».

Orain arte, mugimendu feministak, emakumeen sexu-potenziala gizonek definitu eta mugatzea ahalbidetzen duen mekanismo fisikoa salatu du, bereziki, baginako orgasmoa desmitifikatzean. Orain sexualitatea sormenaren beste alderdi batzuetan birtxertatzen has gaitezke. Esan dezakegu sexualitatea beti egongo dela mugatua, baldin eta egiten dugun lanak ez badi-tu gure gaitasun indibidualak eta gu geu mutilatzen, eta sexu harremanak partekatzeke aukeratzen ditugun pertsonak ez diren gure nagusiak eta, era berean, *euren* lanagatik mutilatuta dauden pertsonak. Baina ez da baginaren eta klitoriaren arteko auzi soila, bi horiek eta umetokiaren artekoa baizik. Beste ezer baino lehen, bagina ondoren salgai gisa salduko den lan-indarraren erreproduktzioa ahalbidetzen duen pasabidea da, umetokiaren funtzio kapitalista alegia, edo gure jakintza sozialaren parte da. Azken finean, sexualitatea adierazpenik sozialena da, giza komunikaziorik sakonena. Zentzu horretan, autonomiaren deuseztapena da. Langileriak klase izaeratik antolatzen du klasea bera gainditzeko borroka; klase horren barruan gu autonomoki antolatzen gara autonomia gainditzeko oinarriak sortzeko.

*Emakumeen aurkako eraso «politikoa».* Borrokaren barruan gu geu izateko eta gure erara antolatzeko bidea aurkitu bitartean, mugimendu bat sortu ondoren ere, badaude emakumeak erasotu nahi dituztenak. Haien ustetan, emakumeak klasearen batasun ezaren erantzule dira, obliteratzearen kontra, euren burua lanaren eta kontsumoaren bidez definitzen dutelako. Egin dezagun leporatzen dizkieten bekatuen zerrenda laburra:

1. Senarraren soldataren zati handiago bat nahi du, adibidez, bera eta seme-alabentzat arropa erosteko. Ez arropa horien beharra duelako, berak eta bere seme-alabek arropa horiek izan beharko lituzketela uste duelako baizik. Gizonak lan handia egiten du dirua irabazteko. Emakumeak ez du aberatsagoa izateko eta soldata handiagoa izateko borroka egiten, aberastasun faltaren beste bannaketa mota bat eskatzen du.
2. Beste emakumeekin lehiatzen da erakargarriagoa izateko, haiek baino gauza gehiago edukitzeko eta gainerako emakumeek baino etxe garbiagoa eta txukunagoa izateko. Ez da emakumearekin lerrotkatzen klase gisa egin beharko luketen bezala.
3. Etxean geratzen da eta ez du ulertzen senarraren fabrikako borroka. Agian, babestu beharrean, kezatu ere egingo da greba egiten duenean. Balio atzerakoien alde egiten du.

Horiek dira emakumea atzerakoia dela, edo kasurik onenean, emakumea gizonen atzean dagoela esan duten gizonen emandako arrazoietakoz batzuk. Gizon horiek fabriketako borroken liderrak dira, militantzian egindako ibilbideagatik, eta buruzagi sozialaren izatera hobeto ulertzeko gai omen dira militante politikoak direlako. Erraz diote emakumeak atzean daudela, hori baita gizartean nagusitzen den ideologia. Baina jaio zirenetik zainduak izateko emakumeen mendeko posizioaz baliatu direla aipatzea ahaztu egin zaie. Batzuek ez dakite artatuak izan direnik ere, hain da naturala haientzat amek, ahizpek eta alabek «etxe gizonak» zerbitzatzea. Bestalde, guretzat oso zaila da gizonen berezko nagusitasun maskulinoa eraso batetik bereiztea, eraso hori «politika» kontua omen delako beti eta klasearen mesedetan egina.

Azter dezagun gaia hurbilagotik.

1. Emakumeek ez dute etxea kontsumoaren erdigune bilakatzen. Kontsumo-prozesua lan-indarraren ekoizpenaren zati bat da eta emakumeek erosketak egiteari (gastatzeari) uko egingo baliote, hori greba litzateke. Hala ere, gaineratu behar dugu emakumeak gizartean antolatutako lanetik kanpo egoteak eragiten dien harreman sozialen galera, askotan, gauzak erositzen konpentsatzen saiatzen direla. Hori beharrezkoa ez izatea, epailearen ikuspuntuaren eta sexuaren arabera da. Intelektualek liburuak erosten dituzte, baina inork ez dio kontsumo hori beharrezkoa ez denik. Bere edukiaren baliozkotasuna alde batera utzita, gizarte honetan, kapitalismoa baino zaharragoa den tradizioari jarraiki liburuek balio maskulinoa irudikatzen dute oraindik.

Lehen ere esan dugu emakumeek etxerako gauzak erosten dituztela, etxea delako existitzen direla frogatzen duen gauza bakarra. Baina kontsumitze eza nolabait askatzailea izatearen ideia kapitalismoa bezain zaharra da, eta kapitalistengandik dator, langileen egoeraren errua langileari berari egozten baitiote beti. Urte luzez, liberalek Harlemeko gizon beltzak ohartarazi zituzten esanez Cadillacak gidatzeari utziko baliote kolorearen arazoa konpondu egingo litzatekeela. Haien borrokaren indarkeria (orduko erantzun egoki bakarra) botere soziala zen neurrian, Cadillac hori botere-potentziala erakusteko modu bakanetako bat zen. Horrek ematen zien min liberalei, eta ez austeritate ezak.

Edonola ere, libre bagina ez genuke erositako ezer behar. Ez ematen diguten janaririk, ez klasearen, sexuaren eta belaunaldiaren arabera identifikatzen gaituen arroparik, ezta hesitzen gaituen etxerik ere.

Edonola ere, inoiz ez da nahikoa, inoiz ez da gehiegi, eta, egiaz, hori da gure arazoa. Emakumeek gizonen egiten dieten presioa soldataren defentsa da, ez eraso. Izan ere, emakumeak esklabo soldatadunen esklabo dira, eta gizonen soldata beren buruaren eta familiaren gastu orokorren artean banatzen dute. Emakumeek ezer eskatuko ez balute, familiaren bizi-maila orokorra inflazioak bereganatuko luke eta emakumeak sufrituko luke gehien. Beraz, emakumearen presiorik gabe, familiak soldata errearen jaitziera bereganatuz funtzionatuko luke.<sup>38</sup> Hori da, beraz, emakumeek klasearen bizi-maila defendatzeko modurik eraginkorrena. Eta emakumeak bilera politikoetara joaten hasten direnean, are diru gehiago beharko dute!

2. Emakumeen «lehiari» dagokionez, Frantz Fanonek argi utzi du Hirugarren Munduan arrazakeriak bakarrik eragozten duela, klase mailan gertatzen dena. Bere esanetan, kolonizatuak zapaltzaileen aurka antolatzen ez direnean, elkar erasotzen dute. Emakumeek kontsumo handiagoaren alde egitea batzuetan lehia gisa adieraz daiteke, baina, hala ere, esan bezala, klasearen bizi-maila babesten du. Eta hori ez da emakumeen sexu-lehia; lehia hori gizonen mendekotasun ekonomiko eta sozialean errotuta dago. Emakumeak gizonentzat bizi diren heinean, gizonentzat jantzen diren heinean, gizonentzat lan egiten duten heinean,

---

38 «Garrantzitsuagoa da ondoko kapitulueta garatuko dugun kontrako arazoia, gaur egun, soldata errearen maila orokorra soldatei buruzko hitzarmenen izaerak zuzenean baldintzatzen duenarekin ados ez gaudelako sortu da... Frogatuko dugu funtsezko gaizkiulertua egon dela bizi dugun ekonomiari dagokionez eta bere jarduerari dagokionez». Okupazioaren, interesaren eta diruaren teoria orokorra, John Maynard Keynes, FCE, 2. edizioaren 2. berrinprimaketa, 1971, 23-24 or. Eduardo Hornedoren itzulpena, Ángel Martín Pérezen berrikuspena. Gure ustez, «beste indar batzuk», lehenik eta behin, emakumeak dira.

gizonek lehia horren bidez manipulatzeko dituzte.<sup>39</sup> Etxeen arteko lehiari dagokionez, emakumeak jaio zirenetik hezi dituzte obsesiboak eta posesiboak izateko etxea txukun-txukun mantentzearekin. Baina gizonek ezin dute neskamea izan eta, gainera, pribilegio horretaz kexatu. Kexaka jarraitzen badute, ondorioztatutako beharko dugu ure arteko lehia kritikatzeko, gure neskametzaren apologia dela. Fanon oker bazebilen kolonizatuen arteko liskarrak haien antolakuntza faltaren adierazgarri zirela zioenean, orduan, antagonismoa

---

39 Ikusi dugu boltxebike askok, 1917tik aurrera, euren emakumezko bikotekidea aristokrazia desjabetuaren artean aurkitu zutela. Boterea gizonek dutenean, bai Estatu mailan, bai banakako harremanetan, emakumeak «komunitatearen plazeraren preso eta morroi» izaten jarraitzen dute (Karl Marx, *1844ko eskuizkribu ekonomiko-filosofikoak*, FCE, Mexiko, 1962, 134. or.). Julieta Camposen gaztelaniazko itzulpena, T.B. Bottomore-en ingelesezko itzulpenean oinarritua). «Tsar berrien» leinua aspalditik dator. 1921ean, «internazional komunistaren hirugarren Kongresuko erabakietan», «emakumeen arteko lanari» buruzko 1. zatian irakurri zuten: «Cominternen hirugarren biltzarrak marxismo iraultzailearen oinarritzko proposamena berresten du, hau da, ez dago «emakumearen gai espezifikorik» ezta «emakumeen mugimendu espezifikorik» ere, eta emakume langileek feminismo burgesarekin duten aliantza mota orok, emakume langileek oportunisten eta erreformista sozialen taktika traidoreei ematen dieten edozein babesek bezala, proletarioen indarrak ahultzen ditu... emakumeen esklabotza amaitzeko beharrezkoa da gizartearen antolaketa komunista berria martxan jartzea».

Teoria maskulinoa zen, baina, gainera, praktikaren helburua «indargabetzea» zen. Guraso fundatzaileetako bat aipatzearen, 1922ko martxoaren 26an, Italiako Alderdi Komunistaren lehenengo Emakume Komunisten Konferentzia Nazionalan, «Gramsci kamaradak adierazi zuen ekintza berezi bat antolatu beharra dagoela etxekoandreen artean, emakume proletario gehienak baitira etxekoandre. Esan zuen nolabait gure mugimenduetarekin lotu behar direla, erakunde bereziak ezarriz. Etxekoandreak, beren lanaren kalitateari dagokionez, artisauen antzekotzat jo daitezke eta, beraz, oso zaila da komunista bihurtzea; hala ere, langileen lankideak direnez eta langileen bizitza nolabait partekatzen dutenez, komunismoak erakarri egiten ditu. Gure propagandak, beraz, eragin bat izan dezake etxekoandre horien gainean (sic); utilitarismotik egin dezakezu, gure erakundearen barruan sartzeko ez baina, bai, ordea, neutralizatzen; langileen balizko borroken bidea oztopa ez dezaten». (*Compagnatik* hartua, Italiako Alderdi Komunistaren organoa emakumeekin lan egiteko. I. urtea, 3. zk., apirilaren 2a, 1922, 2. or.).

ezintasun naturalaren seinale da. Etxeari ghetto deitzen badiogu, tokiko erregimenaren bidez metropoliak gobernatutako kolonia ere dei geniezaioke. Kolonizatuen arteko antagonismoaren irtenbidea borroka autonomoa da. Emakumeek gainditu dituzte jada borrokan ari diren gizonekin bat egin eta haiek babesteko lehia baino oztopo handiagoak. Baina ez dute arrakastarik izan borroka-uneetan eraldatu eta sakontzean, beren eskaerak aurkezteko aukerak sortu ahal izateko. Borroka autonomoak buelta ematen dio gaiari: ez dira «gizonak babesteko bildu diren emakumeak», baizik eta «emakumeak babesteko bildu diren gizonak».

3. Zer eragotzi du orain arte emakumeen eskuhartze politikoa? Zergatik erabil daitezke emakumeak egoera jakin batzuetan greben kontra? Bestela esanda, zergatik ez dago klase batasunik? Dokumentu honen hasieratik, emakumeak gizarte-ekoizpenetik kanpo uztea funtsezko gai bihurtu dugu. Hori da antolakuntza kapitalistaren ezaugarri objektiboetako bat: fabrikari eta bulegoan lana kooperatiboa da, eta etxean, isolatua. Hori subjektiboki islatzen da langileak industrian antolatzeke moduan, komunitatetik kanpo. Zer egin dezake komunitateak? Zer egin dezakete emakumeek? Sostengu izan, etxean eta borrokan gizonen gehigarri izan, emakumeen kidego osagarriak sortu sindikatuetan? Zatiketa eta zatiketa-mota hori klasearen historia da. Borrokaren etapa bakoitzean, jarrera periferikoak dituztenak erabiltzen dira ekoizpen-zikloaren erdigunean daudenen aurka, batez ere, azken horiek lehenengoei bazter egiten badiete. Hori da sindikatuen historia, adibidez, ez langile zuriak uste bezain maiz, baina Ameriketako Estatu Batuetan langile beltzak eskirol gisa erabili zituzten. Beltzak, emakumeak bezala, bereha-

la identifika daitezke, eta hautsitako greben txostenek indartu egiten dituzte zatiketa objektiboetatik datozen aurreiritziak: zuriak muntaia-lerroan eta beltzak lurra garbitzen, edo gizona muntaia-lerroan eta etxera iristen denean emakumea lurra errazten ari da.

Gizonek lanari uko egiten diotenean militantzat dute beren burua, baina guk lanari uko egiten diogunean, erotuta omen gaude. Emakumeak borroka politikotik baztertu ondoren gutako batek kontserbadoreen alde bozkatzeko badu, atzerakoiak garelako diote, aldiz, haiek gehigarri potentzial gisa ez bada, existitzen ez garelako uste duten alderdiak bozkatzeko dituzte, bidean beren burua erabat salduz (eta gu ere bai).

### C. Diziplinaren produktibitatea

Emakumeek familian duten rola hiru garrantzitsuen artean lehenago aipatu dugun nortasunaren atrofia horren ondorioz, emakumea jazarpen figura bihurtzen dela da. Emakumeak familiako kide guztiak diziplinatzen ditu, ideologikoki eta psikologikoki. Baliteke bere senarraren tiraniaren pean bizitzea, bere etxea, «ama heroikoa eta emazte zoriontsua» izaten saiatzearen tiraniaren pean, nahiz eta bere existentziak berak ideal horri kontra egin. Tiranizatuta daudenak eta boterarik ez dutenak belaunaldi berriekin egoten dira euren bizitzako lehen urteetan, eta langile otzanak eta nagusi xumeak ekoizten dituzte, irakasleek eskolan egiten duten bezala. (Horrela, emaztea senarraren konplize da: gurasoen eta irakasleen elkarteak ez dira kasualitatez existitzen). Lan-indarraren erreproduzioaz arduratzen diren emakumeek, batetik, biharko langileak izango diren haurrak diziplinatzen dituzte, eta, bestetik, senarra ere bai, lan egin dezan; izan ere, haren soldataren menpe dago familia osoaren biziraupena.

Artikulu honetan, emakumeen etxeko produktibitatea soilik aztertu dugu, horren inplikazio psikologikoei arretarik eman gabe, baina, behintzat, produktibitate hori kokatu eta deskribatu dugu. Emakumeak betetzen duen rolaren konplexutasunak zeharkatzen du ekoizpen mota hori, (baita bere gain hartzen duen ordaindu gabeko etxeko lana ere). Emakumeak etxean giltzapeturik daude lanarekin egindako krisalida batean bezala, hil eta kapitalari zeta uzteko. Horregatik, lehenik eta behin, emakumeak bata bestearengandik, gizonengandik eta haurrengandik bereizi nahi dituen aurrezarritako rol hori haustea proposatzen dugu. Rol horri kontra egiteak, etxekoandreek klasearen parte direla onartzea dakar, sektore degradatuena hain zuzen, ez baitute soldatarik jasotzen.

Etxekoandreek emakumeen borrokan duten lekua erabakigarria da, lanaren antolaketa kapitalista eusten duen zutabea ahultzen duelako, familia, alegia.

Beraz, merezi du emakumeen indibidualtasuna berreskuratzeko joera duen edozein helburu proposatzeak, denaren eta denon osagarri den figura horren kontra; etxekoandreaken kontra, rol horren aldaketa proposatzeak helburu iraultzailea baitu.

Ildo beretik, emakumeari bere oinarrizko funtzio fisikoen osotasuna lehengoratzeko baliagarri izan dakizkioken helburu guztiak ahalik eta azkarren planteatu behar dira, sexualetik hasita, hori izan baitzen kendu zioten lehena lan-sormenarekin batera.

Ez da kasualitatea antisorgailuen ikerketak hain astiro egin izana aurrera, abortua ia mundu osoan debekatuta egotea edo arrazoi «terapeutikoengatik» soilik abortatu ahal izatea.

Lehenik eta behin, aipatutakoan oinarrিতa erreformak egitea ez da erraza. Gai horien kontrol

kapitalistak behin eta berriz baieztatzen du klase-diskriminazioa, eta bereziki emakumeen diskriminazioa. Zergatik erabili ziren emakume proletarioak, Hirugarren Munduko emakumeak, akuri gisa ikerketa horietarako? Zergatik planteatzen da, oraindik ere, jaiotzen gaineko kontrola emakumeen arazo gisa? Gai horien gaineko kontrol kapitalistarekin amaitzeko borrokan hastea klase mailan aurrera egitea da, eta, bereziki, emakumeen borrokaren kasuan. Borroka horiek amatasunaren aurkako borrokarekin lotzea lanaren zatiketaren eta antolaketaren aurka borrokatzea da. Borroka hori emakumeen erantzukizun soiltzat jotzen da, emakumeen lan gisa ulertzen den etxeko lanaren aurka eta, azken batean, kapitalismoak emakumeen emantzipazioaren adibide gisa eskaintzen dizkigun eta gizonezkoen rola-reen kopia lazgarriak baino ez diren ereduaren aurka.

### **Emakumeak eta lanik ez egiteko borroka**

Laburbilduz, etxekoandreaken rola-reen atzean emakumea isolamenduan mantentzen duen gizartelan ezkutu bat dago eta rol hori suntsitu egin behar da. Baina alternatibak erabat definituta daude. Orain arte, emakumeen ezintasunaren mitoa, beste pertsona baten soldataren mendeko emakume isolatuan errotua, alternatiba bakar batekin hautsi da: soldata lortu duen emakumearekin, emakume horrek mendekotasun ekonomikoa moztu eta mendekotasunik gabeko esperientzia bizi du munduan etxetik kanpo, gizarte-lana egiten du gizarte-egitura batean, fabrian edo bulegoan. Bere gizarte iraultza egiteko moduak hasi ditu, klasearen modu tradizionalekin batera. Askapenaren aldeko mugimendu feminista zabalduko balitz, alternatiba hori baztertu beharko genuke.

Kapitala mugimendu feministaren indarra be-  
reganutzen saiatu izan da —milioika emakumek  
emakumearen leku tradizionalari uko egitea— gero eta  
emakume gehiagok lan-indarra birmoldatzeko. Mugi-  
mendua alternatiba horren kontra baino ezin da garatu.  
Alternatiba hori existitze hutsak esan nahi du, feministok  
emakumeak lanaren bidez aske izango garela dioen mitoa  
gero eta modu artikulatuagoan ukatu behar dugula.

Nahikoa lan egin dugu. Milaka tona kotoi jaso di-  
tugu, milaka plater garbitu, milaka lur garbitu, milaka  
hitz mekanografiatu, milaka irrati-aparatu konektatu,  
milaka fradel garbitu, eskuz eta makinaz. Tradizioz  
maskulinoa izan den lekuren batean «sartzen» utzi  
diguten bakoitzean, gu ustiatzeko modu berri bat aurki-  
tzeko izan da. Hemen, berriz ere, ezberdinak izan arren,  
paralelismo bat egin nahi dugu Hirugarren Munduko  
azpigarapena eta metropoliko azpigarapenaren artean,  
metropoliko sukaldean artean, zehazki. Plan kapitalis-  
tak Hirugarren Munduari proposatu dio «garatzeko»;  
oraingo agoniez gain, kontrairaultza industrialaren  
agonia ere jasan dezan. Metropoliko emakumeei «la-  
guntza» bera eskaini die. Baina etxetik atera garenak,  
diru estra izan edo askatasun ekonomikoa izateko,  
beste erremediorik ez geneukalako, aurrea hartu diegu  
gainerakoei: inflazioak mekanografoen postu beldurga-  
rri horietan edo muntatzeko lerroetan iltzatu gaitu, eta  
hori ez da salbazioa. Ez dugu onartu behar eskaintzen  
diguten garapena. Baina lan egiten duen emakumea-  
ren borroka ez da etxeko isolamendura itzultzea, nahiz  
eta astelehen goiz batzuetan oso erakargarria izan  
daitekeen; halaber, ez da, halaber, etxeko kartzela idaz-  
mahai edo makina batengatik ordezkatzeta, nahiz eta  
etxetik kanpoko lana oso erakargarria izan daitekeen  
apartamentu bateko bakardadearekin alderatuta.

Emakumeok aukera guztiak berraurkitu behar ditugu, eta ez dira ez galtzerdiak adabatzea, ez transozeanikoen kapitain izatea.

Are gehiago, baliteke horiek egin nahi izatea, baina orain ezin dira kapitalaren historia ez den beste testuinguru batean kokatu.

Mugimendu feministaren erronka borroka egiteko moduak aurkitzea da. Alde batetik, emakumeak etxetik askatzearekin batera, esklabotza bikoitza saihesten lagunduko diguten borroka egiteko moduak aurkitzea, eta, bestetik, beste kontrol- eta erregimentazio-maila kapitalista batera iristea eragotziko digutenak. Azken batean, hori da erreformismoaren eta politika iraultzailearen arteko banalerroa emakumeen mugimenduaren barruan.

Badirudi jenioak izan diren emakume gutxi egon direla. Ezin izan dira egon, prozesu sozialetik bereizita zeudelako, eta ezin izan dugu ikusi zertan erabil zezaketen bikaintasuna. Orain badago zertan erabili eta hori borroka da.

Freudek, beste hainbat gauzaren artean, esan zuen jaiotzetik emakumeek «zakilari inbidia» ziotela. Ahaztu egin zitzaion eranstea emakumeen inbidia sentimendu hori zakila izateak boterea izatea esan nahi duela konturatzen direnean sortzen dela. Ez zen ere berehalakoan ohartu zakilaren botere tradizionala guztiz aldatu zela gizon eta emakumeen arteko zatiketa hori kapitalista bihurtu zenetik.

Eta hori da gure borrokaren abiapuntua.

Mariarosa Dalla Costa  
1971ko abenduaren 29a



# HIRU

## EMAKUMEAREN LEKUA<sup>40</sup>

Gaur egun, inoiz baino gehiago, emakumeei buruzko artikuluez beteta daude egunkari eta aldizkariak. Batzuek familia oneko emakumeek egiten dutenaz eta norekin ezkontzen diren besterik ez dute aipatzen. Beste batzuk dibortzio-tasa handia izatearekin arduratuta daude eta arrazoiaren bila ari dira. Halaber, milioika emakume industrian sartzeaz edo etxekoandreen ezinegonaz ari dira eztabaidan. Artikulu horiek ez dute ezinegon horren benetako esanahia erakusten, eta emakumeei inoiz baino hobeto daudela sinetsarazteko saiakera dira, haien esanetan askoz hobeto baitaude orain etxetik atera ezin zutenean baino.

Emakumeak zoriontsu izatera animatzen dituzte.

Artikulu horietako bakar batek ere ez du esan emakumeak etxetik kanpo inoiz baino hobeto badaude, emakumeek egoera hori inoren laguntzarik gabe

---

40 «Emakumearen lekua» 1953ko otsailean argitaratu zuen *Correspondence* lehene aldiz Ameriketako Estatu Batuetan, langileen egunkari bat argitaratzeko antolatutako talde batek. Ezizenak erabili zituzten (Marie Brant eta Ellen Santori) McCarthyren garaian Estatu iparramerikarrak izan zuen errepresio politikoagatik.

aldatu dutelako izan dela. Are gehiago, ez dute azpimarratu emakumeek aldaketa hori orain nahi dutela eta emakumeak direla aldaketa hori ahalbidetu dezaketen bakarrak.

Artikulu horien idazleek emakumearen rol historikoa kitatzeko erabiltzen duten metodologia da milioika emakumeren eguneroko bizitzari, egiten dutenari eta pentsatzen dutenari ez ikusiaren egitea.

Eguneroko bizitzak soilik erakutsi dezake emakumeek nahi dutena eta nahi ez dutena.

Artikulu horiek idazten dituzten asko emakumeak dira, baina herrialde honetako langileak eta etxeakoandreak ez diren emakumeak. Idazle horiek badakite datuei jaramon egingo baliote, borrokarako arma bat emango lieketela emakumeei, beraientzat eta beraien familientzat bizitza berri bat lortzeko.

Emakume horiek ez dituzte kontuan hartzen emakumeek egunerokoan gainditu behar dituzten gatazkak. Ez dute kontuan hartzen emakumeak gatazka horien aurka egunero ari direnez, beraien eta gainerako emakumeen indarrak jabetzen direla. Arin konpontzen dute arazoa, besterik gabe, emakumeek indar horretaz jabetzen direnean harremanak izateko modu zaharrak eten eta senarrekin batera gizarte harreman mota berri eta hobea izateko egokitzen direla diote.

Testu honen egileak bere bizitzan eta inguruko emakumeen bizitzan ikusi duen hori guztia idatzi du, emakumeen batez bestekoak sentitu, pentsatu eta bizi duena adierazteko:

### **Emakume ezkongabea**

Emakume asko ezkondu aurretik lanean hasi eta bakarrik moldatzeko gai direla ohartzen da. Duela hogeitorteko neska ezkongabeak baina askoz askeagoak

dira. Ezkondu nahi dute, baina haien ezkon-bizitza desberdina izango omen da, ez omen dute etxean eta familian haien amek bezala lan egingo. Nire lagun batek dio ez dela bere ama bezalakoa izango gehiago espero duelako ezkon-bizitzaz. «Berak ez zuen ezer espero. Ni desberdina naiz: nik espero dut zerbait».

Emakumeek hartu beharreko erabakietan parte hartu nahi dute eta askotan ez dute soldata bakar batekin konformatu nahi izaten. Nahiago dute ezkondu ondoren lanean jarraitu, tarte batez bada ere, nahi eta behar dituzten gauzak erosi ahal izateko.

Emakume ezkongabeak aurre egin behar dion arazo handienetako bat izango da, argal mantentzeaz gain, jarrera jakin bat erabakitzea jaso duen moralarekiko. Horri aurre egiteko irtenbide baten bila, emakume gazteek moral berri bati ekin diote. Gazte askok apropos egin ez badute ere, ordura arte ikasitako kode moral osoari egin diote kontra. Emakume askok sexu-harremanak dituzte ezkondu aurretik eta ez diete mespretxuz begiratzen emakume ahulak edo gaiztoak balira bezala. Orain ez bezala, duela urte batzuk, emakume bat gizon batekin bazebilen isilpean gordetzen zuen.

Neska batek esan zidan bere lagun guztiek sexu-harremanak izan zituztela senargaiekin, eta itzul-ingururik gabe hitz egiten zutela kontuaz. Horretarako eskubidea dutela sentitzen dute eta eskolako ardura-dunen, gurasoen eta horrelako emakumeak onartzen ez dituzten gizonen aurka egiteko prest daude. Gizarteak onartu ala ez, lagunek egiten dutena egingo dute haiek ere, eta ziur daude eskubide horrek gizartearen onespena lortuko duela, modu berean sentitzen eta jokatzen duten emakumeen kopurua handia delako eta handitzen ari delako.

### «Aizue, beldurtu egiten nauzue»

Emakume ezkongabeak ezkondu eta bere askatasunari uko egin baino lehen, birritan pentsatzen du. Ezkondu aurretik, nahi zuenean irteten zen eta behar zuen arropa nahi zuenean erosten zuen. Ez zen inoiz gizonen askatasuna izatera iritsi, baina aske zen. Hogei urteko emakume gazte batek esan dit bi aldiz egon dela ezkontzekotan eta oso pozik dagoela ez delako ezkondu. Esan dit: «Ederki nagoela konturatzen naiz emakume ezkonduak senarrei buruz hizketan hasten direnean. Nik, orain, nahi dudana egiten dut». Ezkonduak entzuten dituenen, zera dio: «Aizue, beldurtu egiten nauzue. Neskazahartu egingo naiz zuen erruz». Baina emakume guztiek nahi dute etxe bat eta familia bat. Neska hori beti ari da haurrak eta senargaiak izateari buruz. Gaur egungo neska gazteen ustez, senargaiekin dituzten une berezi eta intimoek ez lukete ezkondu ondoren amaitu behar, aldiz, ezkontzea benetako esperientzia bilakatu beharko lukete. Neska horiek egungo ezkontzari egiten diote kontra, ez gizonen edo ezkontzari berari.

### Emakume ezkondua

Ezkondu berritan, emakumeak bere burua kokatu eta erantzukizuna onartu beharko du, horretarako trebatu izan gaituzte beti emakumeok. Bere lana senarrarekin bizi den etxea lagunak gonbidatzeko moduko leku bihurtzea izango da, lanegun gogor baten ondoren lasai atsedean hartzeko lekua sortzea. Emakumeak lan egin arren, etxearen erantzukizuna berari dagokio eta mantenu-lana gizonari. Senarrak etxetik kanpo egiten du lan emaztea eta seme-alabak mantentzeko. Baina zuk bermatu behar duzu etxea garbi dagoela, haurrak ondo zainduta daudela, otorduak prest daudela eta

arropa garbi dagoela. Badirudi hori dela aurrera egiteko modu zuzena. Baina laster konturatuko da etxean geratzeko eta etxea zaintzeko lana ez dela filmetan agertzen den bezalakoa. Etxeko lanak ez dira inoiz amaitzen eta lana monotonoa eta errepikakorra da. Arropa lisatzea, edo gosaria prestatzeko goiz jaikitzea ez dira egin nahi dituzun gauzak egin behar dituzun gauzak baizik.

### **Haurrak**

Bikote batzuk hasieratik lana banatzen saiatzen dira. Adibidez, emakumeak etxetik kanpo egiten badu lan, etxeko lanak erdibana egingo dituzte. Emakume baten senarra bera baino gehiago arduratu ohi zen etxeko lanez, haurrak izan aurretik.

*Baina lana partekatzearen ideia oro desagertu egiten da seme-alabak izatean.* Haurrak iristean, argi eta garbi ikusten da zer den gizonak etxetik kanpo lan egin eta emakumeak etxekoandre izatearen egitura: adar jotze hutsa. Haurren, etxearen eta gainerakoen pisua emakumeari esleitzen zaio. Emakume batek seme-alabak izateko lana utzi bezain laster, gizonak ez du zertan etxean lagundu. Bere ezkon-bizitzaren hasieran partekatua zena, orain zatiketa bihurtzen da. Haurrek, gurasoak batu beharrean, banandu egiten dituzte, eta emakumea etxeari eta gizona lanari lotu. Hala ere, askotan, lanean ari den bitartean seme-alabak izan eta lana uzteko gogotsu dagoen emakumea, haurrak iritsi eta etxetik kanpo lan egitea biziarteko kartzela dela ohartzen da. Hilabete edo hilabete biren ondoren, etxetik kanpoko lanera itzultzen da berriro.

Oso gizon gutxik dute haurrak zaintzeko interesa, uste dute ez dagokiela haiei fardelak aldatzea eta haurrak bainatzea. Gizon batzuen ustetan, emazteak

haurrekin etxean egon behar badu ez da beharrezkoa haiek ere etxean geratzea. Hau da, kalera atera eta nahi dutena egin dezaketela, emazteek uzten badiete, jakinda emazteak etxean sartuta daudela beti, seme-alabak zaintzen. Gizon bat lagunekin ateratzen bada, emakumeak ere normalean bere lagunekin irteteko eskubidearen alde borrokatzen du. Emakume batek esan zidan behin, haurdun zegoela eta triste zegoela jada bazuelako lau hilabeteko seme bat. Senarrak zioen bera pozik zegoela. Bazekien emaztea umearekin gelditzera behartuta bazegoen nahi zuenean atera zitekeela.

Gero eta emakume gutxiagok onartzen diete senarrei jarrera hori. Emakumeak zain eta muin borrokatzen dira, etxearen eta haurren erantzukizun guztia haiena izan ez dadin. Ez dute etxean geratu eta hari lotuta egon nahi senarrek ezer gertatu ez balitz bezala bizitzen jarraitzen duten bitartean. Emakumeak haurrengatik etxean geratu behar badira, senarrak ere beraiekin geratu beharko dira.

### **Familia zatituta dago**

Emakumeak konpontzen saiatzen dira aitaren eta seme-alaben artean sortu den zatiketa eta baita aita-amen artean sortu den zatiketa ere. Gizarteak gizoni emandako pribilegioa, gaur egun, emakumeek ez dute onartzen. Pribilegioa kaltegarria da bai emakume, bai eta gizonentzako. Gizonek ezer gutxi dakite beren seme-alabez, ez dute gertutasunik, eta ez dakite zer den seme-alaba bati denbora eta lana eskaintzeak trukean dakarrena. Emakumeak haurrei denbora hori eskaintzeak amarekin duten harremana aitarekin dutena baino gertukoago egiten du. Gizonek diote seme-alabak mantentzea dela haurren maitasuna eta emaztearen errespetua lortzeko egin behar duten

guztia. Uste dute hori nahikoa dela, baina zenbat eta gutxiago eskatu, orduan eta gutxiago jasoko dute trukean.

Emakume batentzat ez da erraza ama izatera ohitzea. Badakielako haurraren ardura osoa berea dela. Senarrak mantentzen ez badu, berak egin beharko du. Hezi egin beharko duzu: ez du beste inork egingo. Hazten denean bilakatuko den pertsona, batez ere, bere lanaren emaitza izango da. Seme edo alaba bat izan bezain pronto, bikote-harremana funtzionarazi beharko duzu. Jada ez baita norberagatik bakarrik, jaiotzea eskatu ez duen eta bikoteak porrot egiten badu sufrituko duen pertsonarengatik baizik. Normalean amaituko liratekeen bikote-harreman asko emakumeak haurrengatik mantentzen ditu, banandutako familia batetik babesteko.

Emakumearen bizitza seme-alabengan ardazten da. Haurrak dira lehentasuna. Ama direnen ustez, haurrak dira beraien beharra duten pertsona bakarrik: besterik ezean, beraientzat bizi da eta bere lana antolatzen du ahalik eta hoberen zaindu ahal izateko. Bere ordutegiak argi dio, bere denbora ez dela berea, seme-alabena baizik. Askotan, gauza askori uko egin behar izaten die, hurrek behar dutena izan dezaten. Haurrentzat behar bezain handia eta segurua den etxe batean biziko direla ziurtatu behar du. Batzuetan, senarrarekin eztabaidatu behar izaten du hurrek zer-bait behar dutenean baina senarra ados ez dagoenean. Emakumeak haurren adinaren arabera antolatzen du bere bizitza.

Gizon batentzat erraza da bere seme-alabak direla esatea, baina benetako kezkak emakumearen ardura dira, gaixorik daudenean edo gaizki portatzen direnean, nola jaten duten eta nola egiten duten lo. Zapatak nola

geratzen zaizkion, arropa non gordetzen duen, horrelakoez ez dakite ezer gizonek. Horrek ez du esan nahi aitak gustura bizi direnik horrela. Gustura ez badaude ere, ezer gutxi egin dezakete hori aldatzeko. Goizean goiz etxetik irteten direnean, haurrak lo egoten dira gehienetan, eta gauean itzultzen direnerako, ia oheratu dira. Gizonen bizitzak dirua irabaztera eta horrek dakartzan arazo guztietara bideratuta daude. Seme-alabekin behar adina denbora pasatzen ez dutenez, oso gutxi dakite euren beharrei buruz, ez bakarrik behar fisikoei dagokienez, baita diziplinari, maitasunari eta segurtasunari dagokienez ere. Etxearen eta fabrikaren artean egin den zatiketak aitaren eta seme-alaben arteko zatiketa sortu du. Argi dago gurasoak banatzean haurrek ere sufritu egingo dutela. Sarritan, gurasoetako batek bestearen aurkako arma gisa erabiltzen ditu. Haurrek oso gutxitan izaten dute gurasoen gorabeheren berri, eta ahalik eta lasterren saiatzten dira hortik aldentzen. Uko egiten diote etengabeko familia-gerra horren parte izateari, eta alde egiten dute koskortzean.

### **Gero, haurrak etxera itzultzen dira**

Guraso izateak dakarren lanak, haurrak izatearen plazeraren zati handi bat zapuzten dio lan hori egiteko ardura duenari. Egunez egun, astez aste, hurrekin egotea, zikintzen dutena garbitzea, garbi mantentzea, kalera ateratzen diren edo hoztuko ez ote diren pentsatzea tentsio ikaragarria izateaz gain, hurrei begiratuta ikusten duzun gauza bakarra zaintza horrek dakarren kezka da. Haurra ardura-iturri bihurtzen da, poz-iturri izan beharrean. Hazi ahala, lana gero eta handiagoa da. Etxeko lanak egiteko eta denbora libreza izateko oztopo bihurtzen da. Badirudi beti «erdi-erdian» dagoela, bizitzaren parte izan baino. Etxea garbitzen amaitu duzula

uste duzunean, haurrak iritsi eta hasieratik hasi beharko duzu berriro, hatz-markak hormetan, lokazturiko zapatak eta jostailuak nonahi.

Haur bat hazteko lanak sortzen duen oztopoaz konturatzea ez da erraza, azkenean, nerabezaroan sartzen den arte. Lan gutxiago ematen du, eta amak denbora gehiago eta aukera gehiago ditu behar bezala ezagutzeko. Baina ordurako beranduegi da. Urrundu egin da eta amak ezin du ez ikusi, ez ezagutu, ez estimatu.

Emakume batek hori guztia senarrari ulertarazi ezin dionean (eta gizon batek hori bizi ez duenez, oso zaila izaten da ulertzea), haurrak zaintzera behartu behar izaten du, denbora libre pixka bat izan dezan. Horrek ez du ezer konpontzen, baina tentsioa arintzen du tarte batez. Batzuetan, gizonak ez dute emazteek inolako askatasunik izan dezaten nahi. Ez dute haiengan konfiantzarik edo ideia atzerakoiak dituzte, adibidez, emakumeek denbora librerik behar ez dutela edo ez dutela denbora libre izateko eskubiderik. Egoera horietan lagun dezaketen bakarrak etxeko bizilagunak dira. Askotan, ulertzen dituzten pertsona bakarrak dira, haiek ere emakumeak direlako eta arazo berberak dituztelako. Diru pixka baten truke, seme-alaba zaintzeko prest egon daitezke arratsalde batean. Baina hala izanda ere, ez zara benetan libre. Kanpoan zaudenean, haurrak ondo zainduta ote dauden jakin nahi duzu. Batzuetan erru-sentimendua ere izaten duzu, haurrak han uzteagatik. Inork ez dizu ahazten utziko etxean egon beharko zenukeela seme-alabekin. Ama bazara ezingo duzu inoiz haiengandik libratu. Baina haiekin egonda ere ez zara libre izango. Emakumeak azkar konturatzen dira ama izatea ez dela espero zutena. Bere egoerak, senarrarenak eta seme-

alabenak, haurrekin berehalako gatazkan jartzen du. Emakume batek haurrak baditu, etxeari eta hainbeste maite dituen haur horiei lotuta bizi da. Ez dakizu zer den etxeakoandre izatea haurrak izan arte.

### **Etxea**

Emakume batek egiten duen guztia bakarrik egiten du. Etxeko lan guztiak zuk bakarrik egin beharko dituzu. Bisitak daudenean edo norbait bisitatzerara joaten denean soilik egoten dira beste pertsona batzuekin. Jendeak batzuetan pentsatzen du emakumeek bisitak egiten dituztenean denbora galtzeko izaten dela. Baina, noizean behin, norbait bisitatzerara joango ez balira, asperduraren asperduraz zoratuko lirateke. Ona da iritetea eta jendearekin egotea. Lana berdina da, eguna joan eta eguna etorri. «Hiltzen bazara ere, etxeak han jarraituko du goizean». Batzuetan aspertu eta beste zerbait egiteko beharra izaten dute. Emakume batek, bi edo hiru astean behin lekuz aldatzen zituen altzariak. Beste emakume batzuek zerbait berria erosten dute etxerako edo beraientzat. Milioi bat eskema daude monotonia hausteko. Irratsaioek denbora pasatzen laguntzen dute egunean zehar, baina ez dago ezer isolamendua eta asperduraren kontra.

Etxeko lana egiten denean beti hor egoten dena, beldurgarria dena, inoiz amaitzen ez dela dirudiela da. Gizon batek fabrika batean lan egiten duenean, lan handia egin dezake ordu luzez. Baina halako batean, korrika alde egin eta akabo laneguna. Ostirala edo larunbat gaua iristen denean, egun bat edo bi ditu aurretik. Aldiz, etxean ez da inoiz lana amaitzen. Etxean beti dago zerbait egiteke eta beti dago norbait ia amaitzear zaudela dena desordenatzen duena. Lauzapabost ordu etxea garbitzen pasa ondoren, umeak iritsi eta be-

rehala txerri-korta bat dirudi. Edo zure senarrak etxeko hautsontzi guztiak zikinduko ditu, edo euria egingo du leihoak garbitu ondoren. Baliteke haurrak kontrolatzeko gai izatea edo senarrak kontu handiagoa izatea, baina horrek ez ditu gauza asko konpontzen. Etxea egituratua dagoen moduan, ez senarrak, ez haurrek ez dakite etxea garbitzeko egiten den ahaleginaz eta egiten den lan astunaz. Etxea egituratua dagoen moduan, emakumeak ez du lanorduen, egin beharko duen lan-motaren eta zenbatekoaren gaineko kontrolik. Hori da emakumeek kontrolatu nahi dutena.

Gainerako familia kideak ez dira etxearen parte. Han bizi dira, besterik gabe. Zuk egiten duzu etxea etxe: atsedeen hartzeko leku bat. Ikusgarriagoa egiten duzu, erakargarriagoa. Txoko eroso bihurtzen duzu. Garbi mantentzen duzu. Eta zu zara inoiz erabat gozatu ezin duen bakarra. Egin behar denari begira egoten da beti. Guztien atzetik jasotzen ibiltzeak lan amaigabea dirudi. Ezin duzu atsedeen hartu denbora, energia eta gaitasun gehien uzten duzun tokian. Nagusiki, etxeari dagokionez erabaki garrantzitsuak ez dituzte emakumeek hartzen. Gauza txiki askotan nahi dutena egin dezaketen arren, benetan garrantzitsuak diren erabaki horiek senarrak hartzen ditu edo zuzenean, edo bere iritzia kontuan hartuko duzula ziurtatzen du. Emakumeek etxean erabakitzeko ahalmena izan behar dutela sentitzen dute. Inoiz baino gehiago parte hartzen dute etxeko erabakietan. Baina asko borrokatu behar izan dute hori aitoren diezaieten.

### «Norberaren nagusi»

Esaten da etxean dagoen emakumearen nagusia emakumea bera dela. Lan-erritmoa ez diote kanpotik inposatuko, alegia. Ez dio inork esango zenbat lan egin

behar duen eta nola. Nahi duenean har dezake atsedean eta zigarro bat erre edo gose denean jan dezake.

Etxekoandreak zeharo bestelakoa den nagusi bat du. Lehena senarraren lana da. Emakume batekin egin beharreko guztia, senarraren lanaren arabera da. Senarrak etxera dakarrena da familiak bizirauteko duena. Zenbat arropa erosi edo egin, arropa garbitegira eraman edo eskuz garbitu, apartamentu batean bata bestaren gainean edo familiarentzat nahikoa leku duen etxe batean bizi, gauza horiek guztiak senarrak duen lanak erabakitzen ditu. Senarraren lanorduek emakumearen ordutegi osoa baldintzatuko dute, nola bizi den eta noiz egin behar duen lan. Gaez lan egin duen senarra arazo handia da emakumearentzat, kasu horretan ez baitago ordutegirik. Etxeko lanak bukatzerako, senarra jaiki eta etxea hankaz gora jarriko du, berriro. Haurrak badituzte, bi ordutegi egongo dira eta, egunez, haurrak lasai eta isilik egon daitezen lortu beharko du emakumeak, eta hori ia ezinezkoa da.

Senarraren lana erraza edo astuna izateak ere eragingo dio emakumearen bizitzari. Lan handia duen gizon batek ez du etxeko lanetan lagunduko. Askok marmartiago eta jasanezinago iritsiko da eta elkarbizitza zailagoa izango da. Emakumeak, bake pixka bat nahi badu, bere buruarekiko kontrol handiagoa izan beharko du eta haurrak ere arrastoan sartuta mantendu.

Bizilekua bera ere senarraren lanak erabakiko du. Hirian, lanera iristea erraztuko duen auzoan biziko dira, eta hiri horretan senarraren lan-arloan lanposturik ez badago, lagunak eta familia ahaztu eta lana topatuko duen lekura joan beharko da.

Seme-alabak eta horien zaintza dira emakumearen bizitza baldintzatuko duen bigarren faktorea. Ez

dago ezer, ezer, ume txiki bat baino astunagorik. Zerbait nahi badu, berehala nahiko du eta ez beranduago.

Baina nagusirik gupidagabeena eta emakumearen bizitza etxeko lana bera da. Lan horrentzat, emakumea ez da gizakia, emakumearen sentimenduak edo nahiak ez zaizkio axola, guztiz menderatzen du, etxean eta kalean. Etengabe ari gara amaierarik ez duen lan bat amaitzen saiatzen. Egin beharreko guztia ahalik eta azkarren egin nahian, aisialdia izateko. Baina bukatu dela uste dugunean, beste zerbait dagoela konturatuko gara. Batzuetan amore eman eta egun edo ordu batzuk pasako dituzte lanik egin gabe, baina beste inork egingo ez duenez, gero lan bikoitza egin beharko dute galdutako denbora berreskuratzeko. Egin behar den hori egiten ari zara etengabe. Egin nahi duzun horrek, ez du gehiegi axola.

Emakume gehienak oso arduratsuak dira. Ama eta emazte gisa, lana ahalik eta hobekien egin nahi izaten dute, etxeaz eta seme-alabez harro egon. Ez dute beste lekurik dituzten gaitasunak erakusteko. Emakume bat administratzaile ona bada, gainerako emakumeek errespetatu egingo dute eta garrantzitsua izango da haientzat.

Beraz, etxean ez dago aginduko dion nagusi edo arduradunen beharrik. Emakumearen bizimoduak eta egin behar duen lanak mantentzen du emakumea arrastoan. Bizimodu horrek irakatsiko dio diziplina. Emakumeak ikasi egingo du noiz hitz egin eta noiz geratu isilik. Gauzak bere kabuz egiten ikasiko du. Zerbait egin behar bada eta senarrak egingo ez badu, berak egingo du. Lau haur zituen emakume batek bere etxearen kanpoalde osoa margotu zuen, ez omen zituen bost urte itxaron nahi senarrak egin arte.

### **Eskarmentua behar da**

Senarrari soldata igotzen diotenero emakumeak lasaiago biziko direla pentsatzen du, diru estra horrek gauzak aldatuko dituela. Baina, soldata igotzen dutenean, prezioek parekatzeraino egingo dute gora, ustekabeko gastu bat egongo da edo senarra gaitoxotu egingo da eta egun bateko soldata galduko du. Eta gauzak nahiko ondo doazenean, aspaldian behar zenuen baina erosi ezin zenuen hori erosiko duzu. Beraz, atzera egingo duzu abiapuntura. Ia langile-familia guztiak ezer aurreratu gabe bizi dira, gutxitan dute larrialdi baterako aurrezteko aukera. Familiak edozein arrazoiengatik soldata bat galduko balu, aste zailak izango lituzke eta etxeakoandrea nola edo hala moldatu beharko litzateke. Berdina gertatzen da langileak greba egiten duenean; izan ere, asteetan eta batzuetan hila-beteetan zehar ezer gutxirekin moldatu behar izaten dute. Meatzarien emazteek janaria eta arropa biltzeko sistema bat dute senarren lana egonkor dagoenean. Horrela, greba garaia datorrenean, janarian eta arropan aurreztutakoarekin bizi daitezke denbora batez gutxienez. Eskarmentu eta entrenamendu handia behar da trikimailu guztiak ikasteko eta emakumea da «trikimailu» horiek ikas ditzakeen bakarra. Larrialdietan ezinezkoak ziruditen egoerak gainditu eta edonola ere moldatzea izaten da.

Emakumeak senarrak irabazten duenarekin bizi beharko du, ez dio axola gutxi edo asko irabazten duen. Berak erabaki beharko du soinekoak noiz egin eta noiz erosi. Errezetak asmatuko ditu otordu merke eta onak prestatzeko. Familiaren bizimodua, dela kobratzaileak ate-joka dabiltzala, dela mahaian janaria dagoela, senarrak emazteari ematen dion diru kopuruaren eta emazteak diru hori administratzen duen moduaren

araberakoa da. Senar gehienak prezioek gora egin dutela konturatzen diren arren, ez dakite zenbat balio duen familia bat mantentzeak. Ezerezetik bizi behar duen emakumeak soilik daki ekonomia nola kudeatu.

Eskarmentu horrek guztiak, emakumea bakarrik dagoenerako prestatuko du. Senarrak utzitako emakumeak egoera zail samarra izaten du eskuartean, batez ere seme-alabak baditu. Lagunduko dioten senideak baditu, gaitz erdi. Baina, oro har, ama eta aita izan beharko da aldi berean seme-alabentzat. Lanari dagokionez, ez du beste aukerarik. Guraso bien erantzukizuna bere gain hartuko du, gizonarena eta emakumearena. Familia irabazitakoarekin mantenduko du, normalean gizon batek irabazten duena baino askoz gutxiagorekin. Askoz ere denbora gutxiago izango du seme-alabekin egoteko, eta batzuetan haiengandik banandu beharko da lan egin ahal izateko. Hala eta guztiz ere, emakume horiek seme-alabak heztea eta bizitza berri bat hastea lortzen dute. Ez dira etxean geratuko, negar batean. Nire lagun batek senarrak utzi zuen auzokide bat du, seme bat eta faktura guztiakin. Emakume horrek bere altzari guztiak saldu zituen eta irabazitako diruarekin, Puerto Ricora joan zen bere amarengana. Ezagutzeko moduko emakumea zen hura. Negar egin bazuen, inork ez zuen jakin. Zera zioen, ez zela ergel bat bezala zain geratuko. Ez zitzaion aurretik horrelakorik gertatu, eta gertatu zitzaionean jakin izan zuen zer egin.

### **Bananduta bizi dira**

Emakumeak bakarrik pasako du eguna. Senarra itzuli zain egongo da egunean zehar zer gertatu zaion kontatzeko: haurrak zoragarriak direla eta egin edo esan duten zerbait, edo egun gogorra izan duela. Se-

narrari zer pasa zaion entzun nahiko du eta hau edo hura etxerako erostea zer iruditzen zaion jakin nahiko du. Baina gizonaren bizitza ez dago etxean. Lanetik datorrenean ez du ezer egin nahiko. Batzuetan ez du hitz egin nahiko. Egun osoa pasako duzu norbaitekin hitz egin nahian, eta senarra iristen denean, egunkaria hartu eta bertan ez bazeunde bezala jokatu du. Emakume batek egun osoa etxean pasatzen duenean, emanaldiren batera irten nahi izaten du edo igande arratsaldean kotxez buelta bat ematera joan. Baina astean zehar senarra txikituta itzuliko da eta asteburu batzuetan nahiago izango du etxean geratu eta atsedean hartu. Etxetik urrun pasa du eguna eta orain esertzeko aukera du. Emakumeek laguntasuna eta uler ditzaten behar dute, eta gizonek ez dakite hori zer den.

Gizonek eta emakumeek ez badute elkar ulertzen lanaren eta giza beharren inguruan, ez da harritzekoa bikote askoren sexu-bizitzak ere ez funtzionatzea, harremanaren parte delikatuena izanik. Emakumeek oso urrun sentitzen dute senarra, hurbilen beharko luke ten pertsona hori. Bananduta bizi dira.

### **Emakumeek elkar ezagutzen dute**

Emakumeek ezin badute senarregana jo, orduan, beste emakumeengana joko dute. Elkar ezagutzen eta ulertzen dute, bizitza antzekoak daramatzatelako. Auzoan, emakumeek laguntasun harreman estuak izaten dituzte. Emakume horiek, patioan edo kalean, elkarri lagunduko diote behar dutenean eta, horrela, eguna azkarrago pasako da. Senarrek entzungo nahiko balituzte ere, kontatu ezin dizkieten kontuez ariko dira. Nork kontatuko dio gizon bati nola txukundu nahi duen etxea edo zer erosi nahi dien haurrei? Senarraren arazoak edo arazo ekonomikoak «jabetza

publikoa» dira. Emakumeek beren bizitzetan eragina duten ia edozer eztabaidatuko dute: haurrak izan ala ez izan, eta zenbat izan, nola aurreztu dirua arropetan, tresnetan eta janarian, prezio baxuenak dituzten dendak, antisorgailu metodorik onena, arazo sexualak, etxetik kanpo lan egitea. Eztabaida horietan gauza asko konpontzen dira. Emakumeek iritziz aldatzen dute gainerako emakumeekin hitz egin eta haiek entzun ondoren. Emakumeek taldekideak baztertuko dituzte haiengandik espero dena egiten ez badute. Ama batek haurra zaintzen ez badu edo etxeaz arduratzen ez bada inolako aitzakiarik gabe, ez du gainerako emakumeen denbora eta konfiantzarik izango.

Batzuek txutxu-mutxua deitzen diote horri, baina hori baino askoz gehiago da. Emakumeek etxeko isolamendua hausten dute eta lotura handiak sortzen dituzte gainerako emakumeekin. Etxekoandre batek izan dezakeen talde-bizitza murrizta da eta ahalik eta gehien aprobetxatuko du. Gainerako etxekoandreekin lotura horiek izateak berak, emakumeak senarrarekin, lanarekin eta gizarte osoarekin duen harremana gaitzesten du. Emakumeak elkartu egiten dira, hitz egiten dute eta, nolabait, elkarrekin bizi dira. Azkenean, leku horretan erabaki dezakete norekin egongo diren, non egongo diren eta zer egingo duten. Ez ditu inork geldituko.

Ostirala da asteko unerik onena nire patioan. Mundu guztiak garbitzen du bere etxea ostiraletan, asteburuan zeregin gutxiago izateko. Amaitu ondoren, arratsaldean, gutako batek garagardoa erosi, eseri eta berriketan egoten gara, atsedean hartzen dugu eta eztabaidan aritzen gara. Kidetasuna puntu gorenean dago, eta denok gaude lasaiago lana eginda dagoenean. Intimitate- eta zirika-giroa sortzen da, ezagutzen eta

onartzen zaituzten pertsona horiekin bakarrik lor daitekeena.

Horrela antolatzen dira emakumeak. Gauzak antolatzeko duten eskarmentuarekin eta taldeko gainerako emakumeen laguntzarekin badakite zer egin behar den zerbaiti ekin nahi diotenean. San Frantziskoko etxebizitza bateko emakumeek bat egin zuten prezioen gorakada gelditzeko. Ikusi zuten gobernuak ez zela ezer egiten ari eta beren gain hartu zuten arazoa. Bilerak eta manifestazioak deitu eta panfletoak banatu zituzten. Inork ez zien ezer esan. Bizilagunekin luzaroan etxebizitza berean bizi ondoren, ezagutzen zituzten elkarren ahuleziak eta indarrak. Emakumeek hiriko denda guztien prezioen zerrenda lortu zuten eta prezio baxuenak zituztenetan bakarrik erosten hasi ziren. Hiri osoak ezagutzen zuen «Mama's OPA» eta egunkariak artikulu asko argitaratu zituzten.<sup>41</sup>

Askotan, etxeoandreek egunkarietan inoiz argitaratzen ez diren ekintzak egiten dituzte: barrikadak egiten dituzte kalean, seme-alabek jolasteko leku bat izan dezaten. Poliziak ezin izan ditu desegin bonba negar-eragileekin. Emakumeek elkarrekin erabakitzen dute, adibidez, egun jakin batean haragirik ez dutela erosiko. Kalean emakume ezezagun bat gelditu eta «egun horretan ez erosi haragirik» esango diote. Emakumeek ondo ezagutzen dute elkar, nahiz eta ezezagunak izan ziur daude elkar ulertuko dutela. Meatzarien emazteek greba egin zuten konpainiak euren etxeak saltzeagatik eta meatze-hirietako hautsagatik protesta giteko. Bi kasuetan senarren babesak lortu zuten.

---

41 Izen hori da ustez Bigarren Mundu Gerran prezioak kontrolatu behar zituen Gobernuaren saila: «Office of Price Administration», EEP.

Senarrek ez zituzten emakumeek egindako pikete lerroak hautsi.

Emakumeek taldea sortzen dute, antzera tratatzen dituztelako. Oro har, bizitza bera bizi dute, egoera indibidualetan egon daitezkeen desberdintasunak alde batera utzita.

### **Harreman berri bat**

Emakumeen antolaketa unibertsalena etxean egiten duten ekintza da. Emakume bakoitza bere etxean iraultza egiten ari da. Emakume batzuek ez diete konturik eskatzen senarrei edo gainerako emakumeei. Baina manifestatzeko ordua iristen denean, ezerk ez ditu geldiarazten eta egin beharrekoa egiten dute. Beste emakume batzuk eztabaidan aritzen dira senarrekin, beraien ustez eduki beharko luketena lortzeko. Emakumearentzako eztabaida horiek esanahia dute. Ez dabil *besterik gabe* senarrarekin eztabaidan. Hari, eta bere buruari, batez ere, ideiak eta desirak dituela adierazten ari da. Emakumeek etengabe esaten diete gizonei, ahal duten moduan, ezin dutela lehen bezala jarraitu. Gizonek emakumeengan miresten dutena independentzia- eta autoestimuek hori da, nahiz eta horren aurka egin. Aurre egiten dien emakumea miresten dute, senarrari gaineratik pasatzen uzten ez diona. Senarrak egiten duena onartzen ez duten emakumeek, gainerako emakumeen errespetua irabaziko dute, eta bere senarrarena ere bai.

Emakumeek, gero eta gehiago, uko egiten diote haurrak hazteko eta senarrei lan eginarazteko makinak izateari. Senarrarekin duten harremanarekin zorrotzagoak dira orain. Senarra aldatuko ez bada, pertsona arrotz batekin bizitzen jarraitu baino, banandu egingo dira. Gaur egun, dibortzioa onartu bada, emakumeek

lortu dutelako izan da. Argi dago horren erantzulea ez dela gizon bakar bat. Dibortzio gehiegi dago hori horrela izateko. Emakume batek dibortzioa eskatzean, gizon jakin baten aurkako borroka izan arren, gizon eta emakumeek gaur egun izan behar duten bizimoduaren aurkako ekintza ere bada.

Emakumeek gizonek familian duten rola ren kontra borroka egiten dute. Horrek ez du zerikusirik senarrak emazteari laguntzarekin edo haurrak ondo tratatzearekin. Emaztea ulertzeko ahalegina ez da nahikoa, ondo konpontzeak ez du axola, emakumeek bizitzera behartuta dauden bizimodu horren kontra borrokatzen dute eta berri bat sortu nahi dute.

### **Emakume langilea**

Emakumeek gizartean duten rola gaitzesteko modu bat lanera joatea da. Gaur egun, lehenengo lanik egin ez duen emakume askok egiten du lan. Lanera joatean, emakumeek senarrekin eta seme-alabekin dituzten harremanak aldatu dira. Horrekin batera, konpondu beharreko arazo berriak sortu dira eta irtenbide berriak aurkitu.

Emakumeek eskarmentu handiagoa dute orain, badakite zer pentsatzen duten eta talde handiak sortu dituzte. Gaur egun, gero eta emakume gutxiago dira etxeakoandre soilik. Gehienak, lehenago edo beranduago, lanean hasten dira. Batzuek urteko hilabete batzuetan bakarrik egiten dute lan, beste batzuek lanpostu egonkorragoak dituzte. Nolanahi ere, aurretik ez zuten munduaren irudia dute. Lankide izandako emakume batzuek diote senarrek irabazten dutenarekin nahikoa ez dutelako lan egiten dutela. Hori egia da, batez ere, gizonek negoziarik ez duten eta soldata baxuak dituzten familietan. Bizitza garestia izateaz gain, bada

beste arrazoi bat soldata bakar batekin nahikoa ez izateko. Emakumeek lehen baino askoz gehiago eskatzen dute, ez dute depresioan zehar pasatakoa berriro pasa nahi. Ez dute arropa eskuz garbitu nahi, diru estra pixka batekin etxean etxetresna moderno bat izan badezake- te. Orain dena da modernoa, eta emakumeek tresnarik modernoena nahi dituzte lanerako. Soldata bakarrarekin egin daitekeen ia gauza bakarra arnastea da.

Aurrekontu txikiarekin bizi beharra dagoenean, emakumeek sufritzen dute gehien. Luze ibiltzen da hiri- an barrena erosketak egiteko. Normalean, bera izaten da, beharrez gero, bere burua ahazten lehena.

Emakumearen behar ekonomiko handienetako bat, gutxieneko independentzia ekonomikoa izatea da. Ez diote senarrari dirurik eskatu nahi asteroko eros- keta egin aurretik, euren dirua nahi dute. Oraindik ondo egon arren, gortina zaharrez nekatzen direnean berriak erosi nahiko lituzkete emakume guztiek, bai- na denek ez dute horretarako aukerarik. Nahiz eta zuk dirua lortzeko senarrak bezain gogor lan egin, ematen dizun dirua inoiz ez da benetan zurea izango, diru hori familiaren beharrak asetzeko eman arren. Emakumeek dituzten premia horiek ezingo dira asetu langile baka- rrak etxera dakarren diruarekin.

Fabrika batera lanera doan emakumeak inde- pendentzia sentazioa du etxeko gastuei dagokienez eta baita etxean hartzen diren erabakiei dagokienez ere. Familia mantentzen lagunduz gero, diruarekin zer egingo den erabakitzeaz gain, familian sortzen diren eta ordura arte senarrak erabaki dituen gai batzuetan parte-hartze handiagoa izan nahiko du emakumeak. Gizon bat hain zegoen harrituta emazteak lanean hasi ondoren lortutako eskubideekin, etxean geratzeko esan baitzion. Horrela hobeto moldatzen zirela zioen.

Emakumearen independentzia sentsazioa ez da erabakiengatik soilik sortzen. Emakumeak lan egiten duenean badaki ez duela bere senarrak egiten duen edozerekin konformatu behar. Gehiegi edaten badu edo beste emakume batzuekin badabil, aurre egingo dio eta lehen baino azkarrago utziko du. Orain badaki utziko balu, bere burua mantentzeko gai litzatekeela.

Emakumeak etxetik kanpo lan egitera bultzatzen dituen arrazoietakoa bat, etxean geratzen denean bizi duten asperdura eta bakardadea da. Emakumeek beste pertsona batzuekin egon nahi dute. Bere senarraren aldean, bakarrik eta isolatuta bizi da etxean. Etxean dagoenean duen konpainia bakarra irratia eta telefonoa dira. Fabrikan, gutxienez, beste batzuekin batera egiten da lan eta etxekoandrearen bakardadeari ihes egin diezaioke.

Emakumeak lanera joatean gehien atsekabertzen dituen seme-alabak uztea da. Egia da tarte batez haiengandik aldendu nahi izaten duela, baina ez du gustuko haurrak edonorekin uztea. Gehienetan ez dakigu ondo zainduta dauden. Zaharragoak badira, ez dakigu norekin ibiltzen diren eta zertan pasatzen duten denbora. Haurra haurtzaindegi batean badago, irakasleari zer moduz dagoen galdetuko dio eta ia beti erantzungo dute «oso ondo» dagoela, besterik ez. Ez dakigu benetan nola tratatu eta zaintzen dituzten. Ondo zainduko dituztela espero duzu, baina lanean ari zarenean ez zaude inoiz guztiz ziur.

Askotan, lanean ari zaren bitartean haurrak non utzi izaten da arazoa. Senarregandik bananduta dauden eta seme-alaba txikiak dituzten emakume askok konbentuan sartu behar izaten dituzte. Seme-alaben falta sumatzen dute, haiek gabe haziko direla iruditzen zaie eta ez dute haien hezkuntza erabakitzeke

ahalmen handirik. Beste emakume batzuek nahiago izaten dute haurrak auzokoen esku utzi, ezer gutxi dakiten haurtzaindegi batean utzi baino. Emakume askok etxetik kanpo lanik ez egitearen arrazoa, seme-alabak zaintzeko konfiantzazko inor ez izatea da.

### **Egon nahi duen edozein leku**

Emakumeek lan egin ala ez erabaki nahi dute. Gizon batek emakume bati etxetik kanpo lan egiteko esaten badio, seguru aski ez du egingo. Emakumeak uste du gizonak lan egiteko eskatu diola, horrela, egoera berrira ohitu eta lan egiteari uzteko. Ezagutzen dudana emakume batek lana utzi behar izan du bere soldata senarrak jokoan galtzen zuelako. Hala ere, senarrak lanik ez egiteko esaten badio, horrek ez du esan nahi etxean geratu behar duenik. Emakume bat lanean hasten denean, ez da beti senarraren onespenezkin izaten. Gizon askok ez duenez emazteak etxetik kanpo lan egiterik nahi, haurrek amarekin egon behar dutela erabiltzen dute aitzakiatzat. Emazteei hurrekin, etxearekin eta erosketekin ezin dietela lagundu ere esaten dute. Beste batzuk, etxeko lanen pisu guztia emakumearen gain jarriko dute, horrela, azkenean, emakumeek lanari uko egin diezaioten.

Emakumeek borroka egin beharko dute emakumearen lekua etxea dela uste duten gizonen kontra. Gizon horiek ez dute emazteek inongo independen-tziarik izaterik nahi eta, erabakimena duten bakarrak izaten jarraitzeko, etxeko diru-sarrera bakarra euren izatea nahi dute. Emakume bat etxetik kanpo lanean hasten denean, badakite askoz eskubide gehiago izango dituela. Emakumeek erakutsi diete gizon horiei emakumearen lekua emakumeak egon nahi duen edozein leku dela.

Lanean jarraitu nahi baina senarra kontra duten emakumeek, ez diete gizonei lana zeinen gogorra den kontatzen. Ez dute txintik esaten. Gurekin lan egiten duen emakume batek lanean jarraitzeko borrokatu behar izaten du. Hamalau urteko alaba bat dauka eta beti omen dabil etxetik kanpo. Senarrak, diru dezentete irabazten duen profesionalak, lana uzteko eskatzen dio etengabe. Etxera heltzen denean ez du inoiz nekata dagoela esaten, eta ezin dio senarrari laguntzeko eskatu lana utzaraziko liokeelako.

Lan egiten duten emakumeen artean, alde handi samarra dago lan egiteko beharra dutenen eta nahi dutelako lan egiten dutenen artean. Emakume batek nahi duelako lan egiten badu, ez du edozein tratu mota onartzen enpresaren aldetik, eta nire auzokide batek dioen bezala: nagusia pikutara bidal dezake. Lan egiteaz nekatzen denean, badaki alde egin dezakeela eta, alde egiten ez badu ere, enpresarekiko independenteagoa da eztabaidaren bat baldin badago.

Lan egiteko beharra duten emakumeek, bakarrik bizi direnek, beren burua eta batzuetan gurasoak mantendu behar dituztenek edo seme-alabak mantentzen dituzten banandutako emakumeek, euren lanarekin jarraitu behar dute derrigor. Lan egiteaz nekatzen direnean, jarraitu egin behar dute. Ez dute beste aukerarik. Oro har, enpresak egoera horiek baliatzen ditu bere alde eta badaki emakume horiek larunbatetan eta ordu estrak egiteko erabil ditzakeela. Emakumeari ondo datorkio diru estra hori, astero hamar edo hamabost dolar ordaindu behar dituenean haurtzaindegiaatik,.

Fabrikako lana erraza izaten da emakumeentzat, hau da, ez da fisikoki gogorra. Baina, fabrikako lan guztiak bezala, aspergarria eta monotonoa da. Beste batzuetan gogorra izaten da fisikoki. Lanaldian erabi-

litako muskulu guztietan sentitzen duzu. Dena den, egiten den lana gorabehera, garrantzitsuena lankideak dira. Lana erraza baina aspergarria bada, gainerako emakumeek arinduko dute eguna. Lana gogorra bada, aurrera egiten lagunduko dizun gauza bakarra zurekin batera lanean ari diren emakumeak dira. Lan mota ez da garrantzitsuena, benetan axola duena lankideak dira eta haiekin sortutako harremanak.

Beti gertatzen da zerbait lantokian. Txiste bat kontatzen ari den hori edo pailazokeriak egiten ari den bestea, edo arduradunarekin, gizon edo emakume, piztu den liskarra. Beti dago zerbaiti buruzko eztabaidaren bat, eta denari buruz hitz egiten da. Sexu-arazoak edo gaurkotasuneko gaiak, etxeko lanak eta nola hezi haurrak, dantzatzeko pauso berriak eta azken estiloak, gastuak eta etxebizitza, pisua galtzeko edo lortzeko moduak. Beti dago norbait berriketarako prest. Neskak denon sentimenduez eta interesez arduratzen dira.

Enpresak ez bezala, neskek elkarrenganako interesa dute. Baten bat falta denean, faltan botatzen dute eta normalean norbaitek telefonoz deitzen dio zer gertatu zaion jakiteko. Norbaiti benetan larria den zerbait gertatzen bazaio, gertukoena dirua biltzen hasiko dira hari zerbait erosteko edo behar duen edozer ordaintzeko. Neskek eskuzabaltasunez ematen dute denbora eta dirua. Baten bat egun batean ondoezik badago, bere lagunek abiadura bikoitzean egiten dute lan haren lana konpentsatzeko, lanean ordurik gal ez dezan. Enpresa ez da inoiz norbanakoaz arduratzen. Lanordu bera egin beharko du egunero, edozer gertatzen dela ere. Neskak dira elkar zaintzeaz arduratzen diren bakarrak eta behar duzunean lagunduko dizute.

## **Gu, aurrerantzean**

Lanetik etxera gaez iristea ez da gauza bera emakumeentzat edo gizonentzat. Etxera iritsi bezain laster, emakumeak lanean jarraituko du. Emakume ezkonduak, batez ere haurrak baditu, ezingo du eseri eta atsedean hartu. Afaria egin beharko du eta mahaia jarri, platerak garbitu, haurrak bainatu eta ohean sartu. Bi lanpostu ditu: lanaldi erdiko ama eta etxeakoandrea da, eta lanaldi osoko soldatapeko langilea. Asteburuan, gizonak atsedean hartzeko aprobetxatzen duenean, etxea bere ardura da, astean zehar egin gabe utzi diren zeregin guztiak egin beharko ditu.

Lan egitea eta familia bat izatea zama gogorra da. Senarra atsegina izan eta etxean lagundu arren, etxearen pisu handiena emakumeak hartzen du bere gain. Emakume bat etxetik kanpo lanean hasteak ez du esan nahi etxeakoandrea izateari utzi dionik.

Etxetik kanpo lan egiten duten emakumeek gauza gehiago partekatu ditzakete senarrarekin etxeakoandreak baino, gauza gehiagori buruz hitz egin dezakete. Oztopo nagusiak, ordea, hor jarraitzen du, oraindik ere, errazagoa da beste emakume batzuekin hitz egitea senarrarekin hitz egitea baino. Hala eta guztiz ere, gauzak behin betiko aldatu dira bikote kontuetan. Emakume batek esan zidan, «ni ez naiz etxearen arduradun bakarra, etxea *gure* ardura da». Eta dena izango da *gurea*, aurrerantzean.

## **Sindikatuak eta emakumeak ardurazko postuetan**

Sindikatuak eta enpresek zintzo plantak egiten dituzte emakumeak arduradun lanetan jartzen dituztenean. Sindikatuetakako departamentu-buruak eta sindikatuetakako kideak emakumeak izaten dira maiz. Emakumezko nagusi eta arduradunak fabrika-

ko langileen artetik aukeratzen dituzte askotan. Baina muntatze-lerrotik ateratzen direnean, neskek ahaztu egiten dituzte besteak eta sindikatuko edo enpresako agente bihurtzen dira, maiz langileen aurka eginez. Emakumezko nagusiek, oro har, elkarrekin bazkaltzen dute, elkarrekin ateratzen dira eta gainerakoak baino hobekak direla uste dute. Gizonezko nagusiek bezala jokatzeko dute, baina emakume izatea langileen konfiantza bereganatzeko erabiltzen dute, ekoizpena handitzeko eta langileak arrastoan sartzeko.

Nire fabrikako arduradun bati zuzendariak ekoizpena bikoizteko eskatu eta arduraduna zen neska horrek langileei ez ziela hori eskatuko erantzun zion. Egunak pasa zituen negarrez. Ez zen konturatu neskak protestara bultzatzea zela zuzendariari kontra egiteko modu bakarra. Bere kabuz kudeatu zuen, eta handik gutxira langileei gehiago ekoizteko eskatu zion, horretarako presioa egin ziotela esanez. Emakume gehienek uste dute emakume batek nagusi izatea lortzen duenean, gizon bat baino okerragoa dela. Nagusi diren emakumeek etengabe erabiltzen dute euren emakumetasuna emakumeak kontrolatzeko. Sindikatuko kideek gauza bera egiten dute.

Langileek sindikatuaren eta gizonen artean dagoen zatiketari buruz hitz egiten dute. Hori gizonen sindikatuei dagokienez egia bada, emakumeen kasuan zer esanik ez. Emakume askori iruditzen zaie egiten duten gauza bakarra dirua biltzea dela eta neskak otzan mantentzea enpresarentzat. Izen-emate tarifak ez dira, inondik inora, emakumeek irabazten dutenarenakiko proportzionalak, eta kuotak besteak bezain altuak dira. Departamentu batzuetan langileek ez dute nagusia ezagutzen, ezta axola ere. Neskek sindikatua defendatuko dute enpresak eraso egiten badiu. Hala

ere, zerbait lortu nahi badute, badakite beraiek egin beharko dutela.

Lanarekiko bi ikuspuntu desberdin daude eta emakumeen gehiengoak bata ala bestea du. Etxeko monotonian geratzeari aukeratu badute, etxetik kanpo lan egiteko gogoia izaten dute. Zenbait emakumek, aldiz, etxean geratzeko baimena emango dieten egunaren zain bizi dira. Gerra garaian defentsa-industrietan lan egiten zuten emakume askori gertatu zitzaaien hori. Gerraren ondoren, emakume asko kaleratu zituzten, baina batzuk geratu egin ziren. Kaleratu zituztenak eta aurretik lan egin ez zuten emakume asko, gero eta gehiago, langile bihurtzen ari dira. Emakumearen lekua emakumeak egon nahi duen hori bihurtzen ari da.

Kontua ez da emakumeak lan egitea gustuko duen ala ez. Emakumeek ez dute lan egitea gustuko, ez etxean, ez fabriketan. Baina, «etxeokoa soila» izatearekin alderatuta, emakume gehienek fabrika aukera hobea dela uste dute. Nire bizilaguna lanean hasi da Gabonetarako dirua irabazteko, eta aldi baterako etxetik urrundu nahi duelako, baina Gabonetarako diruarena senarrarekin erabilitako aitzakia izan da. Hiru urteko semea aitona-amonekin utzi du, eta, horri esker, senarra ez da kexatu lanean ari delako. Noizean behin, lana utziko duela esaten du, baina ez du erabakirik hartu.

### **Emakume guztiek dakite hori**

Egunetik egunera gero eta emakume gehiagok adierazi dute ezin dutela orain arte bezala jarraitu. Dagoeneko ez dute uste orain arte funtzionatu duenak aurrerantzean ere funtzionatuko duenik; edo, beste era batera esanda, ez dute uste beti hala izan delako, haien bizitzek berdin izaten jarraitu behar

duzenik. Senarrak, seme-alabak, lana... Denarekin daude gatazkan. Egiten duten guztiak, hartzen duten erabaki bakoitzak, funtzionatu *lezakeela* uste dute. Ezkon-bizitza, haurrak, etxea, gauza horietako bat bera ere ez da segurua emakumeentzat. Aurretik lanik egin ez duten etxekoandreak seme-alabak noiz haziko zain daude lan bila hasteko. Betidanik etxetik kanpo lan egin duten emakumeak lana noiz utziko zain daude. Hogei urtez elkarrekin egondako bikoteak harremanak uzten ari dira. Bikote gazteek ezkondu eta sei hilabetera, erabakitzen dute hobe dela haurrek sufritu baino lehen banantzea. Bigarren Hezkuntza amaitzen duten neska gazteak, korrika eta presaka ezkondu beharrean, lan bat eta apartamentu bat bilatu eta bakarrik bizi dira.

Ez da emakumeek ez dutenik emazte eta ama izan nahi. Gizonak nahi eta behar dituzte bizitza partekatzeko eta emakume guztiek izan nahi dituzte haurrak. Baina ezin badute harreman onik izan, nahia-go dute harremanik ez izan. Emakumeak ezkon-bizitza utzi eta dibortziazten ari dira, etxekoandre izateari utzi eta etxetik kanpo lanean, baina familientzat eta be-  
raientzat nahiko luketen bizitza hori ez da existitzen.

Emakumeak pixkanaka ari dira ohartzen aldaketa erradikala ez bada, ez dagoela irtenbiderik. Baina badute zerbait argi: ezin dute orain arte bezala jarraitu. Emakume guztiek dakite hori.

Selma James



# LAU

## AMATASUNA ETA ABORTUA<sup>42</sup>

### **Aktualitate-oharra**

Abortatu izanagatik autosalaketa masiboak antolatu dituzte Frantzia, Alemanian eta beste herrialde batzuetan. Emakumeen iraultzaren baitan, abortuaren historia isilarazi nahi izan duten horiei kontra egiteko mundu mailan sortu den borroka-moduetako bat da.

Guk, *Movimento di Lotta Femminile*ko emakumeok, abortuaren aldeko borrokan gure parte-hartzearen nondik norakoak sakonki argitzeko beharra izateaz gain, gaur egunera arte inposatu diguten abortuaren historiaren nondik norakoak argitzeko beharra ere badugu.

Lehenik eta behin, abortatzea DEBEKATU digun sistemak berak abortatzera BEHARTU gaitu eta abortatzera behartzen gaituela salatzen dugu, nahi izango bagenu ere, bizi-baldintzek eta lan-baldintzek, haur-

---

42 Hurrengo dokumentua 1971ko ekainean Paduako *Movimento di Lotta Femminile* mugimenduak egin eta zabaldu zuen, berriro argitaratu zuten politikari italiarrek dibortzioaren aldeko edo aurkako erreferendumari buruz eztabaidatzen zuten bitartean, beste behin ere agerian utziz esplotatuen benetako arazoetatik urrun zebiltzala.

dun geratzeko aukera zapuzten duten kasu guztietan. Hala nola, soldata duin baten falta edo senarraren soldata eskasa, antsietatea eta etxearen edo fabrikaren osasungarritasun eza.

Merezi du lan-baldintzek haurra barrutik kendu dieten emakume guztien sinadurak biltzen hasia. Egin dezagun, beraz, *abortatzera behartu gaituzten nagusien aurkako salaketa masiboa* ere bai.

Ondoren, berreraiki dezagun historia apur bat.

Lehenengo artikuluan zehaztu dugun bezala, emakumea etxean isolatu eta familiako gainetako kideak egun osorako etxetik urrunduz zituztenetik, «amatasunaren» bidez «bere patu fisiologikoa» beteko zuela esan zioten emakumeari.

Hori «bere bokazio naturala» zela esaten zioten, bere organismoa espeziea betiketara «bideratuta» zegoelako. Baina, emaitza guztiei erreparatzen badiegu, ugalketa-funtzioa ez da inoiz soilik zoriaren eta naturaren mende egon eta, beraz, patuaren «naturaz» hitz egiteari kiratsa dario, hasteko, definizio gisa eta, gainera, are kirats handiagoa dario hain berezko patu hori osorik gure gain emakumeok bakarrik daramagula konturatzerakoan.

Lehen dokumentuan genioen bezala, indarrez hezi gaituztenez edertasunaren gainean, bertutearen bidean eta ezagutzaren miserian, dirudienez, haur bat egiteko gizon bat ere behar izaten omen da. Begirada azkar batean ikusi ahal izan dugu historikoki nolakoa izan den eta nolakoa den hain naturalki garatzen den hori, eta konturatu gara:

I. Emakumea soilik ama gisa ikusten zenbat eta gehiago tematu, hainbat eta gehiago ukatuko dute pertsona gisa, gizabanako gisa. Hau da, amatasuna emakumeari esleitzea lortu dute (gai hori ez da soilik

sorkuntzari dagokiona, baizik eta seme-alaben hezkuntzaren erantzukizunari berari dagokiona), *sexualki zikiratzea eta bizitza sozialetik kanpo uztea* lortu dutelako.

II. Behin bere nortasuna eta sexualitatea *amatasunean* eraiki eta agortu dutenean, amatasun hori lan-indarraren eta kontrol politikoaren merkatuaren eskakizunen arabera funtzionaraztera behartu dute, amaren funtzioa era berean goratuz edo deuseztatuz.

Adibide batzuk aipatzearen, Puerto Ricon emakumeen masa-esterilizazioaren praktika handitu egin zen 1930ean, medikuek metodo antisorgailu bakar gisa bultzatu zutenean; 1947-1948 bitartean emakumeen % 7 esterilizatu zuten. Hori Ipar Amerikako kapitalak kolonia izatera bideratu zuen herrialde oso txiro batean gertatu zen, irabazi iturri handi eta, aldi berean, Ameriketako Estatu Batuetako handikeriaren adibide zenean.

Beranduago, puertorricoar horiek akuri bezala erabili zituzten pilula antisorgailuarekin esperimentatzeko, Ameriketako Estatu Batuetako merkaturuan zabaldu aurretik.

Ameriketako Estatu Batuetan emakume beltzak etengabe antzutu dituzte, haiek jakin gabe, ospitaleetara abortatzera edo behar ginekologikoren batengatik joaten zirenean. Ondorioz: nahiago izaten zuten medikuaren laguntzarik gabe abortatu eta erditu. Ez da harritzekoa horrelako praktikak antolatu izana hazkunde demografikoaren arazoak konpontzeko Asian, Latinoamerikan eta, orokorrean, Hirugarren Munduan.

Politika orokor baten alderdi agerikoena baino ez da kasu hori, emakumeen ugalketa-funtzioa kontrolatzearena (beti hain erraz antzematen ez den arren) eta, horren bitartez, lan-indarra baldintzatzen duena.

III. Antisorgailuaren ikerketa eszena zientifikoan berandu agertu izanak, jada aurkitu eta garatutako metodo antisorgailuak Elizak behar bezala ezkututzen lagundu izanak, Ipar Amerikako sukaldeen konparaketara garamatza; azken aurkikuntza teknologiko gisa eskaini nahi digute garapen teknologikoaren hastapenetarako ere duina ez dena. Atzerapen hori zientziaren eta gure azalean duen boterearen enegarren iruzurra baino ez da izan.

Gaur egun, oraindik abortua baliatu behar dugu eta horrek, berriro ere, ikerketa horren gabezia handia dela salatzen garamatza.

IV. Beti erabili izan dira emakumeak antisorgailuen ikerketetan esperimendatzeko akuri gisa, eta ondorioak oraindik emakumeentzat dira soilik. Horren arabera, alde batetik, ugalkortasun arazoren bat dagoen kasuetan diskriminazioa dago, «arazoa» «emakumeena» delako eta sorkuntza «emakumeen gaia» delako; bestalde, ikerketa hori emakumeen sexualitatea kontrolatzeko tresna gisa erabili izan da berriro ere, jaiotza-tasa kontrolatzeko metodoak zehaztean jaiotza-tasa kontrolatzeko terminoak zehazten direlako, eta, ondorioz, gizonen eta emakumeen arteko eta, orokorrean, emakumeen eta gizartearen arteko harremanaren terminoak zehazten direlako. Noizbait lan-indarra handitzeko emakume askoren beharra izan badute, berehala egon dira prest jaiotza-tasa kontrolatzeko metodo eraginkorrak (basatiak izan arren) emateko.

V. Horregatik, abortua, antisorgailuei buruzko ganorazko ikerketa faltaren alternatiba bakarra izan arren, ia mundu osoan DEBEKATUTA dago.

Herrialde batzuetan abortu «terapeutikoa» egiten da (hau da, mediku, psikologo eta soziologoek

buru-osasun delikatua duzula, ahul samarra zarela eta egoera ekonomiko txarrean zaudela badiote bakarrik egiten da).

*Hau da, emakumeari ez zaio sekula aitortu ama izatea eta noiz izan nahi duen erabakitzeke eskubidea eta, bide batez, ezta abortatzea erabakitzeke eskubidea ere.* ABORTUA DEBEKATZEA HAIN DA FENOMENO HEDATUA, ABORTUA EMAKUME IZATEAREN ARRISKU INPLIZITUTZAT HARTU BEHARKO GENUKEELA.

Gaineratu nahi dugu, aipatu dugun arriskua ez dela zigor-kodean aipatzen den «arrisku larria». Izan ere, mediku atzerakoiek ere onartu berri dute, beharrezko osasun laguntza eta anestesiarekin, klinika batean egindako abortua askoz ere seguruagoa dela erditze bat baino. *Legez kanpo* abortatzerakoan, abortatzeko tokiko baldintzak eta moduak dira arriskutsuak direnak.

VI. «Arazo moralari» dagokionez, ez du merezi Eliza Katolikoak abortuaren debeku horri eusteko izan duen adeitasunari jaramon egiteak. Debeku horrek umekiak arima noiz garatzen duen, eta (are zaharra goa den gaia), emakumezko umekiek arima ote duten ere eztabaidatzen du. Beraz, ondoriozta dezakegu umetokian ikusi ahal izango balitz jaioko dena arra edo emea den, Elizak baimena emango lukeela emakumezko umekiak abortatzeko.

Eliz literatura irakurri eta atsekabetu ondoren, arazo moralaren auzia bukatutzat eman dugu. Sakondu nahi duenarentzat, emakumeen mugimenduko aldizkariak gero eta gehiago argitaratzen dute literaturari hori.

VII. Salatzen dugu, abortuaren erabateko debekuaren barruan, abortu terapeutikoa graziazko kontzesio gisa emateak klase-diskriminaziorako ene-

garren tresna gisa funtzionatu duela eta funtzionatzen duela gaur egun ere bai. Gizarte-maila jakin bat duten emakumeek bakarrik lortzen dituzte azkar (*garaiz*, alegia) konturatzeko eta abortu terapeutikoa egiteko beharrezkoak diren adierazpen mediko-sozialak.

Gainerakoentzat, ia ezinezkoa da adierazpen horiek lortzea, eta giza-sadismoaren lehen biktima bihurtzen dira; izan ere, itxurazko liberalismo batetik, emakumeek ama izan nahi duten ala ez, eta noiz izan nahi duten erabakitzeke eskubideari eutsi nahi diote gure kontura. Eta medikuak giza-sadismo horren funtsezko elementu dira.

VIII. Baina unea iristerakoan, *haurra gure kontura* eginda, sistemaren benetako aurpegia ikusiko dugu parez pare.

Abortatzea lortu ez dutenek haurra izango dute.

Abortatzea lortu ez dutenak, esan bezala, langile klasekoak izan ohi dira.

Hala ere, haurra jaiotzen denean, asmo errepre-siboa burutzen denean, amatasunera behartu zaituen estatu berak ez du erantzukizunik hartuko: «eta egin ezazu ahal duzuna mantendu ahal izateko».

Gehienez ere 5000 lira emango dizkizu hilean haurra jaio eta lehen urte horretarako, eta 2500 lira bost urte bete arte.

Eta, jakina, hilean 5000 lira behar dituenak, ezin du hilean 5000 lirekin haurrik mantendu. Haurra umezurztegira joango da.

Une hori iritsitakoan, estatua agertuko da berriro. Ez amari laguntzeko, noski, eta are gutxiago haurrari, enpresa bat eraikitzeke baizik. Amarentzako 5000 lirak 45000 bihurtuko dira umezurztegietako haur bakoitzarentzat. Ohartuko gara umezurztegi gehienak Elizak zuzentzen dituela eta badakigu haurrak nola

hazten dituzten bertan. Azken urteotako egunkariak gaia sakon landu duten albistez beteta daude: desnutrizioa, mota guztietako indarkeria eta sadismoa. Erljio-ordena txikietara, azpiokupaziora, emigraziora, erreformatoria eta kartzeletara bideratuko dituzten haurrak hezten dituzte. Guk Eliza salatu eta haren aurka borrokatzen dugu, enpresa horien eskuineko besoa delako.

IX. Jaungoikoaren bedeinkapenarekin eta sistemaren adostasunarekin amatasunaren gorespen-giro kirasdunean hazi ondoren, erditu eta haur bat izatea lortzen duten emakumeei, lana eta etxea duten horiei, «erditze-lizentzia» emango diete eta «gaixotasun absentsia» moduan zigitatu.

Lan-indarraren ugalketa-funtzio gisa uler-tutako eta behartutako amatasunak ez du amaiera zorientsurik. Lanera joan ez den emakumearen eta erditzen ari den emakumeari dagokionez, lehengoak lantokian ez egoteagatik galtzen dituen irabaziek amatasun-lizentziari konnotazio «produktiboagoa» ematea eragozten dute. Emakume bat erditzen ari denean lantokira ez joatea «gaixotasun absentsia» gisa sailkatzen da oraindik.

### **Ondorioak**

Guk, emakume guztiok, abortuaren aldeko borroka antolatzeke premia dugu, premia handia; izan ere, osasun arloko ikerketaren mailak ez digu esaten uzten, besterik gabe, *antisorgailuen sistema aske eta doa-koaren alde* ari garelako borrokan.

Hori diogunean, ez diogu pilularekin konformatzen ari garenik, injekzioekin edo beste sistema kimiko, mekaniko eta abarrekin. Oraindik ere antisorgailu horiek duten arrisku-ehuneko handiarekin, ondo

baino hobeto baitakigu hori. Garapenak —medikuntzaren beste adarrekin alderatuta oso txikia da eta ez halabeharrez—, oso gutxi egin du egoera konpontzeko. Horregatik, berehalako eta gutxieneko helburu gisa, aborturako ere antolatuta egon behar dugu. Ez baikara antolatzen ari abortu «terapeutikoa» eskatzeko, horrek berriro proposatu eta larriagotuko lituzke betiko klase-diskriminazioak, abortu libre eta doakoa (anestesiarekin) denok eskuratu ahal izateko baizik.

Aldi berean, ordea, salatzen dugu orain arte abortuak, legez kanpokoa izanik, giza haragiaren enpresa baten zutabe handi gisa funtzionatu duela, emakumeen osasun biopsikikoari kalterik egiten ez dioten antisorgailuen ikerketa sistema zuzenki atzertzeko edo indargabetzeko metodoa izan baita.

Are gehiago, abortua legez kanpokoa izatea izan da enpresa hori eraikitzeko eta artikulatzeko oinarria. Horrela, abortuak bereganatu, legezkoa eta legez kanpokoa zer den antolatu, eta etekina atera diote, bai medikuek, bai klinika pribatuetarako bezeroak behar dituen unibertsitateko ikasleak.

Hori guztia ondo baino hobeto ulertu dugulako, gure borroka, batez ere, egoera hori ahalbidetu duten gizarte- eta botere-egitura guztien aurkako borroka da, guk geuk pairatzea nahi izan baitute. Esan dezagun orain, hasieratik, argi eta garbi, borroka honen norabidea aldatzera goazela:

*Arazoa ez da abortatzea.*

*Ama izan nahi dugun guztietan ama izateko aukera izatea da arazoa. Nahi dugunean soilik, baina nahi dugun aldiro.*

Gaur egun, hegoaldeko emakume langileek hamabost seme-alaba badituzte eta erdiko klaseko

emakumeek bi edo hiru besterik ez, gure helburua ez da seme-alabarik ez izatearen pribilegio ziztrin hori.

Funtsean, hasi dira emakumeei gaizki fabrikatutako pilula horiek ematen, funtzionatzen ez duten injekzio horiek, eta zerbait hobea ere emango digute, ziur, abortua bera ere bai.

Izan ere, horrek hau esan nahi badu: «neurtu ezazu zure burua. 100 000 lira irabazten badituzu, izan ezazu haur bakarra, 150 000 irabazten badituzu, bi ere izan ditzakezu», gure erantzuna da *ez gaudela ados*.

Ez gaude ados, guk edo senarrak zenbat irabazten dugun ikusi, eta horren arabera, seme-alabak planifikatu behar izatearekin. Hori berrikusi egin behar da eta guztiz berregin.

Zabaltzen ari den literatura batek amak gonbidatu ditu seme-alaben ekoizpenaren plangintzan erantzukizun soziala izatera, bereziki ama europarrak. Guk berehala erantzun dugu gure erantzukizun soziala ez dela, inola ere, gure soldata-mailara egokitzea, baizik eta soldata bera suntsitzea, izan nahi ditugun seme-alaba guztiak, nahi dugun guztietan eta nahi dugunean soilik izan ahal izateko.

Izan ere, nahi dugun guztietan mundura haur bat ekartzeko eskubidearen alde, emakume guztion eskubide horren alde, borrokatzeko eta jarduteko ahalmenaren arabera neurtzen dugu gure erantzukizun sozial bakarra.

Eskubide hori, oraindik ere, birentzako gela baten konkista izaten da lehenik. Izan ere, seme-alaben aurrean maitasuna egiten zuten gurasoen komunitatea paradisu galdua bada, orain, Adan eta Eva elkarrengandik eta seme-alabengandik banandu zituen jatorrizko bekatuaren ondoren, birentzako gela gutxieneko konkista da Turinen eta Reggio-Calabrian.

Promiskuitatea metatzea, konkistatu nahi dugun komunitatearen kontrakoa da.

*Maitasuna nahi beste aldiz egitea, haurrak nahi beste aldiz izatea, giro eroso, goxo eta ederrean.*

Horrek esan nahi du amatasunaren ordainak ezin duela soldata edo bazterkeria izan.

Eskubide hori zenbateraino lortu dugun neurtzen badugu soilik neur dezakegu gure gizarte-aberastasuna.

MOVIMENTO DI LOTTA FEMMINILE DI PADOVA  
1971ko ekaina



